

**GIPUZKOAKO LURRALDE
HISTORIKOKO FORU SEKTORE
PUBLIKOKO ERAKUNDEAREN ETIKA
BATZORDEAREN JARDUERA MEMORIA**

2023



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

SARRERA

Diputatuen Kontseiluaren 2016ko martxoaren 1eko Erabakiaren bidez onetsi zen Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta haren sektore publikoaren Erakundearen Zuzentasun Sistema. Horren ondoren, Erakundearen Etika Batzordea eratu zen (EEB) aipatutako Erakundearen Zuzentasun Sistema betetzeko berme organo gisa. Maiatzaren 3ko 10/2022 Foru Dekretuak Batzorde horren antolaketa, prozedura eta funtzionamendua arautzen ditu.

Memoria honek jaso nahi du Batzordeak 2023an egin duen jarduera, 10/2022 Foru Dekretuaren 10. artikuluan Batzordearen jardueraren gardentasunari eta kontu-emateari buruz ezarritakoari jarraituz. Era berean, memoria honek, aztertutako kasuak zehazteaz gain, Erakundearen Zuzentasun Sistemaren kokatutako jokabide kodeen edukiaren interpretazioari buruzko gomendio batzuk jasotzen ditu, horien edukia argitzeko eta gaur egunera egokitzeko.

1- Testuingurua	7
2- Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta haren sektore publikoaren Erakundearen Zuzentasun Sistema	9
a) Datuak eta Adimen Artifiziala erabiltzeko kode etikoa.	10
b) Interes Taldeen Erregistroa abian jartzea.	12
c) Ohiko galderen atala Erakundearen Zuzentasun Sistemaren webgunean	14
d) Foru gobernantza publikoaren esparruko Gobernu Onari buruzko martxoaren 11ko 4/2019 Foru Arauaren tarteko ebaluazioaren emaitzak	16
e) Aldaketak Erakundearen Etika Batzordearen osieran.	20
f) 57/2023 Foru Dekretua, abenduaren 19koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko foru sektore publikoko Erakundearen Etika Batzordearen antolaketa, prozedura eta funtzionamendua arautzen dituen maiatzaren 3ko 10/2022 Foru Dekretua aldatzen duena.	21
3- Sentsibilizazioa, zabalkundea eta kanpo proiektzioa	25
a) Sentsibilizazio- eta zabalkunde-jardunaldia	26
a. Gobernu onaren krisiei aurre egiteko gakoak. Gunea aretoa, martxoak 1	26
b) Kongresu, jardunaldi eta ikastaroetan parte hartzea	26
a. Sistemas de Integridad. Pinto, urtarrilak 30	26
b. Integridad frente a la desafección. Online, otsailak 28	26
c. Las democracias occidentales en la encrucijada. Donostia, uztailak 20	27

d. Zuzentasan sistemen garrantzia tokiko gobernuetan. Online, urriak 17	27
e. Gobernu Ona, Zuzentasan Sistemak eta salaketen kanala. Eibar, azaroak 23	27
c) Online prestakuntza "Gobernantza irekia eta lankidetzazkoa"	28
4- Jasotako gaiak	29
a) Laburpena	30
b) Aztertutako gaiak.	30
5- Aplikatzeko gida	87

1. Testuingurua

Hainbat hamarkadatan, Europar Batasunak ikuspegia jarrita izan du etengabe iruzurraren eta ustelkeriaren aurkako borrokan, fenomeno horiek ekonomian, erakundeen zuzentasunean eta, azken batean, herritarrek Europako erakundeetan duten konfiantzan eragiten dituzten ondorio kaltegarriez jabetuta. Horregatik, erregulazio-esparru zabala eta nazioarteko erakundeak ditu, hala nola Iruzuraren aurka borrokatzeko Europako bulegoa (OLAF) edo Europako Kontuen Auzitegia, gastu publikoaren gardentasuna, lehia eta efizientzia bermatzen saiatzen direnak.

Baina covid-19ak eragindako pandemiaren agerpena eta Next Generation Funtsen onarpena (2021/241 Erregelamendua) aurrerapauso handia izan ziren iruzurraren aurkako borroka horretan; izan ere, borroka hori garatzeko, estatu-mailako arau ugari onartu dira, hala nola HFP/1030/2021 Agindua, irailaren 29koa, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plan Nazionalaren kudeaketa sistema eratzten duena, edo 2/2023 Legea, otsailaren 20koa, arau-arloko arau-hausteei eta ustelkeriaren aurkako borrokari buruzko informazioa ematen duten pertsonen babesa arautzen duena.

Testuinguru horretan, badirudi herritarrek ere kontzientzia handiagoa hartu dutela erakunde publikoen jardueraren kontrolean duten eginkizunaz. Gure jarduerari dagokionez, 2023an aztertutako gaien kopurua handitu egin da aurreko urtearekin alderatuta (bederatzi eta lau, hurrenez hurren), baina joera aldaketa bat ere gertatu da gaien jatorriari edo izaerari dagokionez. 2016. urtetik (urte horretan hasi zen lanean Erakundearen Etika Batzorde hau) 2022. urtera arte aztertutako 50 gaietatik 14 baino ez ziren salaketak izan (% 28), eta gainerakoak Erakundearen Zuzentasun Sistemak eragiten dien pertsonen egindako kontsultak izan ziren, Sistemaren manuren bat kasu zehatzetan aplikatzeari eta interpretatzeari dagokionez. Baina 2023an 3 kontsulta eta 9 salaketa aztertu dira, gehienak modu anonimoan aurkeztu direnak salaketen plataforma edo kanal anonimoaren bidez. Hau da, salaketak % 28 izatetik % 66 izatera igaro gara 2023an.

Kontua ez da datu hori berez positiboa edo negatiboa den baloratzea, baina erakusten duena da herritarrek kontzientzia handiagoa hartzen dutela, anonimotasunak ematen duen segurtasunak animatuta agian, eta zalantzan jartzen dutela zenbait jarduketetako ikuspegi etikoa zerbitzu publikoak gauzatzean edo ematean.

2023an emandako ebazpenei buruzko atalean ikusiko den bezala, bi gaitan soilik iritzi da Erakundearen Zuzentasun Sistemaren balio edo printzipioren bat urra zitekeela, baina 7 kasutan, gaien analisiaren ondorioz, gaien inplikaturak zeuden zerbitzu publikoen presztazioa hobetzeko gomendioak eman dira. Eta hori bai, beti da positiboa, eta gizartearen ongizatean eragiten du.

2. Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta haren sektore publikoaren Erakundearen Zuzentasun Sistema

a) Datuak eta Adimen Artifiziala erabiltzeko kode etikoa¹

Hasieratik gertatu den bezala, Erakundearen Zuzentasun Sistema garatzen joan da, eta gizartearen unean uneko egoerara, beharretara eta eskaeretara egokitzen. Horregatik, Diputatuen Kontseiluan, 2023ko urtarrilaren 10ean, **Datuak eta Adimen Artifiziala Erabiltzeko Kode Etikoa** onartu zen. Kode horretan, Adimen Artifizialeko algoritmoen (AA) bidez datu masiboak erabiltzearekin lotutako politikak garatzeko jarduerak gidatuko dituen printzipio etikoen eta jardunbide egokien esparru bat ezartzearen garrantzia jorratzen da.

Nazioartean eta, are gutxiago, estatuan, ez dago gai honi buruzko kode etikoak onartu dituzten administrazioen adibide askorik. Horregatik, Gipuzkoako Foru Aldundia aitzindaria da berriro ere, eta abangoardian dago pertsonen eskubideen babes etikoari dagokionez.

Kode horrek, besteen estiloarekin bat etorritik, ikuspegi minimalista eta sintetikoa hartzen du, eta printzipio orientatzaile orokor gutxi batzuen aldeko apustua egiten du. Printzipio horiek jarduketa-arau batzuk edo jardunbide egokien gomendioak dakartzate berekin, printzipio horiek garatzeko. Horrela, 5 printzipio eta 20 jarduketa-arau ezartzen ditu, datuen eta adimen artifizialaren erabileraren eremuan ekintza zehatzak kokatzeko balio dutenak eta zentzu bikoitza dutenak: alde batetik, rol erraztailea hartzen dute giza ongizatea eta garapena sustatzeko Nazio Batuen Garapen Jasangarrirako Helburuen (GJH) horizontean. Bestalde, teknologia horiek eragin ditzaketen arriskuak eta abusuak mugatzen dituzte, hala nola *online* delituak edo zibergerra.

Nazioarteko adierazpen etiko nagusiekin eta aditu-taldeen proposamenekin bat etorritik, Kodeak 5 printzipio etiko ezartzen ditu, eta Gipuzkoako Foru Aldundiko eta haren sektore publikoko erakundeetako langileek bete beharko dituzte, datu masiboen eta Adimen Artifizialaren erabilerarekin lotutako politikak garatzean:

- **Kalteak minimizatzea:** hau da, ahal diren zuhurtasun guztiak hartzea kalteak gertatzeko arriskua saihesteko, adimen artifizialeko sistemak sartu aurretik. Kasu honetan, balizko kalteak ulertzen dira bai zibersegurtasunaren ikuspuntutik bai pertsonen edo kolektiboaren eragindako kalteen ikuspuntutik, eta arreta berezia jartzen da alborapenak saihesteko, bai datuen bilketan, bai horien erabileran eta adimen artifizialeko sistemen entrenamenduan.
- **Onurak maximizatzea:** guztion ongia eta Garapen Jasangarrirako Helburuak (GJH) lehenetsiz, onura potentzialek gainditu beharko dute pertsonentzat, ingurumenarentzat eta etorkizuneko belaunaldientzat izan daitekeen arriskua.
- **Autonomia:** bermatu beharko da, nolana ere, pertsonen askezia erabakitzearen ahalmena izango dutela, hau da, zer erabaki hartu behar dituzten eta AAKo sistemen esku zein utzi behar dituzten erabakitzearen. Printzipio horrek jasotzen du, halaber, pertsonak errespetatu eta babestu egin behar direla teknologia horiek haien baimenik gabe erabiltzean, bai eta datu pertsonalak babestu behar direla ere.
- **Justizia:** aintzatespenari eta baliabideak esleitzeko moduari egiten dio erreferentzia, eragileen eta balioen aniztasuna kontuan hartuta, ekitatea bermatuko duten metodologia inklusiboak eta parte-hartzaileak erabiliz.

¹ https://www.gipuzkoa.eus/documents/20933/6830633/datuak_eta_adimen_artifiziala_kode_etikoa-eu.pdf/78647ab7-d235-9b60-072e-ba557f2ebf28?t=1677148465929

- **Azalgarritasuna:** hau da, prozesu horien funtzionamendua ulertu ahal izatea eta erabaki-prozesua, inplikaturako pertsonak eta ondorioak identifikatu ahal izatea. Azken batean, kontuak benetan eman ahal izatea.

Kodean bertan ondo adierazten den bezala, azkenean printzipio guztiak elkarri lotuta daude, eta elkarren ondorio dira; izan ere, “adimen artifizialeko sistema batek ondorio onak izan ditzan, kalteak eragiteko aukera minimizatuta, gerta daitekeen ongia edo gaizkia ulertzeko gai izan behar dugu; sistema batek autonomia sustatu dezan eta ez murriztu, “nork erabakitzen duenaren inguruko erabakia” ondo informatuta hartu behar da, adimen artifizialak gure ordez nola jardungo lukeen jakinda; sistema bat bidezkoa izan dadin eta norbaitek emaitza negatiboak bere gain har ditzan, beharrezkoa da kontuak ematea (trazabilitatea) eta emaitza horiek zergatik gertatu diren ulertzea”.

5 printzipio horiek oinarri hartuta, 20 jarduketa-arau proposatzen dira, batzuk orokorrak (adibidez, datuaren gobernantza-esparru bat ezartzea edo Foru Aldundiaren eta haren sektore publikoaren algoritmoen erregistro publiko bat ezartzea) eta beste batzuk espezifikoagoak (adibidez, proposaturako xederako AAKo sistema bat erabiltzearen beharra eta egokitasuna justifikatzea edo arriskuak arintzeko eta konpentsatzeko plana ezartzea), teknologiaren garapenarekin eta gizarte-testuinguruaren aldaketekin batera eboluzionatu beharko dutenak. Baina, zalantzarik gabe, elementurik garrantzitsuenak, gure ikuspegitik, Eragin Etikoa Ebaluatzeko Ereduaren definizioa da. Eredu horrek publikoa izan beharko du, eta datuak adimen artifizialeko algoritmoen bidez erabiltzea eta berrerabiltzea da-

Datuak eta adimen artifiziala erabiltzeko

KODE ETIKOA



Gipuzkoako Foru Aldundiaren kode etikoa

karren edozein proiektuk kontuan hartu beharko duen aurretiazko analisia ezartzen du, Kodearen beraren giltzarria izanik.


Azkenik, balioesten den politika on oro bezala, Kodeak bere ebaluazio- eta jarraipen-mekanismoa ezartzen du, eta adierazten du, kasu honetan, Erakundearen Etika Batzordearekin batera Datuak Babesteko Ordezkaria eta Eraldaketa Digitaleko Foru Planaren ordezkari bat egongo direla, Kodean ezarritakoa betetzen dela sustatzeko, bultzatzeko eta jarraipena egiteko.

2023. urtearen amaieran, kodearen pilotajea egiten hasi da Gobernantza Departamentuaren lehen proiektu batean, eta horren emaitzak 2024an egiaztatu ahal izango ditugu. Era berean, 2024aren hasieran beste bi proiektuekin hastea espero da, bata Zainketa eta Gizarte Politiketako Departamentuarena eta bestea Adinberri Fundazioarena.

2024ko jardueren memorian, kodea pixkanaka ezartzen doan proiektu horien eta beste batzuen eragin etikoaren berri emango da.

b) Interes Taldeen Erregistroa abian jartzea

Irailaren 13ko 13/2022 Foru Dekretuaren bidez Gipuzkoako Foru Aldundiarekin eta haren sektore publikoarekin elkarreragiten duten interes taldeei aplikatu beharreko Jokabide Kodea onartu eta abenduaren 13an indarrean jarri ondoren, Erregistroa normaltasunez funtzionatzen hasi zen 2023ko hasieratik, eta, pixkanaka, hilabeteetan zehar interes talde ugari gehitu zaizkio foru erregistro horri (300 baino gehiago gaur egun).



Interes Taldeen Erregistroaren webgunearen ikuspegia


Erregistro hori abian jartzeak zalantza asko sortu zituen, bai foru administrazioko langileen artean, bai harekin elkarreragiten duten enpresa, eragile eta gainerako erakundeen artean. Eta ez da kontu hutsala; izan ere, besteak beste, erregistro horretan inskribatuta egoteko betebeharra ezartzen da erantzukizuneko karguak dituzten foru administrazioko langileekin bildu ahal izateko. Bestela esanda, bertan erregistratuta ez dagoen interes taldea ezin izango da bildu erantzukizuneko postua duten foru administrazioko langileekin. Segur-

tasunik ezaren egoera horren aurrean, kontzientziazio-lan handia egin behar izan zen bi sektoreetan, eta, ildo horretan, hainbat tailer egin ziren publiko objektiboan zein zen kontuan hartuta (erantzukizuna duten foru administrazioko langileak, agenda publikoen kudeatzaileak, eta abar). Horretarako, azalpen-material bat erabili zen modu grafiko eta errazean lurbultzeko Erregistroaren eta haren Kodearen zergatia eta bertan ezarritakoa betetzeko modua.



Tailerretan erabilitako materialaren ikuspegia

Alde batetik, Interes Taldeen Erregistroarako barne-protokolo bat egin zen. Dokumentu horren bidez, araudiak eragindako langileei lagundu nahi zitzaien, eta Agenda Publikoa eta Interes Taldeen Erregistroa beren eguneroko jardun profesionalean txertatzen lagundu nahi zitzaien. Protokolo horretan azaltzen zen zer ziren (eta zer ez) interes taldeak eta eragin-jarduera, eta adibide batzuk ematen ziren ulertzeko, baita Agenda Publikoaren eta Erregistroaren arteko erlazioa, Agenda Publikorako argitalpen-gomendioak eta inskripzioa egiaztatzeko prozesua ere. Azkenik, foru administrazioko intereseko erregistroen jarduera jasotzen duen urteko txostena nolakoa izango den azaltzen zen, baita Foru Dekretuan aurreikusitako ez-betetzeeen kasurako aurreikusten diren zehapenak ere.



4. ERANSKINA.

ERAGIN-JARDUEREN ADIBIDEAK, GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIKO SAIL BAKOITZAREN ARABERA

Departamentua	Egilea	Eragin-jarduerak da?
DIRUTZA NASURAREN ALORRA	1. Adibidea: Oito enpresaren alde lan egin duen elkarre bileren bilera bat eskatu du bere jardueren bereizketan duen diru-argaztaren ikuspegi bat eskatzea.	BAI
	2. Adibidea: Enpresa baten teknologia-burua bilera bat eskatu du zerbitzulari baten, bere enpresaren garrantziki tresna berrietan erabiltzeko.	BAI
	3. Adibidea: Una amiga (lan-taldea) en una empresa de obras públicas, invita a un Director de comunicación de la Operación Ford a un evento de celebración de los 20 años de la empresa.	EZ
GOBERNANTIA	1. Adibidea: Adibidea: Donostia profesionalen elkargo baten bileran gonaidatzaile bat eman du (lehenengo Foru-erakundearen Zuzendaritza).	EZ
	2. Adibidea: Aulegi juridiko baten bilera bat eskatu du foru orain baten artikulatu bat azteratzeko.	BAI
	3. Adibidea: Adibidea: Sindikatu baten bilera egin nahi du arauak bat aldatzeko.	BAI
INGURUMENA ETA OIBRA NEURTZAILEAK	1. Adibidea: Ingurumena Fundazio baten jarduerak bat antolatzea du. Martxoaren 15ean, antolatzailearen gobernuaren arabera, eskatu nahi du eskatzen duen ofiziala eta OFA bertan parte-hartaraz geroztik.	BAI
	2. Adibidea: Departamentuak bilera aldi-urrituetan baten, antolatzaile baten ingurumen ingurumen bat eskatzea.	BAI
	3. Adibidea: OFE baten bilera bat eskatu du Oibra Informatikoen Zuzendaritza baten, eskatu bati eragin-eragin-eragin-eragin bati erabiltzeko erabiltzeko.	EZ
ECONOMIA ERREPENTIA, TURISMOA ETA LANDE INDIKURUNA	1. Adibidea: Udalerri baten bilera bat eskatu du Foru Aldundia, lande-ingurumen turismo gaitasun diru-argaztaren ingurumen bat eskatzea.	EZ
	2. Adibidea: Erakundearen informazio baten lankidetzaren ingurumen erabiltzeko informazioaren bidez, bilerak aldi-urritan (lande-ingurumeneko Zuzendaritza) helderatu du kontutan lan baten.	BAI
	3. Adibidea: Enpresa baten komunikatzailearen lande-erakunde baten informazio publikoaren bidez, eskatu baten eskatzea du eta OFEko zuzendaritza bati eskatzea baten gaitasun du.	BAI

Bestalde, Interes Taldeen Erregistroako Gida bat ere sortu zen, oraingoan, Erregistroan izena eman nahi zuten taldeei zuzendua. Dokumentuan azaltzen da nork eman behar duen izena (horretarako, autodiagnostiko bat eta eragin-jardueren adibide praktikoak ematen zaizkie), zer informazio behar den hori egin ahal izateko, zer konpromiso hartzen diren eta, jakina, zer jokabide kode aplikatu behar zaien eta zer zehapen ezarri behar zaizkien ez-betetze kasuetan.



Interes Taldeen Erregistroaren gida 25

I. ERANSKINA

AUTODIAGNOSTIKOA: INTERES TALDEEN ERREGISTROAN INSKRIBATU BEHAR AL DUT NIRE ERAKUNDEA?

Galderei	Bai/ez	Erantzuna bial bada
Et du, topaketarik edo bilerarik agintariak, langur publikoak, pertsonak edo Diputazio Foru Ardurak sektore publikoko langileak?		Erregistroan inskribatuta egon behar du
Nire erakundeak agintari edo enpleatuek proposatzen dituzten edo parte hartzen dituzten erabakietan, politika publikoak edo beste konpromiso baten buruko kontribuzioa Diputazio Foru Sektore Publikoan?		Erregistroan inskribatuta egon behar du
Nire erakundeak edo nire enpleatuek horietatik gora, edukiak Foru Arduraren iburu-dendak martxan?		Ez du Erregistroan inskribatuta egon behar
Nire erakundeak edo nire enpleatuek edo (bitartean) edo (bitartean) agintariak, langur publikoak, pertsonak edo Foru Sektore Publikoan inskribatuta egon behar dituzten erabakietan, politika publikoak edo beste konpromiso baten buruko kontribuzioa Diputazio Foru Sektore Publikoan?		Ez du Erregistroan inskribatuta egon behar
Nire erakundeak prestatzen, arloetan edo agintari edo Diputazio Foru Sektore Publikoan onartu edo politikak publikoak buruko informazio-martxan edo eztabaidan edo parte hartzen dituzten erabakietan?		Ez du Erregistroan inskribatuta egon behar
Nire erakundeak edo nire parte hartzaileak (dugu erabiltzen dituzten erabakietan edo onaketa-batzenetan)?		Ez du Erregistroan inskribatuta egon behar
Nire erakundeak kategoriatan hartzeko biderak dituzte? 1. Arloko arloko profesionalak, taldeko kolektiboak eta pertsona bakarreko taldeak 2. Erregistro sektoreko edo erregistro sektoreko 3. Godeamuz taldeko erakundeak 4. Nazionalitate-baldia, herrialde-erakundeak edo erakunde erakundeak 5. Etatek eta enjoi-komunitateak erabiltzen dituzten erakundeak		Ez du Erregistroan inskribatuta egon behar
Nire erregistroaren ematen edo zerbitzu publikoak Foru Sektore Publikoan erabiltzen dituzten baten baten kontribuzio publiko bat erabiltzen duen?		Ez du Erregistroan inskribatuta egon behar

Gidaren irudiak

c) Ohiko galderen atala Erakundearen Zuzentasun Sistemaren webgunean

2022ko memorian jasotako gomendioetako bati jarraituz, kodeen ulermena errazteko eta a priori nahasgarriak izan daitezkeen zenbait manu argitzeko, 2023. urtearen amaieran ohiko galderen atal bat sartu zen Erakundearen Zuzentasun Sistemaren webgunean.

Batzordeak hasieratik ezarri zuen gai bakoitza banan-banan aztertu behar zela, eta zaila zela arauen esanahiari buruzko baieztapen absolutuak egitea, egoera bakoitzaren ingurua-barrek eta testuinguruak aukera eman zezaketelako manu bat zentzu batean edo bestean interpretatzeko; hala ere, esperientziak aukera eman digu kasu errazetarako interpretazio jarraibide batzuk ezartzeko.

Horregatik, zalantzaren aurrean aukerarik onena Erakundearen Etika Batzordeari galde-tzea dela gomendatzen badugu ere, atal honetan jaso dira egunerokoan gerta daitezkeen kasu edo egoera batzuk, bai eta kasu horietarako Erakundearen Zuzentasun Sistemaren eza-rritakoari buruzko interpretazio orokor bat ere. Errazago ulertzeko, adibide zehatzak eman dira, interpretazioa positiboa edo negatiboa izatea eragiten duten xehetasun edo aldagai batzuekin. Eta kasu bakoitzerako, benetako ebazpen batzuen erreferentzia aipatzen da, zeinak, planteatutako kasuekin duten antzekotasunagatik, emandako erantzunaren arrazoi-bidea ulertzeko lagungarri izan daitezkeen.

1. Ikastaro batean aditu bezala parte hartzeagatik dirua edo opari bat jaso dezaket? 

2. Nire familiakoa den enpresa batek foru Aldundiarekin edo haren sektore publikoko entitate betekin kontratatu dezake? 

Erantzuna

Bai, kontratu dezake, baina zuk ezin duzu kontratazio prozedura horretan parte hartu. Zure zerbitzuarekin kontratatu behar badu eta normalean kontratazio-prozeduraren faseren batean parte hartzen baduzu, kasu honetan abstenitu beharko zara edo delegatu beharko duzu hierarkikoki gorago dagoen batengan.

Adibideak

Ondo

Gobernanta departamentuko idazkaritza teknikoko AOT bat naiz. Lurralde orekako zerbitzuak Gipuzkoako mendiei buruzko bideoak egiteko ikus-entzunezko euskarriaren zerbitzuak emateko lizitazio bat atera du eta nire arrea aurkeztu nahi da. Zuk prozedura horren fase batean ere parte hartzen ez duzunez, ez dago arazorik.

Gaizki

Nire senarrak badu enpresa bat adinekoen egoitzetarako osasun-laguntzako zerbitzuak eskaintzen dituen, eta zerbitzu horiek emateko lehiaketa batera aurkeztu nahi du. Kontratazio-mahaiko kidea naiz. Ezin zara kontratazio-mahaiko kide izan, abstenitu egin behar duzu.

Erreferentziako ebazpenak

 [03/2016 \[PDF\]](#)

 [04/2016 \[PDF\]](#)

 [01/2017 \[PDF\]](#)

3. Jarduera profesional desberdinak uztar ditzaket? 

4. Nire zerbitzuarekin harremana izan ohi duen erakunde baten opari bat jaso dut. Onar dezaket? 

5. Prozedura baten tramitazio batean parte hartu dezaket eskatzailea nire ezaguna bada? 

6. Patronatu bateren kide izateko gonbidapena jaso dut, arazorik dago? 

7. Aurretik lan egin dudan enpresa batek kontratatu al dezake egun nire funtzio publikoak aurrera eramaten ditudan zerbitzuarekin? 

8. Jaso al dezaket konpentsaziorik beste administrazio batzuekin lankidetzan aritzeagatik? 

9. Gabonetako loteria-dezimo bat onartuko dut kortesiazko opari gisa? 

10. Foru Aldundiak hainbat zerbitzu ematea azpikontratatu du. Zer egin dezakegu behar bezala ematen direla bermatzeko? 

d) Foru gobernantza publikoaren esparruko Gobernu Onari buruzko martxoaren 11ko 4/2019 Foru Arauaren tarteko ebaluazioaren emaitzak

Foru gobernantza publikoaren esparruko Gobernu Onari buruzko martxoaren 11ko 4/2019 Foru Araua onartu zen administrazioaren errealitatea Gipuzkoako gizartearen beharretara eta itxaropenetara egokitzeko eta birbideratzeko helburuarekin, gobernantza onaren printzipioei buruzko hausnarketa sakon baten emaitza gisa. Printzipio horiek Europako Gobernantzaren Liburu Zurian (2001) aipatzen dira, eta herritarrek erakundeetan eta sistema politikoan duten konfiantzaren sortzailatzat jotzen dira.

Foru araua gobernu onaren kontzeptua definitzen saiatzen da, foru administrazioak lurraldean bultzatu nahi duen gobernantza publiko berriaren testuinguruan kokatuta, eta, horretarako, funtsezko 3 zutabe ezartzen ditu, eta horietako lehena erakundearen zuzentasuna da.

Foru arauak berak 60. artikuluan ezartzen du nahitaezkoa dela arauaren ebaluazio bat egitea indarrean sartu eta 5 urtera (hau da, 2024an), baina 2022an tarteko ebaluazio prozesu bat egitea erabaki zen (emaitzak 2023an ezagutu ziren).

Foru araua egiteko ereduari jarraituz (adituekin kontrastatzeko prozesua), ebaluazioa egiterakoan pentsatu zen antzeko prozesu batek aberastuko zituela lor zitezkeen ondorioak. Horregatik, berriz ere erabaki zen kontraste-prozesu bat egitea arauan araututako eremu bakoitzeko adituekin, dagokion espezialitatearen berariazko balorazioa egin ahal izateko, baina baita multzoaren balorazioa ere. Era berean, ebaluaziorako beste informazio-iturri batzuk ere kontuan hartu ziren, hala nola adierazle kuantitatiboen taula bat; foru administrazioiko barne-langileen pertzepzioaren neurketa bat *focus group* metodologiari jarraituz; gizartearen pertzepzioaren neurketak, Gipuzkoako Soziometroan islatutakoak, edo Gobernu Onaren hainbat eremuren azterketa konparatu bat.

Elementu horiekin guztiekin, ebaluazio prozesu bat diseinatu zen, honako fase hauek zituena:

1. Ebaluaziorako adierazle-taularen alde zurreko azterketa eta definizioa.
2. Adierazle kuantitatiboen neurketa.
3. Barne-pertzepzioaren adierazleen neurketa, foru administrazioiko langileekin egindako *focus groups* bidez.
4. Adituen taldearen ebaluazio parte-hartzailea.
5. Gobernu onari buruzko azterlanen azterketa konparatua.
6. Hobekuntza-proposamenen identifikazioa eta azterketa.
7. Ekintza-planaren definizioa.

Hori guztia aztertuta, hainbat ondorio orokor eta espezifikoa ateratu ziren foru arauaren arlo edo bloke bakoitzeko. Jarraian, labur-labur azalduko ditugu Zuzentasun Sistemaren blokerako ondorioak.

Arauan ezarritako ezarpen- eta garapen-maila aztertu ahal izateko, beharrezkoa zen Zuzentasun Sistemak ebaluazioaren unean zuen egoera ezagutzea. Zentzu horretan, tes-tinguruan jartzen zen Erakundearen Zuzentasuna foru arauaren zutabeetako bat bezala ezartzen dela. Garrantzitsua da, bai lehenengo blokea delako, bai gobernu onaren funtsezko alderdia eta oinarritzko balioa delako eta herritarrek erakundearen duten konfiantza berreskuratze bidea delako.

Aztertutako adierazlearen arabera, Erakundearen Zuzentasun Sistema erakundearen ezartzen jarraitzen da. Hori Erakundearen Etika Batzordearen etengabeko jardueraren ondorio da, nahiz eta jorratutako gaiak gutxitzen joan ziren azken urteetan (gogora dezagun ebaluazioa 2022an egin zela eta 2023an joera aldatu egin zela), baita bere web-orriaren egindako bisiten kopurua ere.

Langileek duten ezagutza-mailari dagokionez, ebidentzia argi bat dago: zenbat eta goragoak izan betetako karguak edo postuak, orduan eta ezagutza handiagoa dago; hala, kargu publikoen ehunekoa da handiena (10etik 7,28) eta administrari lanpostuena, berriz, txikiena (10etik 2.89). Halaber, foru Aldundiko langileek ezagutza handiagoa dute sektore publikoko erakundeetako langileek baino.

Erakundearen maila etikoaren pertzepzioari dagokionez, kargu publikoak dira balorazio onena egiten dutenak, eta sektore publikoko erakundearen balorazioa foru Aldundiko arduradunek egindakoa baino altuagoa da.

Abiapuntua hori izanik, aditu-taldeak oso positiboki baloratu zuen Erakundearen Zuzentasun Sistemaren garapen-maila, gure inguruko aurreratuena zela aitortuz. Oso positibotzat jotzen zen kargu publikoek haraindiko eremuak jorratzea, erantzukizun partekatua zentzua sustatzeko funtsezko egitate gisa.

Hala ere, badago zer hobetu. Alde batetik, adierazi zen egokia zela alerta-mekanismo bat ezartzea, arriskuak garaiz detektatu eta saihestu ahal izateko. Hori lehenetsuzkotzat jotzen da zenbait eremutan, hala nola interes-gatazken kudeaketan, eta aprobetxatu egin behar dira prozesuen digitalizazioa eta aplikazioek eskaintzen dituzten aukerak, Erakundearen Zuzentasun Sistemaren adierazitako alderdi batzuk betetzen direla egiaztatze azterketa sistematizatze bidez.

Hobetu beharreko beste arlo bat komunikazioa da; izan ere, adierazlearen emaitzek erakusten dutenez, Erakundearen Zuzentasun Sistema ez da guztiz ezaguna eta ez da berdin ezagutzen erantzukizun-maila guztietan. Horregatik, egokia dirudi komunikazio-estrategia bat lantzea, gaiaren irismena eta garrantzia ulertu ahal izateko eta, gainera, nola jokatu behar den jakiteko. Gainera, Erakundearen Zuzentasun Sistemaren ezarritakoa aplikatzen zaien pertsona edo erakundeetan ez ezik, herritarrengan ere jarri behar da arreta, ez bakarrik onartu diren estandar etikoak zein diren jakin ahal izateko, baita estandar horien betetzearen jarraipena egin eta erakundearen buruzko pertzepzioa osatu edo aldatu ahal izateko ere. Horretarako, hainbat metodologia, kanal eta material erabili beharko dira, gizartearen sektore desberdinetara iritsi ahal izateko, eta garrantzitsua da kontakizun simple baina holistikoa bat erabiltzea, etika publikoarekin konprometitutako administrazio bat izateak dituen eraginak eta ondorio onak herritarrei helarazteko.

Bestalde, landutako gaien bitartez, komunikazioan edo sentsibilizazioan eragin handiagoa izan behar duten eremuak identifika daitezke. Gai horiek guztiek, eta aztertu beharreko beste batzuek, komunikazioa hobetzen lagunduko dute, eta, beraz, Erakundearen Zuzen-

tasun Sistemari konfiantza ematen, tresna baliagarritzat hartuz, eta ez publizitate hutseko ariketa gisa.

Komunikazioa eta sentsibilizazioa prebentzioan laguntzen duten tresnak dira, eta, alde horretatik, garrantzi handiagoa eman beharko litzateke. Ildo horretan, Zuzentasun Sistemaren diagnostikoak eta hobekuntzak landu daitezke prebentzio-helburu batekin, arrisku-mapak, klima etikoari buruzko aldizkako inkestak, autoebaluazio-gidak edo antzekoak eginez. Gainera, adierazten da pizgarrietan oinarritutako ikuspegiak, hala nola zuzentasuna aktiboki sustatzen duten pertsonak saritzeak, arau eta jokabide etiko zorrotzagoak ezartzea bultzatzea dezaketela, eta neurri horiek eraginkorragoak dira ez-betetzeagatiko zehapenak jartzea baino.

Bestalde, eta prebentzioaren ikuspegitik ere, datuen eta adimen artifizialaren eremua txertratzeak ikuspegi hori ekintzen plangintzan eta garapenean kontuan hartzera behartzen du, eta, beraz, egokitzat jotzen da, zuzentasunari buruzko neurriak indartze aldera, datuen eta berrikuntzako etikaren zentro bat sortzea, foru administrazioari gomendioak eta aholkularitza eskaintzeko.

Halaber, euskarri desberdinen bidez eskaintzen den informazioaren kalitatearen garrantziaz ohartarazten da, herritarrentzat benetan garrantzitsua eta interesgarria dena komunikatzen dela bermatzeko. Eta, ildo horretan, garrantzitsua da Zuzentasun Sistema bat garatzearen helburuak zein diren jakitea, horiei buruzko adierazleak ezarri eta horien lorpena ebaluatu ahal izateko.

Erakundearen Etika Batzordearen figurari dagokionez, ezinbestekotzat jotzen da jarrera proaktiboa izateko eta erakundearen ohiko jardueran integratzeko behar dituen baliabiak ematea.

Salatzaileak babesteari dagokionez, modu positiboan baloratzen da anonimotasuna bermatzen duen kanal bat izatea; hala ere, ez da ikusten babesteko neurri espliziturik hartu denik.

Gainera, ezin dira alde batera utzi Europar Batasunaren Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Planeko funtsetatik eratorritako eskakizunak; plan horrek, besteak beste, iruzurraren aurkako neurrien plan bat hartzera behartzen baitu. Erakundearen Zuzentasun Sistemaren garapen-maila dela eta, litekeena da eskatutako baldintza asko jada betetzea, baina, nolana ere, betetzen direla egiaztatu beharko litzateke. Gainera, interesgarria litzateke, aipatutako funtsetatik harago, Erakundearen Zuzentasun Sistemaren xede-eremu osora zabaltzea irismena.

Azkenik, nahiz eta gai honek garapen handia izan duen, egia da ez-betetze kasuetarako hartu den diziplina-araubidea oso lasaia dela, ia ez baitago halakorik. Horregatik, egokia litzateke jokabide kodeei indarra emango dien zehapen-araubide bat ezartzeko aukera aztertzea.

Ebaluazioaren ondorioak kontuan hartuta eta lehentasunak ezarri ondoren, Ekintza Plan bat egin zen, gobernu onaren eremu bakoitza hobetzeko hartu beharreko neurriak eta foru arauaren testuaren etorkizuneko berrikuspen batean sartu beharreko aldaketak jasotzen dituen.

Hauek dira erakundearen zuzentasunaren eremurako adostutako ekintzak:

- Alerta-sistema automatizatu bat ezartzea, Erakundearen Zuzentasun Sistemari ezarritakoaren aurkako jardunbideak detektatzeko.
- Kontratzioko eta dirulaguntzetako aplikazioetan prozesua blokeatzeko aukera ematen duten funtzionaltasunak sartzeko, baldin eta Erakundearen Zuzentasun Sistemari ezarritakoa ulertzea eta onartzea bermatzen ez bada.
- Gobernu Onaren komunikazio-estrategia bat ezartzea, zenbait hedabidetan berriak aldizka argitaratzea barne hartzen duena.
- Prebentzio-tresnak lantzeko eta eguneratzeko aldizkakotasuna ezartzea (arriskuaren mapa, inkestak, gidak, material elkarreragileak, ohiko galderak, etab.).
- Erakundearen Zuzentasun Sistemari jokabide etikoa sustatzeko neurri pizgarriak sartzeko.
- Datuei eta berrikuntzako etikari buruzko aholkularitza-zentro bat sortzeko aukera aztertzea.
- Sistemari buruzko eduki errazak garatzea, pertsonen trebakuntzan erabiltzeko.
- Sistemari konfiantza ematen lagunduko duten estrategiak aztertzea, bai langileentzat, bai herritarrentzat, zuzentasunetik abiatuta irekitasunera eta parte hartzera bideratutako ekimenak garatuko dituzten mekanismoen bidez.
- Gobernu Onari eta Erakundearen Zuzentasunari buruzko gaiak sartzeko Gipuzkoako Soziometroan, herritarren pertzepzioa neurtzeko.
- Erakundearen Zuzentasun Sistema ezartzeko helburu zehatzak eta jarraipen-adierazleak ezartzea.
- Webguneko bisita kopuruaren helburua ezartzea.
- Jorrotutako gaiak eta jasotako salaketak aztertzea, patroia posibleak detektatzeko.
- Salatzailak babesteko neurri zehatzak hartzea.
- Erakundearen Zuzentasun Sistema Iruzuraren aurkako Planaren eskakizunetara egokitzea eta haren irismena zabaltzea.
- Zehapen-araubide zorrotzagoa ezartzeko aukera aztertzea.

e) Aldaketak Erakundearen Etika Batzordearen osieran


2023an, Erakundearen Etika Batzordeak bere osaera aldatu zuen bi unetan.

Lehenik eta behin, kanpoko kideen artean zegoen hutsunea zela eta, haietako baten erre-tiroa dela eta, Diputatuen Kontseiluak 2023ko otsailaren 28ko bileran erabaki zuen, Juan Ignacio Ugartemendia Eceizabarrena izendatzea kide izateko.

Bigarrenik, 2023ko maiatzaren 28an egindako Gipuzkoako Batzar Nagusietarako hautes-kundeen ondorioz, Gipuzkoako Foru Aldundiaren osaera aldatu zen. Eta, beste alde batetik, Batzordearen antolaketa, funtzionamendua eta prozedura arautzen dituen Foru Dekretuak ezarri zuen lehendakari eta bokal izango zirela, hurrenez hurren, erakundearen zuzenta-suneko eskumenak bereganatuta dituzten diputatua eta zuzendaria.

Hori horrela, Batzordeko lehendakari eta bokal berri izan ziren Iruñe Berasaluze Lazkano, Gobernantzako diputatua, eta Mikel Pagola Tolosa, Gobernu Oneko eta Berrikuntza Politi-ko-Sozialeko zuzendaria.

Lerro hauen bidez, eskerrak eman nahi dizkiegu aurreko lehendakariari, Eider Mendoza Larrañagari, eta bokalari, Goizeder Manotas Ruedari, Batzordean egindako lanagatik.



Erakundearen Etika Batzordearen egungo osaera. Ezkerretik eskuinera:
Iruñe Berasaluze, Juana Goizueta, Juan Ignacio Ugartemendia, Belén Altuna eta Mikel Pagola

f) 57/2023 Foru Dekretua, abenduaren 19koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko foru sektore publikoko Erakundearen Etika Batzordearen antolaketa, prozedura eta funtzio-namendua arautzen dituen maiatzaren 3ko 10/2022 Foru Dekretua aldatzen duena

Erakundearen Etika Batzordea 3/2016 Foru Dekretuaren² bidez sortu zen (dagoeneko indargabetuta dago), eta onetsitako jokabide kodeetan araututako balioak, printzipioak eta arauak betetzen direla bultzatzeko, sustatzeko, zaintzeko eta bermatzeko eginkizunak esleitu zitzaizkion. Dekretu hori aldatu egin zen, eta, ondoren, beste arau batzuek indargabetu egin zuten, arauz eta sozialki eskatzen den errealitatera egokitzeko. Gaur egun, duela gutxi 57/2023 Foru Dekretuak azken aldaketak sartu ditu, arau-hausteei eta ustelkeriaren aurkako borrokari buruzko informazioa ematen duten pertsonen babesa arautzen duen otsailaren 20ko 2/2023 Legearen eskakizunetara egokitzeko, eta, horrela, Erakundearen Etika Batzordeak Aginduan araututako salaketa anonimoen barne-kanal gisa funtziona dezan ahalbidetzeko.

Esan bezala, 57/2023 Foru Dekretuak sartzen dituen aldaketa nagusiak 2/2023 Legearen eskakizunen ondorio dira, eta honela laburbil daitezke:

- Batzordearen helburuak aldatzen ditu, foru sektore publikoan arau-hausteei buruz informatzeko eta salatzaileak babesteko barne-sistema gisa funtziona dezan, 2/2023 Legean aurreikusitako baldintzetan.
- Aplikazio-eremua zabaltzen du foru sektore publikoko entitate eta erakundeetan gertatutako eta arau-hauste penal edo administratibo astun edo oso astun izan daitezkeen edo Europar Batasuneko Zuzenbidearen arau-hausteak izan daitezkeen egiteei edo ez-egiteei buruz jasotako salaketak edo informazioak ere barne hartzeko, baldin eta otsailaren 20ko 2/2023 Legean ezarritako baldintzak betetzen badituzte.
- Foru sektore publikoko entitate eta erakundeetan gertatutako egite edo ez-egiteengatik izandako salaketei erantzuteko eginkizuna gehitzen du, baldin eta arau-hauste penal edo administratibo astun edo oso astun izan badaitezke, edo Europar Batasuneko Zuzenbidearen arau-hausteak izan badaitezke, betiere 2/2023 Legean ezarritako baldintzak betetzen badituzte.
- Erakundearen zuzentasun arloan eskumena duen foru Aldundiko zuzendari nagusiak betetzen duen bokal karguari esleitzen dio Batzordearen esku jarritako gaien izapidetzea bultzatzea eta horren jarraipen berezia egitea, bai eta informazioko barne-sistemaren erantzukizuna ere, Sistema kudeatzeko eta espedienteak izapidetzeko ahalmena izanik.
- Informazioa kudeatzeko prozedurari dagokionez, salaketen kasuan, 2/2023 Legean ezarritakoaren ondorioetarako, adierazten da barne-kanal gisa jardungo duela, eragotzi gabe eskatzaileak kanpoko kanaletara jotzea.
- Informazioko barne-sisteman dauden datu pertsonaletarako sarbidea, bere esku-menen eta eginkizunen esparruan, honako hauetara mugatzen da:

² Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 47 zk., 2016ko martxoaren 10ekoa. Urtarrilaren 16ko 3/2018 Foru Dekretuak aldatua, Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 17. zk., 2018ko urtarrilaren 24koa, eta duela gutxi 57/2023 Foru Dekretuak aldatua.

a) Sistemaren arduraduna eta hura zuzenean kudeatzen duena.

b) Giza baliabideen arduraduna edo behar bezala izendatutako organo eskuduna, langile baten aurka diziplina-neurriak har daitezkeenean soilik.

c) Erakundearen edo organismoaren zerbitzu juridikoen arduraduna, komunikazioan azaldutako egitateei buruzko legezko neurriak hartu beharko balira.

d) Inoiz izendatzen diren tratamenduaren arduradunak.

e) Datuak babesteko ordezkaria.

- Gaiak izapidetu, ebatzi eta jakinarazteari dagokionez, ahozko salaketen kasuan, nahitaez ohartarazi behar da komunikazioa grabatu ahal izango dela, eta datu pertsonalen tratamenduari buruzko informazioa emango da Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduan ezarritakoaren arabera.
- Jasotako salaketak erregistratzeko eta ebazteko baldintza berriak ezartzen dira, eta, bestek beste, informazioa datu-base seguru batean jasota egoteko betebeharrak ezartzen da, Batzordeko kideek soilik izango dutena sarbidea, eta salaketak egiteko kanpoko kanalei buruzko informazioa emateko betebeharrak.
- Epe hauek ezartzen ditu:
 - 7 egun natural, gehienez, salaketa jaso izana adierazteko.
 - 10 egun baliodun, salaketa onartzeko edo ez onartzeko erabakia hartzeko, ez onartzeko arrazoiak adierazita:
 1. – Azaldutako egitateek egiantzik ez dutenean.
 2. – Azaldutako egitateak otsailaren 20ko 2/2023 Legearen aplikazio eremuan jasotako ordenamendu juridikoaren arau-haustek ez direnean.
 3. – Komunikazioak argi eta garbi oinarririk ez duenean edo, Batzordearen iritziz, delitu baten bidez lortu izanaren arrazoizko zantzuak daudenean. Azken kasu horretan, ez onartzeaz gain, delitutzat jotzen diren egitateen deskribapen xehatua bidaliko zaio Fiskaltzari.
 4. – Komunikazioak arau-hausteei buruzko informazio berri eta esanguratsurik ez duenean, prozedurak amaituak dituen aurreko komunikazio batekin alderatuta, non eta ez diren gertatzen bestelako jarraipen bat egitea justifikatzen duten izatezko edo zuzenbidezko inguruabar berriak.
 - 15 egun baliodun, gaiak ebazteko. Salaketen kasuan, eta horien konplexutasuna kontuan hartuta, gehienez ere 3 hilabeteko epera arte luzatu ahal izango da, arrazoituta, jakinarazpena jasotzen denetik zenbatzen hasita, edo, jaso izanaren agiririk bidali ez bazaio informatzaileari, 3 hilabetera arte, jakinarazpena egin eta zazpi eguneko epea amaitzen denetik zenbatzen hasita; salbu eta epea luzatzea eskatzen duten konplexutasun bereziko kasuetan izan ezik;

kasu horretan, epea beste hiru hilabetez luzatu ahal izango baita gehienez ere.

- Informazioko barne-sistema den aldetik, Batzordeak ikusten badu arau-hauste administratiboa gertatu dela, informazioko barne-sistemaren arduradunak idatzi bat helaraziko dio organo eskudunari, ikerketaren ondorioak azaltzeko eta, hala badagokio, hautemandako arau-hausteak zuzentzeko eta dagozkion erantzukizunak argitzeko beharrezkoak diren jarduketak has ditzan eskatzeko.
- Barne-kanalaren erabilerari buruzko informazio egokia argi eta erraz eskuratzeko moduan emateko betebeharra ezartzen da, bai eta kudeaketa-prozeduraren funtsezko printzipioei eta argitaratu beharreko gutxieneko informazioari buruzkoa ere: kudeaketa-prozedurak, konfidentzialtasun-araubidea, informazioko kanpo-kanaletarako harremanetarako datuak eta Informatzailea Babesteko Agintaritza Independentearen harremanetarako datuak.

3. Sentsibilizazioa, zabalkundea eta kanpo proiektzioa

a) Sentsibilizazio- eta zabalkunde-jardunaldia

a. Gobernu onaren krisiei aurre egiteko gakoak. *Gunea* aretoa, martxoak 01

2023ko martxoaren 1ean, Foru Aldundiaren *Gunea* Aretoan topaketa bat egin zen, gobernu onak bizi duen krisi globalari buruz eta horri aurre egiteko gakoei buruz eztabaidatzeko. Gako horietako bat etika publikoa eta erakundearen zuzentasuna dira.

Hasierako elkarrizketan (1) **Eva Silván** (Gai Publikoetan eta Erakunde Harremanetan aditua den politologoa) eta (2) **Mariola Urrea** (Errioxako Unibertsitateko Nazioarteko Zuzenbideko eta Europar Batasuneko irakaslea) izan ziren, eta **Juanjo Álvarez** (Nazioarteko Zuzenbide Pribatuko katedraduna) moderatzaile lanetan aritu zen. Sortutako eztabaidan ondorengo gai honen inguruan hausnartu eta eztabaidatu zen: duela pare bat hamarkadaz geroztik mendebaldeko gizarteetan sistemaren legitimazio krisi bat garatzen joan da, eta milioika pertsonak bizi eta barneratzen dute. Krisi hori desafekzio gisa adierazten da, konfiantza galtze gisa, ordezkarien eta ordezkatuaren arteko lotura haustea ekar dezakeena. Horrekin lotuta, eta konfiantza hori berreskuratzeko, gardentasuna eta zuzentasuna bezalako kontrapisuen garrantziaz hitz egin zen.

Ekitaldian 30 pertsona inguruk hartu zuten parte.

b) Kongresu, jardunaldi eta ikastaroetan parte hartzea

a. Sistemas de Integridad. Pinto, urtarrilak 30

Azken urteotan gertatu den bezala, gure lurraldetik kanpoko erakundeek eta administrazioek interesa agertu dute gure Erakundearen Zuzentasun Sistemaren eta haren aplikagarritasunaren inguruan, eta foru Aldundiari dei egiten zaio bere esperientzia konstatzeko.

Kasu honetan, Pintoko Udalak, tokiko gobernu irekiaren arloko prestakuntza-ibilbidearen esparruan, zuzentasunaren gaia jorratu zuen gobernu onaren politika gisa. Foru Aldundiak honako puntu hauek jorratu zituen: Zuzentasun Sistema baten esanahia, hari hel diezaioketen arauak, Next Funtsen eragina eta ustelkeriaren aurrean dauden prebentzio-tresnak.

b. Integridad frente a la desafección. *Online*, otsailak 28

Oraingo honetan, Espainiako Udalerrien eta Probintzien Federazioak, Gardentasunaren eta Herritarren Partaidetzaren aldeko Toki Erakundearen Sarearen bitartez, “Desafíos y Respuestas para una Gobernanza Participativa” *online* mintegian parte hartzera gonbidatu zuen foru Aldundia.

Kasu horretan, foru Aldundiaren esku-hartzearen izenburua “La Integridad frente a la desafección” izan zen, eta azaldu nahi izan zituen benetako zuzentasun sistema baten sinesgarritasun elementuak zeintzuk diren eta foru Aldundiak sistema hori ezartzeko izandako esperientzia.

c. Las democracias occidentales en la encrucijada. Donostia, uztailek 20

Euskal Herriko Unibertsitatearen Udako Ikastaroen esparruan, +*Democracia* herritarren ekimenak (erakundeetan, alderdi politikoetan, komunikabideetan eta iritzi publikoan eragina izan nahi duen herritarren antolaketa politikoa, sarean lan egiten duena demokraziaren kalitatea hobetzeko eta herritarren parte-hartze politikoa areagotzeko) espazio bat antolatu zuen demokraziaren erronken inguruan eztabaidatzeko, helburutzat hartuta mendebaldeko demokrazia liberalek ziurgabetasuna nagusi den gaur egungo testuinguruan dituzten erronka berriak eta zaharrak identifikatzea, eta mendebaldeko demokrazien barruan XXI. mendeko erronkei aurre egiteko mekanismo berriak identifikatzea.

Foru Aldundiak mahai-inguru batean parte hartu zuen gai horretako aditu handiekin batera, hala nola Cristina Monge (+*Democraciako* presidentea), Manuel Villoria (Zientzia Politikoko katedraduna), Raúl Olivan (Aragoiko Gobernuko Gizarte Berrikuntzako zuzendaria) edo Safira Cantos (Hay Derecho Fundazioko zuzendaria), besteak beste. Bertan, herritarren konfiantzarik ezari, horren arrazoiei eta konfiantza hori berreskuratzen lagun dezaketen elementuei buruz eztabaidatu zen. Foru Aldundiak abian jarritako hainbat ekimen azaldu zituen, hala nola Erakundearen Zuzentasun Sistema, Gobernu Onari buruzko 4/2019 Foru Araua edo Etorkizuna Eraikiz ekimena.

d. Zuzentasun Sistemen garrantzia tokiko gobernuetan. *Online*, urriak 17

EUDELek, Euskadiko Udal Elkarteak, 2023ko maiatzeko udal-hauteskunderen ondoren eratutako udal-gobernuetako talde berriak zirela eta, ordezkari berrientzako prestakuntza ibilbide bat antolatu zuen, hainbat web-mintegien bidez gauzatu zena.

Oraingo honetan, foru Aldundiaren lankidetzak eskatu zuen, zuzentasun sistemen garrantziaren inguruan sentsibilizatzeko. Hasteko, zuzentasun kontzeptuari eta prebentzio-sistemen garrantziari buruzko hausnarketa egin zen, jarraian, benetako sistema batek izan behar dituen elementuak adierazi ziren eta, amaitzeko, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta bere sektore publikoaren Erakundearen Zuzentasun Sistemaren deskribapena eta esperientzia azaldu ziren.

e. Gobernu Ona, Zuzentasun Sistemak eta salaketen kanala. Eibar, azaroak 23

Eibarko Udalak II. *Jardunaldia: komunikazioa eta gardentasuna administrazio publikoetan* izeneko ekitaldia antolatu zuen Coliseo Antzokian. Ekitaldiaren helburua zen administrazio publikoek komunikazioaren eta gardentasunaren arloan egiten duten lana ikusaraztea eta ezagutaraztea, eta era guztietako erakunde publikoentzat gai horiei buruzko hobekuntza-irtenbideak ematea. Komunikazio digitalarekin, krisi-komunikazioarekin, marka-irudiarekin, web-irisgarritasunarekin, analitika digitalarekin, gobernu onarekin, gardentasun aktibo eta pasiboarekin eta salaketa-kanalekin lotutako gaiei balioa emateko balio izan zuen. Ekitaldia sektore publikoko komunikazioko profesionaleri eta administrazio publikoetako langileei zuzenduta egon zen, oro har, bai eta komunikazio instituzionaleko eta marketineko adituei eta irakasleei, komunikazioko, kazetaritzako eta antzeko graduertako ikasleei, eta gaian interesa duten komunikabideei ere.

Oraingo honetan, foru Aldundiaren esku-hartzeak honako hauek izan zituen ardatz: Gobernu Onaren ikusmoldea foru Administrazioarentzat, prebentzio-sistemen garrantzia eta erakundearentzat dituen onurak, Zuzentasun Sistemak osatzen dituzten elementuak eta salaketa-kanalen funtzionamendua eta ezaugarriak.

II. JARDUNALDIA: KOMUNIKAZIOA ETA GARDENTASUNA ADMINISTRAZIO PUBLIKOETAN

II JORNADA DE COMUNICACIÓN Y TRANSPARENCIA EN LAS ADMINISTRACIONES PÚBLICAS



Berretarako izen-emateak
inscripciones para asistir presencialmente
www.eibar.eus
2023ko urtarraren 26tik azaroaren 16ra
Del 26 de octubre al 16 de noviembre de 2023



Streaming bidez Eibariko Udaleren
YouTube kanalean
Siguiólyta streaming en el canal de YouTube del
Ayuntamiento de Eibar

Data: 2023ko azaroak 23
Tokai: Eibariko Coliseo Antzokia
Ordua: 09:00 - 13:45

Fecha: 23 de noviembre de 2023
Lugar: Teatro Coliseo de Eibar
Hora: 09:00 - 13:45



ÓSCAR CORTÉS ABAD

Komunikazio digitaleko koordinatzailea Madrilgo Udaleren eta irakaslea Juan Carlos Erregia Unibertsitatean
Coordinador de comunicación Digital en el Ayuntamiento de Madrid y profesor en la Universidad Rey Juan Carlos

Pandemia osteko komunikazioa: krisi-egoeraren planifikatzailea eta kudeaketa
Comunicación post-pandémica: planificación y gestión en situaciones de crisis

CAS - 09:15



MALEN ILLARRAMENDI BEITIA & JONE AMONARRIZ ZUBELDIA

Berezaren kudeaketa eta marka-estrategia (AZK)
Gestión de clientes y estrategia de marca (AZK)

Marka-irudiaren sorrera, eguneraketa eta kokapena administrazio publikoetan
Creación, actualización y posicionamiento de la imagen de marca en las administraciones públicas

EUS - 09:45



ARANTXA HERNÁNDEZ LÓPEZ

UX Lead Kudeaketa Akademikoko Zerbiztu Digitaletan eta UDOeko (Unibertsitat) (Obarta de Catalunya) Heziketako irakaslea
UX Lead en Servicios Digitales de Gestión Académica y Docente del Área de Tecnología de la UOC (Universitat Oberta de Catalunya)

Web-orri eta aplikazio instituzionalen sorrera: iragarriratsuna herritar guztiarentzat
Construcción de páginas web y apps institucionales: accesibilidad para toda la ciudadanía

CAS - 10:15



IÑAKI GOROSTIZA ESQUERDEIRO

Data Analytics-eko bazkide eta zuzendaria UNSSen
Socioy director de Data Analytics en UNSS

Nurtzea, aztertea eta erabakiak hartzea online sektore publikoko datuetan oinarrituta
Medición, análisis y toma de decisiones en base a datos en el sector público online

CAS - 11:15



GOIZEDER MANOTAS RUEDA & HARITZ UGARTE AIZPURU

Gobernantza Saileko aholkularia Gipuzkoako Foru Aldundian
Asesorador del Departamento de Gobernanza de la Diputación Foral de Gipuzkoa

Berrikuntza eta Eraldaketako zerbitzuak Gipuzkoako Foru Aldundian
Unidad de Servicio de Innovación y Transformación en la Diputación Foral de Gipuzkoa

Gobernu onia, zuzentzaun sistema eta salaketan kanala Gipuzkoako Foru Aldundian
Buen gobierno, sistema de corrección y canal de denuncias en la Diputación Foral de Gipuzkoa

EUS - 11:45



KOLDOBIKE URIARTE RUIZ DE EGUINO

Esateko Jauritzeko Berrikuntza Publiko proiektuan arduraduna eta Informazio Publikoaren Serbidariko Eskalei Batzarduko kidea
Responsable de proyectos de Innovación Pública en el Gobierno Vasco y Vocal de la Comisión Vasca de Acceso a la Información Pública

Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea: eskaerak zapidetzetik kudeaketarako talde kualifikatuek finkatzen dira
El derecho de acceso a la información pública: desde la tramitación de solicitudes hasta la consolidación de equipos cualificados para su gestión. Principales retos

El derecho de acceso a la información pública: desde la tramitación de solicitudes hasta la consolidación de equipos cualificados para su gestión. Principales retos

CAS - 12:15

13:00 - 13:30

MAHAI-INGURUA
Hitzaldien emakusiak eta
Inbentarioa

MESA REDONDA
Análisis y reflexiones de las
conferencias

Parte hartzaileak: jardunaldiak hitzaldi. Aurkezleak: egungo de
Participación presencial del día de la Jornada. Habla y presentación

13:30

ONDORROAK ETA AMAIERA
CONCLUSIONES Y CIERRE

13:45 - 11:15 13:45 - 13:00
LANTZARTEA LANTZARTEA



#EibarKomunika



Jardunaldien kartela

c) Online prestakuntza “Gobernantza irekia eta lankidetzazkoa”

2023ko azaroaren 27tik 2024ko maiatzaren 16ra bitartean, Gobernantza Irekia eta Lankidetzazkoa online prestakuntzaren seigarren edizioa egingo da, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Globernance – Gobernantza Demokratikoaren Institutuak eta UNED-Bergarak antolatuta. Ikasleek Erakundearen Zuzentasun Sistema sakon ezagutzeko aukera izango dute, baita gobernantza onarekin lotutako beste gai batzuk ere.

Edizio honetan, guztira 31 ikasle daude. Horietatik 11 foru sektore publikoko edo lurraldeko udaletako langileak dira, eta gainerakoak berrikuntza estrategiko eta sozialarekin, eraldaketarekin, komunikazioarekin edo marketinarekin lotutako aholkularitzetatik eta hirugarren sektoreko erakundeetatik datoz, edo EUDEleko edo mankomunitateetako langileak dira. Agerian geratzen da prestakuntza horren bidez, bertako langileen artean ez ezik, gizartearekiko oro har ere egiten den sentsibilizazio-lana.

4. Jasotako gaiak

Gipuzkoako Foru Aldundiko eta bere sektore publikoko Erakundearen Etika Batzordeak jarraitu du Erakundearen Zuzentasun Sistema eta orain arte onartutako kodeak betetzeari buruzko gaiak eta salaketak artatzen eta ebatzen; hain zuzen ere goi-kargudunei, enplegu publikoari, kontratazioari, dirulaguntzei eta laguntzei, interes taldeei eta datuen eta adimen artifizialaren erabilerari aplikatzekoak direnak. Hona hemen jorratutako gaien bilakaera, 2016. urtearen erdialdean bere ibilbidea hasi zuenetik:

- **2016: 6 KP (6)**
- **2017: 4 KP + 2 EP (6)**
- **2018: 5 KP + 3 EP + 1 KK (9)**
- **2019: 5 KP + 4 EP + 2 KK + 1 DL + 1 EZS (13)**
- **2020: 1 KP + 3 EP (4)**
- **2021: 7 EP + 1 KP (8)**
- **2022: 1 KP + 1 EP + 1 KK + 1 EZS (4)**
- **2023: 1 KP + 6 EP + 2 EZS (9)**

KP: Kargu Publikoen jokabide kodearekin lotutako ebazpenak.

EP: Enplegu Publikoaren jokabide kodearekin lotutako ebazpenak.

KK: Kontratazioaren jokabide kodearekin lotutako ebazpenak.

DL: Dirulaguntzen eta Laguntzen jokabide kodearekin lotutako ebazpenak.

IT: Interes taldeen jokabide kodearekin lotutako ebazpenak.

DAA: Datuak eta Adimen Artifiziala erabiltzeko kode etikoarekin lotutako ebazpenak.

EZS: Erakundearen Zuzentasun Sistemaren inguruko kontsulta orokorreari buruzko ebazpenak.

a) Laburpena

Gaiak	Kop.	Ebazpena	Kop.
EZS kontsultak eta salaketak	2	Ez du urratzen	2
EP kontsultak eta salaketak	6	Ez du urratzen, gomendioak	5
KP kontsultak eta salaketak	1	Urratu egiten du, gomendioak	2
Guztira 2023	9	Guztira 2023	9

Ohikoa denez, Erakundearen Zuzentasun Sistema osatzen duten jokabide kodeetan ezarritakoa aztertzeaz eta interpretatzeaz gain, araudi desberdinak ere aztertu behar izan dira, ikuspuntu juridikotik ikuskera orokor bat lortu eta ebazpenik egokiena eman ahal izateko. 2023an, honako hauek aztertu behar izan dira:

- [19/1993 Dekretua](#), otsailaren 2koa, zerbitzuen ondoriozko kalteordainei buruzkoa.
- [11/2016 Legea](#), uztailaren 8koa, Bizitzaren amaierako prozesuan pertsonen eskubideak eta duintasuna ziurtatzeari buruzkoa.

Ondorengo taulan laburbiltzen dira gaiak, aztertutako aginduak eta emandako ebazpena.

01/2023 (EZS)	01/2023, IZPE SAKO Enpresa Batzordeak egindako kontsulta bati buruzko ebazpena. Kontsulta ESKERTU produktibitate-osagarria emateko prozedura Erakundearen Zuzentasun Sistemara egokitzeari buruzkoa
JKKP	<ul style="list-style-type: none"> • Bikaintasun profesionala [5.b] art.] • Kudeaketa hobetzea [8.1 art.] • Efizientzia [2.6 art.] • Erantzukizun profesionala [3.5.d) art.] • Zuzentasuna [1.b) art.] • Gardentasuna [3.1.d) eta e) art.]
JKKP	<ul style="list-style-type: none"> • Etikaren eta kudeaketaren bikaintasunerako pizgarriak [6.1.2 art.] • Zuzentasuna [3.2.d) art.]
Aztertutako beste arauak	-
Ebazpena	Ez du urratzen. Gardentasuneko gomendioak.
02/2023 (EZS)	02/2023, ESKERTU prozeduraren inguruan modu anonimoan aurkeztutako lexa bati buruzko ebazpena
JKKP	<ul style="list-style-type: none"> • Bikaintasun profesionala [5.b) art.] • Kudeaketa hobetzea [8.1 art.] • Efizientzia [2.6 art.] • Erantzukizun profesionala [3.5.d) art.] • Zuzentasuna [1.b) art.] • Gardentasuna [3.1.d) eta e) art.]
JKKP	<ul style="list-style-type: none"> • Etikaren eta kudeaketaren bikaintasunerako pizgarriak [6.1.2 art.] • Zuzentasuna [3.2.d) art.]
Aztertutako beste arauak	-
Ebazpena	Ez du urratzen. Prozedura berrikusteko gomendioa.

03/2023 (EP)	03/2023, ohiko etxebizitza eraikitzeko proiektua e giteko aukeraren inguruko kontsulta bati buruzko ebazpena
JKEP	<ul style="list-style-type: none"> • Zintzotasuna eta eskuzabaltasuna [3.a] art.]
Aztertutako beste arauak	-
Ebazpena	Ez du urratzen.
04/2023 (EP)	04/2023, kontratatutako enpresa baten erantzun ezaren inguruko kexa bati buruzko ebazpena
JKEP	<ul style="list-style-type: none"> • Errespetua [7.d] • Gardentasuna [3.1.c] • Erantzukizun profesionala [3.5.b) eta c)]
JKK	<ul style="list-style-type: none"> • Kontratuaren kudeaketari buruzko informazioa (12. art.)
Aztertutako beste arauak	-
Ebazpena	Ez du urratzen. Kontratazioko gomendioak
05/2023 (KP)	05/2023, otordu- eta ordezkaritza-gastuak ordaintzeari buruzko ebazpena
JKKP	<ul style="list-style-type: none"> • Efizientzia [3.7.a) eta b) art.] • Eredugarritasuna [3.3.k) art.]
Aztertutako beste arauak	<ul style="list-style-type: none"> • 16/1993 Dekretua³: otordu-gastuak (15. art.) eta ordezkaritza-gastuak (4. xedapen gehigarria)
Ebazpena	Ez du urratzen. Efizientziako eta ordezkaritza gomendioak.
06/2023 (EP)	06/2023 ⁶ , emandako zerbitzuaren eta jasotako tratua inguruko kexa bati buruzko ebazpena
JKEP	<ul style="list-style-type: none"> • Errespetua [7.d) eta e) art.] • Erantzukizun profesionala [3.5.b) eta c) art.]
Aztertutako beste arauak	-
Ebazpena	Ez du urratzen. Kontratazioko gomendioak

07/2023 (EP)	07/2023, zentzoko mediku titularraren aldetik egoiliar batek jasotako tratuaren inguruko kexa bati buruzko ebazpena
JKEP	<ul style="list-style-type: none"> • Errespetua [7.d) eta e) art.] • Erantzukizun profesionala [3.5.b) art.]
Aztertutako beste arauak	<ul style="list-style-type: none"> • 11/2016 Legea⁴: zainketa aringarriak, sedazioa, komunikazioa [4.c) eta m) art.; 12. art.; 5. art.]
Ebazpena	Urratu egiten du. Protokoloa berrikusteko eta kontratazioko gomendioak.
08/2023 (EP)	08/2023, basozainen plaza egonkortzeko prozesuaren esparruan OP2022/309c espedientearen getatutako balizko irregularitasunen inguruko salaketa bati buruzko ebazpena
JKEP	<ul style="list-style-type: none"> • Inpartzialtasuna eta objektibotasuna [4.d eta e) art.]
Aztertutako beste arauak	-
Ebazpena	Ez du urratzen.
09/2023 (EP)	09/2023, bere espedientearen egoerari buruzko informazio eskaeraren inguruko administrazio-isiltasunagatik eta gehiegizko burokraziagatik aurkeztutako kexa bati buruzko ebazpena
JKEP	<ul style="list-style-type: none"> • Erantzukizun profesionala [3.5.b) eta c) art.] • Errespetua [7.d) art.] • Gardentasuna [3.c), d) eta f) art.] • Kudeaketaren eta berrikuntzaren kultura [2.3.b), c) eta e) art.]
Aztertutako beste arauak	-
Ebazpena	Urratu egiten du. Gardentasuneko eta kudeaketako gomendioak.

3 19/1993 Dekretua, otsailaren 2koa, zerbitzuen ondoriozko kalteordainei buruzkoa.

4 11/2016 Legea, uztailearen 8koa, bizitzaren amaierako prozesuan pertsonen eskubideak eta duintasuna ziurtatzeari buruzkoa.

Gaia: 01/2023

EBAZPENA, IZFE SA-KO ENPRESA BATZORDEAK EGINDAKO KONTSULTA BATI BURUZKOA, EMANKORTASUN-OSAGARRIA (ESKERTU) EMATEKO PROZEDURA ERAKUNDEAREN ZUZENTASUN SISTEMARA EGOKITZEAREN INGURUAN

I.- KONTSULTA

1.- 2023ko otsailaren 8an, IZFE, Informatika Zerbitzuen Foru Sozietateko Enpresa Batzordeak egindako kontsulta bat jaso zen. Kontsulta langileen aparteko jarduera bat saritzera bideratutako ordainsari-osagarri gisa Eskertu prozedurari buruzkoa da. Adierazi denez, hau jaso ahal izateko, langilea bere arduradunak proposatuko du, eta txosten bat egingo du, hautagaitza justifikatzen duten ebidentziak zehaztuz.

Adierazten da 2022an emandako 11 Eskertusetatik 3 Zuzendaritza Batzordeko kideei egokitu zaizkiela, eta prozeduraren ebaluazio-txostenak argitaratu ez direnez, prozedura ez dela behar bezain gardena.

2.- Alde horretatik, Eskertuak esleitzeko jarraitzen den prozedurak Erakundearen Zuzentasun Sistemak aurreikusten dituen jardunbide egokiak errespetatzen dituen eta, nolana ere, prozeduran sortutako informazio guztia argitaratu beharko litzatekeen galdetu nahi da, Erakundearen Zuzentasun Sistemaren ezarritako balioak sustatze aldera.

II.- APLIKATU BEHARREKO ARAUAK

1.- Diputatuen Kontseiluaren 2016ko martxoaren 1eko Erabakiaren bidez onetsi zen Gipuzkoako Foru Aldundiko eta haren sektore publikoko Erakundearen Zuzentasun Sistema (aurrerantzean, EZS), zeinaren bidez etika publikoa eta eredugarritasuna ezaugarri gisa finkatu nahi baitira.

Sistema horren esparruan, zenbait jokabide kode onartu ziren: Diputatuen Kontseiluaren 2016ko martxoaren 1eko erabakiaren bidez, Gipuzkoako Foru Aldundiko eta haren sektore publikoko kargu publikoen zein langile baliokideen Jokabide eta Jardunbide Egokien kodea (KPJK); Diputatuen Kontseiluaren 2017ko irailaren 5eko erabakiaren bidez, kontratazio publikoari aplikatu beharreko Jokabide kodea eta zuzentasun instituzionaleko esparrua (KJK); Diputatuen Kontseiluaren 2017ko azaroaren 7ko erabakiaren bidez, Gipuzkoako foru Enplegu publikoaren Etikaren eta Kudeaketa Onaren Kodea (EPJK); Diputatuen Kontseiluaren 2018ko urriaren 2ko erabakiaren bidez, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta haren sektore publikoaren laguntzei eta diru laguntzei aplikatu beharreko Jokabide kodea eta zuzentasun instituzionaleko esparrua (DLJK); 13/2022 Foru Dekretuaren bidez, 2022ko irailaren 13koak, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta haren sektore publikoarekin elkarrengaitzen duten Interes Taldeei aplikatu beharreko Jokabide Kodea (ITJK); eta Diputatuen Kontseiluaren 2023ko urtarrilaren 10ko erabakiaren bidez Datuak eta Adimen Artifiziala erabiltzeko kode etikoa (DAAK) .

2.- Bai EZSk bai jokabide kodeek hau ezartzen dute: Erakundearen Etika Batzordea (EEB) izango dela berme handieneko organoa eta hura aplikatzeko gaien berri izango duena. Ba-

⁵ Gai guztiak hemen kontsulta daitezke: <https://www.gipuzkoa.eus/eu/aldundia/zuzentasun/etika-batzordea>

tzorde horren antolaketa, prozedura eta funtzionamendua maiatzaren 3ko 10/2022 Foru Dekretuan arautzen dira, eta Batzordearen ardura izango da Erakundearen Zuzentasun Sistema garatzeko tresnetan ezarritako balioak, printzipioak eta jokabide arauak ez bete-tzeari buruz jasotako keak eta salaketak izapidetzea eta ebatzea.

III. ERAKUNDEAREN ETIKA BATZORDEAREN BALORAZIOA

1- Gai honetan *praxi* txar bat egon daitekeela salatzen da prozedura baten barruan, zeina-ren azken erabakia IZFEren Zuzendariak (Informatika Zerbitzuen Foru Sozietatea) hartzen baitu. Gaiak izapidetzeari, ebatzeari eta jakinarazteari buruzko maiatzaren 3ko 10/2022 Foru Dekretuaren 9. artikuluan ezarritako prozedurari jarraituz, otsailaren 10ean dagokion informazioa helarazi zitzaion IZFEko zuzendariari, informazioa emateko eta bidezko kon-siderazioak adierazteko eta argudiatzeko eskubidea bermatzeko, eta, aldi berean, EEBk gaia ebatzi ahal izateko beharrezkotzat jo zituen galdera batzuk egiteko. Ildo horretatik, IZFEko zuzendariak idatzi bat bidali zuen 2023ko otsailaren 20an, bere oharpenekin.

2.- IZFEko Enpresa Batzordearen (aurrerantzean, Batzordea) aldetik jasotako kontsultak, lehenik eta behin, IZFEren ordainsari-politika jasotzen duen Eskertu izeneko prozedura deskribatzen du, langileen ezohiko jarduera saritzera bideratua. Horretarako, dokumentu bat erantsi da, osagarri horren xedea eta hura lortzeko jarraitu beharreko prozedura zehaz-ten dituenak. Urteko osagarri hori lortzeko, langilea bere arduradunak proposatzen du, ebaluatzaile lanak egiten dituenak, txosten bat egiten duenak eta hautagaitza justifikatzen duten ebidentziak eranstean dituenak. Hautagaitza hori, era berean, arloko arduradunak baliozkotuko du, eta, azkenik, Zuzendariak ebatziko du osagarri ekonomiko hori esleitzea bidezkoa den ala ez.

Batzordeak adierazi du esleipen-prozedura opakutasunez egiten dela, ez baitira argitara-tzen ez txostenak ez horien emaitzak, ezta horien edukia anonimizatuz ere, eta adierazi du Batzordeak jasotzen duen informazio bakarra dela zenbat eta nori eman zaizkion.

Datu gisa ematen da 2022an 11 Eskertu eman direla 160 langile ingururako, eta horietako 3 Zuzendaritza Batzordeko 3 zuzendariri eman zaizkiela, eta adierazten da aurreko ba-tzuetan Zuzendaritzako kideei ere esleitu zaizkiela. Hori esanda, zalantzan jartzen da kasu honetan ez ote diren figura bakar batean bateratzen osagarriaren ebaluatzaile-gainbegira-tzaile-esleitzaille gaitasunak.

Bestalde, adierazi da uko egin zaiola osagarri hori behin baino gehiagotan emateari, argu-diatuz, lanbide-jardunaz gain (ebidentziekin justifikatuta egon behar dute), “beste jokabide batzuk” ere baloratu direla, baina Zuzendariak ez dituela transmititu eta ez duela horien ebidentziarik erantsi, eta arbitrariotasun-sentsazioa sortu dela.

Adierazitakoa kontuan hartuta, Batzordeak bi gai planteatzen ditu: alde batetik, jar-duteko modu horrek Erakunderen Zuzentasun Sistemak (EzS) aurreikusten dituen jardunbide egokiak errespetatzen dituen; eta, bestetik, sektore publikoko enpresekiko konfiantza sendotzeko eta kultura etikoa eta gardentasuneko zabaltzeko, ebaluatzaileen proposamen-txostenak argitaratu beharko liratekeen (behar bezala anonimizatuta), bai eta Zuzendariaren balorazioaren emaitza ere, erabili diren irizpideen emaitza eta ebidentziak jasoko dituen txosten batekin.

3.- Bestalde, IZFERen Zuzendariak bidalitako dokumentazioan, osagarria esleitzeko prozedura aipatzeaz gain, une oro gardentasunaren, legezketasunaren eta oinarritzko eskubideen errespetuaren eta datu pertsonalen babesaren printzipioa jarraitu dela ziurtatzen da.

Adierazi du ebaluatzen diren adierazleak Batzordeak ezagutzen dituela, 2016ko irailaren 20ko akordioaren bidez eman baitzuten adostasuna adierazleekin. Bertan adierazten denez, errendimendua sustatzeko sistema horrek izaera pertsonalarekin sarituko du langileak bere lan profesionalan egiten duen ezohiko jarduera edo ekimena. Sistema horrek honako adierazle hauek hartzen ditu kontuan: (1) jardunaren urteko ebaluazioaren emaitza, (2) erakundearen urteko helburuak lortzeko konpromiso berezia, (3) jarrera eta jarrera pertsonal berezia eta (4) helburuen beste adierazle batzuk. Langileen ordezkariekin adostu ondoren, IZFERen Administrazio Kontseiluari proposatu zitzaion, eta hark adostasuna eman zuen 2016ko azaroaren 8ko bilkuran. Datu erantsi gisa, adierazten da Komiteak IZFERen aurka jarritako demanda judizial baten esparruan, epaiak frogatutzat jotzen duela, besteak beste, Komiteari aldez aurretik jakinaraztea Eskertuei buruzko gaiak.

Esaten da pizgarrien sistemaren prozedurak ez duela aurreikusten ebaluatutako pertsonaren hautagai-proposamenak argitaratzea, ezta ikuskatzailearen ebazpenak argitaratzea ere. Ebazpenak anonimoki argitaratzeko aukerari dagokionez, ez da bideragarria, izan ere, ebazpen horietan zehazten da profesional hautagaiek egin duten jarduera zehatza, eta, beraz, erraz identifika daitezke, eta ezingo litzateke anonimotasuna bermatu. Nolanahi ere, adierazten da osagarria onartu zenetik Batzordeari esleitu zaizkion langileen zerrenda erakutsi zaiola, eta 2021etik aurrera, betiere inplikaturako pertsonaren baimena lortzen bada, informazio osoa eskuratzeko aukera dagoela. Gai hori behin baino gehiagotan adierazi da.

Azken urteetan pizgarria jaso duten pertsonen dagokienez, zuzendariak nabarmendu du 2015eko hauteskunde sindikalen ondoriozko 9 pertsonetatik 5ek gutxienez jaso zutela Eskertu bat; 2019ko hauteskunde sindikalen ondoriozko 9 pertsonetatik 7k gutxienez bat jaso zutela; eta gaur egun batzordea osatzen duten 5 pertsonetatik 4k gutxienez bat jaso dutela. Adierazi du, halaber, gaur egun Zuzendaritza Batzordean dauden 7 pertsonetatik 3k jaso dutela bat, eta horietako bat ere ez dela zuzendaria bera.

4.- Bi alderdien gogoetetatik eta aurkeztutako dokumentaziotik ondorioztatzen den bezala, Eskertu kontzeptua pertsona batek bere lanpostuan duen errendimendu berezia, ezohiko jarduera eta interesa saritzera bideratuta dago, eta pizgarri ekonomiko honen bidez Eskertu nahi zaio.

Hori guztia guztiz lerrokatuta dago Gipuzkoako foru Enplegu publikoaren Etikaren eta Kudeaketa Onaren Kodea (EPJK) **bikaintasun profesionala** balioari buruz ezarritakoarekin. Izan ere, horrek adierazten du foru-langile publikoek etengabe garatu eta hobetuko dituztela beren lanbide-konpetentziak, lanbide-profila optimizatzeke eta beren lanpostuari esleitutako eginkizunak eta zereginak behar bezala betetzeko, betiere erakundearen errendimendua eta emaitzak hobetzen laguntzeko helburuarekin, erakunde-konpromisoarekin, beren zerbitzuen erabiltzaileen mesedetan (**5.b artikulua**). Eta **kudeaketa hobetzearen** esparruan, lanpostuei dagokienez, ebaluazio-prozesuetako lankidetzak ere aipatzen da (**8.1**).

Ildo beretik doa **eraginkortasunaren** balioa (**2.6**) dio “[eraginkortasuna] berrikuntzako edo hobekuntza jarraituko prozesuen bidez sustatuko dela, eta politika publikoen ebaluazioa, baita langile publikoen lanaren ebaluaketa ere, oinarritzko zutabe dituenak (...)”.

Gipuzkoako Foru Aldundiko eta haren sektore publikoko kargu publikoen zein langile baliokideen Jokabide eta Jardunbide Egokien kodea (KPJK) ere haratago doa, berariaz aipatzen baitu bikaintasun profesionalerako pizgarriak direla, sustapen-, prebentzio- eta berme-neurri gisa:

6.1.2 Bikaintasun eta kudeaketa etikorako pizgarriak

a) **Etika eta kudeaketa bikaintasunagatiko sariak ezarri ahal izango ditu** foru administrazioak, bai dagozkion zuzendaritza unitateetan, bai Foru Aldundiari atxikitako sektore publikoan.

b) Foru Aldundiaren Erabaki bidez, kasuan kasu, sari horiek arautzen dituzten oinarriak onartuko dira, baita sari horien bidez pertsona ala unitate bakoitzari ematen zaizkion ordain edo aitortpenak ere.

c) Bikaintasun etikorako sariak bereziki azpimarratuko dute jokabide jarraitu bat gainditu izana edota jarduketa jakin baten bidez, Kode honetan araututako Jokabide Arauen gutxienezko estandarrak gainditu izana.

(...)

Beraz, IZFE n ezarritako pizgarri-sistema hori guztiz bat dator EZSn ezarritako helburuekin, eta, beraz, prozedura egokia da helburuak lortzeko eta erakundearen emaitzak hobetzeko.

Bestalde, aurkeztutako dokumentazioaren arabera, baimena emateko prozedura argia da; izan ere, bai hari buruzko informazio publikoan, bai eskaera gisa erabiltzen den txantiloian agertzen den prozeduran adierazten da kontuan hartuko dela eta adierazi beharko dela hautagaiak urtean zehar emandako balio erantsia, baita errendimendu berezia, ohiz kanpoko jarduera eta lanpostua erauzi duen interesa edo ekimena agerian uzten dituzten emaitza eta ondorio kontrastagarri eta bereizgarriak ere. Alderdi horiek jaso behar dira proposamenean, hautagaitzaren egokitasuna ebaluatu ahal izateko adierazle gisa.

Ildo horretan, EPJKk adierazleen gaia ere jorratzen du, kudeaketa profesionala ebaluatu ahal izateko mekanismo gisa. Horrela adierazten da **3.5.d)** artikuluan, **ardura profesionalaren** printzipioari dagokionez:

3.5 Ardura profesionala

(...)

d) **Jarduera profesionalaren eguneroko kudeaketan, foru langile publikoek agintaldi bakoitzaren Plan Estrategikoan sartutako helburuen bidez lan egingo dute, baita kudeaketaren emaitzak ebaluatu ahal izateko ezarritako adierazleak betez ere.**

Ebaluazio guztietan bezala, adierazleak kuantitatiboak edo kualitatiboak izan daitezke, edo bien konbinazioa izan daiteke. Bistan denez, pertzepzio kualitatiboaren adierazleak aurreikusten diren guztietan, diskrezionalitate-tarte bat dago, eta tarte hori ez da nahitaez arbitrariotasuntzat hartu behar, baizik eta ulertu daiteke ere erabakirik egokiena, zuhurtziaz gauzaturakoa, hartzeko jarduteko askatasun-marjina gisa. Erabaki arbitrario bat, ordea, oinarri arrazionalik gabeko erabakia izango litzateke. Eta, jakina, ebaluazio hertsiki kuantitatiboa edo objektiboa ez denez, beti gerta liteke emaitza negatiboa izatea, eskatuta-

ko baldintzak bete ez direla delako, baina horrek ez du automatikoki zertan esan nahi erabakia arbitrarioa izan denik.

Esan bezala, aztergai dugun gaian ezartzen da zein diren kontuan hartu beharreko adierazleak, eta, gainera, hori frogatzen duten ebidentziak aurkeztea eskatzen da. Bestalde, esleipena pertsona batek (zuzendariak) ebatzi arren, prozeduran gehienez 3 pertsonak hartzen dute parte: proposamena balioesten eta egiten duenak (pertsonaren zuzeneko arduradunak); proposamenaren egokitasuna baliozkotzen duenak (arloko arduradunak) eta azkenean ebazten duenak (zuzendariak, dagozkion eginkizunak betetz), zeinak, gainera, informazio gehigarria eskatzeko aukera duen, baita proposatutako hautagaia elkarrizketatzeko ere. Erantzukizun desberdinak dituzten pertsonen katea izanik prozeduran inplikaturik daudenak, ez dirudi aukera handirik dagoenik arbitrajea modu negatiboan egiteko.

Gainera, ez da ahaztu behar EZSk adierazten duela funtzio publikoak betetzean hartzen diren erabakiak justifikatu behar direla beti, hain zuzen ere jardunaren zuzentasuna babesteko. Hala jasotzen da bai KPJKan (3.2.d) artikulua) bai EPJKan (1.b) **Zuzentasun** balioari dagokionez:

KPJK - **Zuzentasuna**

(...)

d) Beren funtzioak erabat betetzen dituztela bermatzeko, **foru kargu publikoek beren erabaki eta ebazpenak justifikatuko dituzte, baita beren proposamen eta lehentasun politikak** eta prozesu horiek bermatzen dituzten elementu objektiboetan eta txosten tekniko aditueta ere.

(...)

EPJK - **Zuzentasuna**

(...)

b) Euren funtzioak osotasunez burutzen dituztela bermatzeko, **foru langile publikoek euren ebazpen proposamenak edo euren txosten edo jarduerak dagozkion datu tekniko bidez justifikatuko dituzte.**

(...)

Prozeduraren gardentasunari dagokionez, gogoratu behar dugu Erakundearen Zuzentasun Sisteman eta haren kode gehienetan jasotako printzipioetako bat dela, agian gehiago herritarren ikuspegitik, baina barne-prozesuetarako ere balio duela. Hori kontuan hartuta, EPJK honela dio (**Gardentasuna 3.1**):

(...)

d) Foru langile publikoek modu eraginkorrean garatuko dute **gardentasunaren kultura erakundearen eta administrazio prozeduretan**, euren jarduera profesionala garatuz aintzat hartuta **izapidetzen dituzten espedienteak informazio publikoaren eskariaren helburu izan daitezkeela** eta herritarrek aztertu ditzaketela.

e) Gardentasunak ez dakar, inolaz ere, foru langile publikoak bere jarduera profesionala dela eta ezagutzen duen informazioa erreserbatzeko betebeharra aktibo ez mantentzea, ezta hura erabiltzea bere onura pertsonalerako edo hirugarrenen onurarako, ezta horrela ezartzen den gaitan konfidentzialtasuna urratzea ere.

(...)

Ezin bestela izan, erabakien gardentasunaren alde egiten da, bai herritarrei eragiten dieten erabakien alde, bai barneko erabakien alde. Beraz, ukaezina da gardentasun hori bermatzeko behar diren neurriak hartu behar direla, eta gai honen gaia berme horiek betetzen diren ebaztea da.

Ez da hutsala datu pertsonalen babesari buruzko aipamena, askotan kontrapisuaren pamera betetzen baitu gardentasunari dagokionez. Horregatik, ez dira alde batera utzi behar testuinguru horretatik erator daitezkeen eskakizunak, baina EEB honek ez ditu horiek aztertu behar.

Galdetu behar da, ordea, IZFEren Zuzendaritzak gardentasunaren berme-jarrera hartu duen edo, aitzitik, Batzordearentzat interesgarria izan daitekeen informazioa ezkutatzea erabaki den, nahiz eta, lehen esan bezala, prozedurak ez duen argitaratzeko beharrik ematen.

Zuzendariak azaldutakoa ikusita, informazio konfidentziala babesteko interesdunaren baimena behar izateak zuhurtzia adierazten du aurkako interesen babesa haztatzeko orduan, eta, nolana ere, banakako ebaluazioei buruzko informazioa eskuragarri jartzen du (onespenaren baldintzapean). Nahitaezkoa ez den arren, informazioa eskatzen duen edozein langilerentzat dago eskuragarri (ez Batzordearentzat bakarrik), eta, beraz, ez dirudi ezkutatzeo asmorik dagoenik, informazio pertsonala babesteko baizik.

Pizgarri hori Zuzendaritza Batzordeari atxikitako pertsona batzuk lortu izatearen inguruan, ez da bereziki nabarmentzen horien kopurua beste atal batzuetakoak direnerekiko (langileen ordezkariak barne) beraz, normaltasunaren barruan sartzen dela ulertzen da.

Hori guztia dela eta, Erakundearen Etika Batzordeak erabaki hau hartu du, aho batez, 2023ko otsailaren 23an

EBAZPENA

Lehenengoa. - Gipuzkoako foru Enplegu publikoaren Etikaren eta Kudeaketa Onaren Kodeak jasotzen dituen Bikaintasun profesionalaren, Kudeaketaren hobekuntzaren, Eraginkortasunaren, Ardura profesionalaren, Zuzentasunaren eta Gardentasunaren balioak ezarritakoaren, eta Gipuzkoako Foru Aldundiko eta haren sektore publikoko kargu publikoen zein langile baliokideen Jokabide eta Jardunbide Egokien kodeak bikaintasun etikorako eta kudeaketarako pizgarriei dagokienez eta Zuzentasun balioari buruz jasotzen duenaren arabera, uste dugu Eskertuak emateko ezarritako prozedurak ez duela urratzen Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta haren sektore publikoaren Erakundearen Zuzentasun Sisteman ezarritakoa.

Bigarrena. - Esleipen-prozesuaren gardentasun-bermerik handienak ezartze aldera, prozeduran sortutako dokumentazioaren publikitateari eta irisgarritasunari dagokienez ahal diren neurri guztiak hartzea gomendatzen dugu, betiere datu pertsonalen babesari buruz, edo dagokion besteren bati buruz, indarrean dagoen legeriak ezartzen dituen eskakizunak betez eta babestuz.

Gaia: 02/2023

(...)K ESKERTU PROZEDURARI BURUZ EGINDAKO JARDUERARI BURUZ MODU ANONIMOAN AURKEZTUTAKO KEXA BATI BURUZKO EBAZPENA

I.- KONTSULTA

1. 2023ko maiatzaren 18an, (...)ren aurka aurkeztutako kexa anonimo bat jaso zen, erakundearen zuzendaritza-lanetan ustez zabarkeriaz jokatzeari.

Aurkeztutako idazkiaren arabera, IZFEko langile bat da, eta Eskertu izeneko prozeduraren inguruko gertakariak kontatzen ditu. Prozedura horrek ordainsari berezi batekin saritzen ditu urtean aparteko lana egin duten langileak. Aurten, arduradunak jakinarazi zion Eskertu bat jasotzeko proposatuko zuela 2022an egindako lanagatik. Hala ere, egun batzuk geroago jakinarazi zion (...)k uko egin ziola bere hautagaitzari, enpresarekiko errespetu faltak zirela eta, eta langileak enpresa-batzordeak deitutako kontzentrazioetan egiten zituen irteerei buruz ari zela.

Interesdunak adierazi du ez duela uste langile gisa dituen eskubideak defendatzea enpresari errespetua galtzea denik, eta horregatik zigortzea ere legez kanpokoia izan daitekeela. Enpresa-batzordearekin harremanetan jarri eta txostenak eskatu ondoren, (...)ren dei bat jaso duela adierazi du. Bertan jakinarazten zaio bere txostenak ez direla existitzen, ez delako proposatua izan. Interesdunak esan du bere arduradunak adierazi ziola txostenik idatzi ez zuela aurten hautagaiak ahozkoak izan zirelako.

2. Bere iritziz (...)k etika eta profesionaltasun faltarekin jarduten duenez, (...) kargutik kentzeko eta gaitasungabetzeko eskatzen du.

II.- APLIKATU BEHARREKO ARAUAK

1.- Diputatuen Kontseiluaren 2016ko martxoaren 1eko Erabakiaren bidez onetsi zen Gipuzkoako Foru Aldundiko eta haren sektore publikoko Erakundearen Zuzentasun Sistema (aurrerantzean, EZS), zeinaren bidez etika publikoa eta eredugarritasuna ezaugarri gisa finkatu nahi baitira.

Sistema horren esparruan, zenbait jokabide kode onartu ziren: Diputatuen Kontseiluaren 2016ko martxoaren 1eko erabakiaren bidez, Gipuzkoako Foru Aldundiko eta haren sektore publikoko kargu publikoen zein langile baliokideen Jokabide eta Jardunbide Egokien kodea (KPJK); Diputatuen Kontseiluaren 2017ko irailaren 5eko erabakiaren bidez, kontratazio publikoari aplikatu beharreko Jokabide kodea eta zuzentasun instituzionaleko esparrua (KJK); Diputatuen Kontseiluaren 2017ko azaroaren 7ko erabakiaren bidez, Gipuzkoako foru Enplegu publikoaren Etikaren eta Kudeaketa Onaren Kodea (EPJK); Diputatuen Kontseiluaren 2018ko urriaren 2ko erabakiaren bidez, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta haren sektore

publikoaren laguntzei eta diru laguntzei aplikatu beharreko Jokabide kodea eta zuzentasun instituzionaleko esparrua (DLJK); 13/2022 Foru Dekretuaren bidez, 2022ko irailaren 13koak, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta haren sektore publikoarekin elkarreragiten duten Interes Taldeei aplikatu beharreko Jokabide Kodea (ITJK); eta Diputatuen Kontseiluaren 2023ko urtarrilaren 10ko erabakiaren bidez Datuak eta Adimen Artifiziala erabiltzeko kode etikoa (DAAK) .

2.- Bai EZSk bai jokabide kodeek hau ezartzen dute: Erakundearen Etika Batzordea (EEB) izango dela berme handieneko organoa eta hura aplikatzeko gaien berri izango duena. Batzorde horren antolaketa, prozedura eta funtzionamendua maiatzaren 3ko 10/2022 Foru Dekretuan arautzen dira, eta Batzordearen ardura izango da Erakundearen Zuzentasun Sistema garatzeko tresnetan ezarritako balioak, printzipioak eta jokabide arauak ez bete-tezari buruz jasotako kexak eta salaketak izapidetzea eta ebatzea.

III. ERAKUNDEAREN ETIKA BATZORDEAREN BALORAZIOA

1- Gai honetan salatzen da (...)k zabarkeriaz joka dezakeela Eskertu prozedurari dagokionez. Kexa hirugarren baten gainekoa denez, maiatzaren 3ko 10/2022 Foru Dekretuaren 9. artikuluan ezarritako prozedurari jarraituz (gaiak izapidetzeari, ebatzeari eta jakinarazteari buruzkoa), maiatzaren 22an (...)ri informazio egokia helarazi zitzaion, informazioa emateko eta bidezko kontsiderazioak adierazteko eta argudiatzeko eskubidea bermatzeko, eta, aldi berean, EEB honek beharrezkotzat jo zituen galdera batzuk egin zitzaizkion, gaia konpondu ahal izateko. Ildo horretatik, (...)k idatzi bat bidali zuen maiatzaren 29an, bere oharpenekin.

2.- Modu anonimoan jasotako kexak Eskertuak emateko prozeduran izandako irregulartasunak salatzen ditu, eta adierazten du, kasu partikularrean, arduradunak ahoz proposatu zuela bere hautagaitza, eta IZFEko langileentzako hitzarmen kolektiboaren negoziazioaren ondorioz egiten ari diren mobilizazioetan parte hartzeagatik baztertu zela, eta hori enpresarekiko errespetu faltatzat hartu zela.

3.- (...)ak aurkeztutako alegazio-idazkian adierazten da, prozedurak ezartzen duenaren arabera, langilearen arduradunak proposamen-txosten bat egin behar duela, eta txosten horri hautagaitza justifikatzen duten ebidentziak erantsi behar zaizkiola. Hautagaitza hori, era berean, arloko arduradunak baliozkotuko du, eta, azkenik, zuzendariak ebatziko du osagarri ekonomiko hori esleitzea bidezkoa den ala ez. Hizpide dugun gaian, (...)k adierazi du ez duela idatzizko proposamenik jaso.

Manifestazioetan parte hartzeagatik ez zaiola Eskertua eman aipatzeari dagokionez, (...)k adierazi du hori horrela ez izateaz gain, adibide gisa adierazi du lan-arloko epaitegietan enpresaren aurka deklaratu duten langileek ere Eskertuak lortu dituztela, eta, beraz, bere baieztapenak ez duela zentzurik.

4.- EEBk 01/2023 Ebazpenean aztertu zuen, jada, prozedura Eskertu hori. Orduan adierazi zen bezala, Batzorde honen eskumena ez da balioestea zer elementu edo irizpidek osatu behar duten emateko parametroa, baizik eta, nolana ere, prozedura (hitzezko proposamenak aurreikusten ez dituenak) Erakundearen Zuzentasun Sistemaren ezarritako balioetara, printzipioetara eta jokabide-arauetara egokitzea, eta ebatzi zuen Eskertuak emateko ezarritako prozedurak ez duela urratzen EZSn ezarritakoa.

Bestalde, EEB honen ebazpenak frogatutako egitateetan baino ezin dira oinarritu, eta ezin dugu balio-judiziorik eman oinarririk ez duten edo, behintzat, EEBri aurkeztu ez zaizkion

kasu edo gertakariei buruz. Gai honetan, bi alderdiek onartzen duten gertakari bakarra bat dator kontakizunean, eta, beraz, egia bezala hartu dezakeguna: ez da formalki proposatu interesdunaren hautagaitza; beraz, ez dago horri buruzko txostenik.

Prozedura urratu izanaren ebidentziarik ez dagoenez eta, nolana ere, EZS urratu izanaren zantzurik aurkitu ez denez, ezin dugu eraginpeko pertsonak kargutik kentzeko edo gaitasungabetzeko proposamenaren aldeko iritzirik eman.

Hori guztia dela eta, Erakundearen Etika Batzordeak erabaki hau hartu du, aho batez, 2023ko maiatzaren 30ean

EBAZPENA

Lehenengoa. - Aurkeztutako ebidentzien arabera, Eskertuak emateko ezarritako prozedura jarraitu dela eta, beraz, ez dela urratzen Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta bere sektore publikoaren Erakundearen Zuzentasun Sisteman ezarritakoa.

Bigarrena. - Eskertu prozedura berrikustea gomendatzen dugu, izapideak hobetuko dituzten eta gardentasun-berme handiagoak emango dituzten neurriak hartzea baloratzeko.

Gaia: 03/2023

EBAZPENA, (...)K, GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIKO (...), OHIKO ETXEBIZITZA ERAIKITZEKO PROIEKTUA EGITEKO AUKERARI BURUZ EGINDAKO KONTSULTARI BURUZKOA

I.- KONTSULTA

1.- 2023ko maiatzaren 25ean, interesdunak egindako kontsulta bat jaso zen, Gipuzkoako Foru Aldundiko langile izateari eta ohiko etxebizitza eraikitzeako aurretiazko txostenak egiteari buruzkoa.

Adierazi duenez, bere jabetzako lursail batzuetan eraikiko du bere ohiko etxebizitza. Udalari obra-baimenaren aurretiko baldintzak kontsultatu ondoren, beharrezkoa da xehetasun-azterketa bat eta eraikuntza-proiektu bat aurkeztea. Lanbidez arkitektoa denez, berak egin ditzake baimenaren aurreko bi txostenak. Adierazi du ez dela jarduera ekonomiko bat, eta, beraz, ez duela inolako onura ekonomikorik lortuko horregatik.

2.- Horretarako eragozpenik egon daitekeen galdetu du, Gipuzkoako Foru Aldundiko (...) delako.

II.- APLIKATU BEHARREKO ARAUAK

1.- Diputatuen Kontseiluaren 2016ko martxoaren 1eko Erabakiaren bidez onetsi zen Gipuzkoako Foru Aldundiko eta haren sektore publikoko Erakundearen Zuzentasun Sistema (aurrerantzean, EZS), zeinaren bidez etika publikoa eta eredugarritasuna ezaugarri gisa finkatu nahi baitira.

Sistema horren esparruan, zenbait jokabide kode onartu ziren: Diputatuen Kontseiluaren 2016ko martxoaren 1eko erabakiaren bidez, Gipuzkoako Foru Aldundiko eta haren sektore publikoko kargu publikoen zein langile baliokideen Jokabide eta Jardunbide Egokien kodea (KPJK); Diputatuen Kontseiluaren 2017ko irailaren 5eko erabakiaren bidez, kontratazio publikoari aplikatu beharreko Jokabide kodea eta zuzentasun instituzionaleko esparrua (KJK); Diputatuen Kontseiluaren 2017ko azaroaren 7ko erabakiaren bidez, Gipuzkoako foru Enplegu publikoaren Etikaren eta Kudeaketa Onaren Kodea (EPJK); Diputatuen Kontseiluaren 2018ko urriaren 2ko erabakiaren bidez, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta haren sektore publikoaren laguntzei eta diru laguntzei aplikatu beharreko Jokabide kodea eta zuzentasun instituzionaleko esparrua (DLJK); 13/2022 Foru Dekretuaren bidez, 2022ko irailaren 13koak, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta haren sektore publikoarekin elkarreragiten duten Interes Taldeei aplikatu beharreko Jokabide Kodea (ITJK); eta Diputatuen Kontseiluaren 2023ko urtarrilaren 10ko erabakiaren bidez Datuak eta Adimen Artifiziala erabiltzeko kode etikoa (DAAK) .

2.- Bai EZSk bai jokabide kodeek hau ezartzen dute: Erakundearen Etika Batzordea (EEB) izango dela berme handieneko organoa eta hura aplikatzeko gaien berri izango duena. Batzorde horren antolaketa, prozedura eta funtzionamendua maiatzaren 3ko 10/2022 Foru Dekretuan arautzen dira, eta Batzordearen ardura izango da Erakundearen Zuzentasun Sistema garatzeko tresnetan ezarritako balioak, printzipioak eta jokabide arauak ez bete-tezari buruz jasotako kexak eta salaketak izapidetzea eta ebaztea.

III. ERAKUNDEAREN ETIKA BATZORDEAREN BALORAZIOA

1.- Kontua da ea eragozpenen bat dagoen planteatutako gaian, ez bakarrik GFAko langilea delako, baizik eta, hain zuzen ere, bere lanpostua (...) zerbitzuan dagoelako.

2.- Lehen ere adierazi dugun bezala, EEB honek (01/2018 Ebazpena, 2019/07 Ebazpena) ez dauka eskumenik esateko jarduera pribatuak legez bateragarriak direnik funtzio publikoarekin, horretarako beste organo eskudun batzuk baitaude. Gogora dezagun, soilik, abenduaren 26ko 53/1984 Legeak, Administrazio Publikoetako Langileen Bateriaezintasunei buruzkoak, ezartzen duela bateraezintasunen araubidea, eta adierazten duela jarduera profesionalak administrazio publikoetatik kanpo egiteko alde aurreko bateragarritasun-aitorpena beharko dela (14. artikulua). Beraz, bateragarritasun-baimen hori eduki behar da edozein jardueratarako, eta baimen hori dagokion organoak eman behar du, Gipuzkoako Foru Aldundiaren kasuan, Funtzio Publikoaren Zerbitzuak.

3.- EPJK ez du inoiz aipatzen enplegatu publikoen bateraezintasun-araubidea, baina bai, ordea, zintzotasun- eta interes eza-balioak, adierazten baitute enplegatu publikoek interes publikoa betetzeko soilik zuzendu behar dituztela beren jarduerak (3.a artikulua), interes publiko eta pribatuen arteko balizko borroka kontuan hartuta. Horregatik, ezinbestekoa da jakitea gai honetan interes publiko eta pribatuen arteko talka egon daitekeen, hau da, interes-dunak, (...) Zerbitzuko langile gisa, prozeduran zehar izan dezakeen zeregina zein den jakitea.

Aipatutako obra-baimena emateko jarraitu beharreko prozedura kontsultatu ondoren, egiaztatu dugu ez Gipuzkoako Foru Aldundiko (...) Zerbitzuak ez foru-erakundeko beste ezein departamentuk ez dutela prozeduraren ezein fasetan esku hartzen, eta etxebizitza eraikiko den udalerriko udalak soilik hartzen duela parte prozeduran.

Hori guztia dela eta, Erakundearen Etika Batzordeak erabaki hau hartu du, aho batez, 2023ko ekainaren 2an

EBAZPENA

Lehenengoa. - Gipuzkoako Foru Aldundiaren Erakundearen Zuzentasun Sistemaren arabera, zehazki Gipuzkoako Foru Enplegu Publikoaren Etikaren eta Kudeaketa Onaren Kodearen 3. artikuluan ezarritako arauak aplikatuz, interesdunak egin nahi duen jarduera ez da bertan ezarritakoaren aurkakoa.

Bigarrena. - Legezko baldintza denez, gogorarazi nahi dugu bateragarritasun-baimena eskatu behar zaiola Gipuzkoako Foru Aldundiko Funtzio Publikoko Zerbitzuari.

Gaia: 04/2023

(...)K KONTRATATUTAKO ENPRESA BATEN ERANTZUN EZARI BURUZ ANONIMOKI AURKEZTUTAKO KEXA BATI BURUZKO EBAZPENA

I.- KONTSULTA

1.- 2023ko uztailaren 11an kexa bat jaso zen, modu anonimoan aurkeztua, (...)ren kudeaketaz arduratzen den (...) enpresari behin eta berriz egindako eskaera bati jaramonik ez egiteagatik.

Idazkian zehazten denez, egoitza horretan dauden pertsonak hainbat zerbitzuren erabil-tzaileak dira; horietako batzuk egoitzako pertsonaren ekarpenean sartuta daude eta beste batzuk ez (ile-apaindegia, podologia eta farmazia), baina era berean zentroan ematen dira eta enpresa kudeatzaileak kobratzen du zuzenean egoiliarren banku-kontuaren bidez.

Salatutakoaren arabera, enpresari behin baino gehiagotan eskatu zaizkio azken gastu horiengatik fakturak, eta fakturen ordezkiz zerrenda bat bidaltzen zaie Excel formatuan izandako gastuekin, baina ez faktura bera.

2.- Salatzaileak ordainduriko fakturak jasotzeko eskubidea aldarrikatzen du.

II.- APLIKATU BEHARREKO ARAUAK

1.- Diputatuen Kontseiluaren 2016ko martxoaren 1eko Erabakiaren bidez onetsi zen Gipuzkoako Foru Aldundiko eta haren sektore publikoko Erakundearen Zuzentasun Sistema (aurrerantzean, EZS), zeinaren bidez etika publikoa eta eredugarritasuna ezaugarri gisa finkatu nahi baitira.

Sistema horren esparruan, zenbait jokabide kode onartu ziren: Diputatuen Kontseiluaren 2016ko martxoaren 1eko erabakiaren bidez, Gipuzkoako Foru Aldundiko eta haren sektore publikoko kargu publikoen zein langile baliokideen Jokabide eta Jardunbide Egokien kodea (KPJK); Diputatuen Kontseiluaren 2017ko irailaren 5eko erabakiaren bidez, kontratazio publikoari aplikatu beharreko Jokabide kodea eta zuzentasun instituzionaleko esparrua (KJK); Diputatuen Kontseiluaren 2017ko azaroaren 7ko erabakiaren bidez, Gipuzkoako foru Enplegu publikoaren Etikaren eta Kudeaketa Onaren Kodea (EPJK); Diputatuen Kontseiluaren 2018ko urriaren 2ko erabakiaren bidez, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta haren sektore publikoaren laguntzei eta diru laguntzei aplikatu beharreko Jokabide kodea eta zuzentasun instituzionaleko esparrua (DLJK); 13/2022 Foru Dekretuaren bidez, 2022ko irailaren 13koak, Gipuzkoako

Foru Aldundiaren eta haren sektore publikoarekin elkarreragiten duten Interes Taldeei aplikatu beharreko Jokabide Kodea (ITJK); eta Diputatuen Kontseiluaren 2023ko urtarrilaren 10ko erabakiaren bidez Datuak eta Adimen Artifiziala erabiltzeko kode etikoa (DAAK).

2.- Bai EZSk bai jokabide kodeek hau ezartzen dute: Erakundearen Etika Batzordea (EEB) izango dela berme handieneko organoa eta hura aplikatzeko gaien berri izango duena. Batzorde horren antolaketa, prozedura eta funtzionamendua maiatzaren 3ko 10/2022 Foru Dekretuan arautzen dira, eta Batzordearen ardura izango da Erakundearen Zuzentasun Sistema garatzeko tresnetan ezarritako balioak, printzipioak eta jokabide arauak ez bete-tezeari buruz jasotako kexak eta salaketak izapidetzea eta ebaztea.

III. ERAKUNDEAREN ETIKA BATZORDEAREN BALORAZIOA

1- Gai honetan, (...) kudeatzen duen (...) enpresari behin eta berriz egindako faktura-eskaerei jaramonik egin ez zaiela salatzen da.

Lehenik eta behin, esan behar dugu, hasiera batean, arazo administratibo hutsa edo enpresaren eta partikularren arteko komunikazio-arazoa izan daitekeela iruditu daiteke, eta, beraz, *a priori*, ezin duela EEB honek aztertu, haren aplikazio-eremua EZSn ezarritakora mugatzen baita. Baina egoitza baten jardun-eremuan gertatutako egoera bat da. Egoitza horren erantzule (...) da, eta, beraz, EZSn foru-sektore publiko osorako ezarritako balioak eta printzipioak bete behar ditu. Hori dela eta, aztertu egin behar da.

Kexa hirugarren bati dagokionez, gaiak izapidetzeari, ebazteari eta jakinarazteari buruzko maiatzaren 3ko 10/2022 Foru Dekretuaren 9. artikuluan ezarritako prozedurari jarraituz, uztailaren 18an (...) zuzendariari eta (...)ko gerenteari helarazi zitzaizen jasotako kexa, informazioa emateko eta bidezko kontsiderazioak adierazteko eta argudiatzeko eskubidea bermatzeko, eta, aldi berean, EEB honek beharrezkotzat jo zituen galdera batzuk egin ziren, gaia ebatzi ahal izateko. Ildo horretatik, (...)ko kudeatzaileak idazki bat bidali zuen abuztuaren 1ean, bere oharpenekin.

2.- Aurkeztutako kexan adierazten denez, egoiliarren familiek bi kargu jasotzen dituzte hilean, bat (...)ren aldetik, zentroaren mende dauden zerbitzuei dagokienez, hala nola ostalaritza, osasun-laguntza, laguntza psikologikoa eta terapeutikoa; eta bigarren kargu bat (...)en aldetik, ezarritako ekarpenak estaltzen ez dituen zerbitzu batzuegatik, hala nola ile-apainketa, podologia edo farmazia, zentroan ematen diren zerbitzuak eta enpresa kudeatzaileak zuzenean kobratzen dituenak erabiltzailearen banku-kontuaren bidez. Adierazi denez, bigarren kasu honetan behin baino gehiagotan eskatu dira zerbitzu horiei dagozkien fakturak, baina fakturen ordez enpresak zerrenda bat bidali du Excel formatuan, emandako zerbitzuak eta dagozkion gastuak adierazita. Salatzailak ordaindu dituen zerbitzu horien fakturak jasotzeko herritar gisa duen eskubidea adierazten du.

3.- (...)ko arduradunek bidalitako idazkian adierazten denez, 16 egoitzatako arduraduna da, tartean gai honetan aipatutakoa, eta (...) arduratzen da egoitza horren kudeaketaz 2019tik. Kontratuaren baldintzetan jasotzen den bezala, zerbitzu batzuk berez emandakoetatik kanpo daude: ile-apainketa, podologia, farmazia eta beste batzuk. Zerbitzu horiek egoitza-prezioaren barruan sartzen ez direnez, (...)k zuzenean kobratzen dizkio erabiltzaileari. Gastu horiei dagokienez, bi aukera daudela adierazi da: (1) egonaldi-preziotik kanpo eratorritako gastuen zerrenda bat eskatzea edo (2) egonaldi-preziotik kanpo eratorritako gastuen faktura eskatzea. Lehenengo kasuan, egoitzatik dokumentu bat helarazten zaio, izandako ezohiko gastuen zerrendarekin, eta, hala badagokio, osasun-sistemaren koor-

dainketa-sistemaren barruan sartzen ez diren farmazia-kontsumoak adierazten dira. Bigarren kasuan, faktura-eskaera egoitzatik (...)ko zerbitzu zentraletara bideratzen da, eta faktura jaso ondoren, eskatzaileari igortzen zaio. Bi argibideetarako, zerbitzu-zerrendaren eredia eta fakturaren eredia erantsi dira.

Adierazten da bi kasuetan formatu desberdinetan jasotako informazioa bera dela, eta pertsona egoiliar guztiek eta haien senide guztiek dutela informazioa bi modalitateetako edozeinetan eskatzeko aukera. Adierazten dute akats bat izan daitekeela eta zerrenda eskatu izana fakturen ordeztu, faktura-eskaera jasoz gero, normalean beharrezko xehetasunekin bidaltzen dela adieraziz.

4.- (...)tik jasotako azalpenen ondoren, bi prozedurak adierazi eta fakturak lortzeko bide okerra aukeratu ote den zalantzan jarri ondoren, faktura behar bezala eskatu zela ziurtatu behar zen. Pertsonen anonimotua bermatzen duen aplikazioaren bidez aurkeztutako salaketa anonimoa zenez, EEB honek ez zuen harekin harremanetan jartzeko baliabiderik, eta, beraz, aukera bakarria plataforma horren bidez informazio gehigarria eskatzea izan zen eta hala egin zen. Hala ere, zentzuzko denbora-tarte bat igaro ondoren erantzunik jaso gabe, EEB honek ebatzen hori eman behar du, eta ezin izan du informazio hori erkatu.

5.- Balorazioaren hasieran adierazi den bezala, EEB honek gai hau baloratu behar du (...) enpresaren uestezko edo balizko zabarkeria (...)ren ardurapeko adinekoentzako egoitza baten eremuan gertatzen delako, Gipuzkoako Foru Aldundiarena ondorioz, eta, beraz, zerbitzu publikoak ematean errespetatu behar diren balio, printzipio eta jokabide- eta jardura-arauen babespean geratzen delako. Kasu horretan, foru-enplegu publikoari buruzko kodean (EPJK) eta foru-kontratazio publikoari buruzko kodean (KJK) ezarritakoa betetzen dela ziurtatu beharko da.

6.- Zerbitzu publikoak emateko enpresak edo erakundeak kontratatzea ohiko jardunbidea da, eta gaur egungo legediak bermatzen du, zerbitzu horiek ezin badira langile propioekin egin. Kasu honetan, 2019an (...)o adinekoentzako egoitza-zentroan egoitza-zerbitzuak eta eguneko egonaldiak kontratatu ziren, eta (...) horien esleipendun geratu zen.

KJKren helburu nagusia da balio etikoak eta jokabide-arauak ezartzea, bai eta kudeaketa onaren printzipioak eta kontratazio publikoaren arloko jardueretan nagusi izan behar duten lanbide-jarduketako arauak ezartzea ere, bai foru-langileen kasuan, beren eginkizunak betetzearekin zerikusia duten lanbide-jarduera guztietan, bai kontratazio-prozeduran parte hartzen duten enpresa eta erakunde lizitatuzaileen kasuan. Helburua kontratazio publikoaren zuzentasuna indartzea da, konfiantza sortzen duen elementu gisa.

Horretarako, bi aldeek, Administrazioak eta enpresak edo erakundeak, bete behar dituzten jarraibide batzuk ezartzen dira. KJKn ezartzen diren arau gehienak kontratazio-prozeduraren zuzentasuna bermatzera bideratuta daude, hau da, kontratatze beharra justifikatuzetik, lizitazioetik eta esleipenetik igaroz. Baina prozedura ez da hemen amaitu behar, behin kontratua esleituta, kontratatutako zerbitzuaren kudeaketa egokia ere bermatu behar baita. Hala dio KJKk berak kontratua gauzatzeari buruzko atalean, eta honako hau dio:

12. Kontratuaren kudeaketari buruzko informazioa

12.1. Kontratatzaileak, botere esleituzailearen eskariz, kontratua gauzatzeko **baldintzak egiaztatzen dituzten dokumentu guztiak** aurkezteko konpromisoa hartuko du.

12.2. Enpresa edo entitate lizitazaileek **kontrol guztiak, dokumentalak edo in situ egitekoak, onartzen dituzte**, ohiz kanpoko merkataritza gastuak (gastu bereziak) edo bestelako praktikak, lehiaren aurkakoak edo ustelkeria, izan direlako susmoa berretsiko duten frogak biltzeko beharrezkotzat joko direnean.

Bereziki era horretara jardungo da arrisku edo iruzur jarduketak izan daitezkeelako susmoak daudenean, ofizioz edo informazioaren bat dagoenean.

12.3. Edozein iturritatik lorturiko informazioak onartuko dira, baldin eta Foru Administrazioaren kontratu publiko batean konpromiso horiek hautsi direla agerian jartzea asmoa badago.

(...)

Horrekin guztiarekin, kontratatutako zerbitzuak behar bezala ematen direla ziurtatu nahi da. Garrantzitsua da aipatzea herritarrari berdin diola zein enpresak edo erakundek ematen dituen zerbitzu horiek; izan ere, Gipuzkoako Foru Aldundian jarri dute zerbitzuaren funtzionamendu egokiaren konfiantza, eta, beraz, herritarrari dagokionez, bera da arduraduna. Hori dela eta, garrantzitsua da zerbitzu horiek foru Aldundiari berari espero zaion arduraz ematen direla ziurtatzea, identifikatzen duten eta EZSn jasotzen diren balioak eta printzipioak betez; hori dela eta, ulertzen da kontratua gauzatzeko baldintzen barruan dagoela hura kontenplatzea eta errespetatzea.

Hori esanda, ikusi beharko da EZSk zer ezartzen duen zerbitzu publikoak emateari dagokionez. Ildo horretan, kontuan hartu beharreko EPKEen hainbat xedapen aipatu behar ditugu.

Errespetuaren balioari dagokionez:

7. Errespetua

(...)

d) Langile publikoek **arreta berezia** jarri beharko dute **herritarrekiko eta zerbitzu publikoko erabiltzaileekiko harremanetan**. Eredu honetan, foru langileek ematen duten zerbitzu publikoaren azken arrazoia herritarrak direnez, edozein kasutan kortesia, zuzentasun eta errespetuz tratatuko dira, eta bereziki, pertsona orok merezi duen duintasunez, baita adeitasun, enpatia eta baretasunez.

(...)

Horrez gain, Gardentasunaren eta Ardura profesionalaren printzipioei buruzko jardue-ra-arau batzuk ere aipatzen dira:

3.1 Gardentasuna

(...)

c) Era berean, foru langile publikoek diligentzia bereziarekin jardungo dute, **erantzun azkarrek, eraginkorrek eta arrazoituak bermatuz**, herritarrek eta euren erakundeek Foru Administrazioari informazio publikoa eskatzen diotenean, kasu bakoitzean existitzen diren mugak, jokoan dauden eskubideak kontuan hartuz, eta modu mugatzailean ez onartzeko arrazoiak eta muga horiek interpretatuz, herritarrek jarduera publikoaren kontrola errazteko asmoz.

(...)

3.5 Ardura profesionala

(...)

b) Euren funtzioak burutzean, foru langile publikoek ardura profesionalarekin jardungo dute beti, **euren funtzioak eta lanak diligentzia handienarekin betez** eta markatutako helburuak betetzeko beharrezko esfortzua eginez.

c) Horrek esleitutako funtzioen dedikazio berezia dakar, gai edo administrazio izapide bakoitzak suposatzen dituen interes eta jarrerak baloratuz beti, proposamen edo txostenak arrazoituz eta, edozelan ere, funtzio horiek egoki ez betetzeak edo euren jarrerak sortzen dituen ondorioak onartuz.

(...)

Agindu horiek guztiek herritarrei eta zerbitzu publikoen erabiltzaileei arreta egokia eta profesionala ematen zaiela bermatzen dute, eta, horretarako, lanak behar den arretaz egin behar dira, haien beharrei eta eskaerei erantzuten eta arazoak modu eraginkorrean konpontzen. Baldintza horietan emandako zerbitzu baten ondorioz, herritarrak pozik eta esker onez daude jasotako zerbitzuarekin, eta horrek Erakundearen irudi ona dakar.

Aztertzen ari garen gaian, fakturak behin eta berriz eskatzeari jaramonik ez egitea jokabide desegokia izango litzateke, eta, argi eta garbi, EZSk eskatzen duen jarduera arduratsu, errespetuzko eta profesionalaren aurkakoa, eta, beraz, EEBak gaitzetsiko lukeen jarrera izango litzateke, haren aurkakoa delako.

Hala ere, gorago adierazi den bezala, kexa aurkeztu zuen pertsonari eskatutako informazio gehigarria jaso ez dugunez eta benetan jarduera desegokia edo akatsa den egiaztatu ezin izan dugunez, EEB honek prozedurei buruz jasotako informazioa ontzat eman besterik ezin du egin.

Hori guztia dela eta, Erakundearen Etika Batzordeak erabaki hau hartu du, aho batez, 2023ko abuztuaren 29ean

EBAZPENA

Lehenengoa. - Aurkeztutako ebidentzien arabera, eta Foru Enplegu Publikoaren Etikaren eta Kudeaketa Onaren Kodearen artikuluek Errespetuaren, Gardentasunaren eta Ardura Profesionalaren balioen inguruan jasotzen denaren arabera, uste dugu egindako zerbitzuen zerrenda eta fakturak bidaltzeko ezarritako prozedurak egokiak direla eta, beraz, ez dela urratzen Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta bere sektore publikoaren Erakundearen Zuzentasun Sisteman ezarritakoa.

Bigarrena. - Gardentasuna, komunikazio irekia eta erantzuteko gaitasuna funtsezkoak dira zerbitzu publikoak emateko kontratu bat behar bezala gauzatzen dela bermatzeko. Horregatik, zerbitzu publikoaren funtzionamendu egokia eta kalitatea bermatze aldera, eta egoitza kudeatzeaz arduratzen den enpresak erabiltzaileei eta haien senideei ematen dien arreta bermatze aldera, honako neurri hauek hartzea gomendatzen dugu:

1. (...)ren eta (...) enpresaren partetik kontratuaren ardura izango duten pertsonak zehaztea.
2. Jarraipen- eta berrikuspen-prozedura etengabeak ezartzea, kontratuaren exekuzioaren eta betetze-mailaren jarraipena egiteko.
3. Kontratua gauzatzeko baldintzak eta zerbitzuaren funtzionamendu egokia justifikatzeko baliaigarri izan daitekeen informazioa eta dokumentazioa aldizka eta gorabeherak ematen diren bakoitzean eskatzea.
4. Zerbitzuak ematen diren lekuan ikuskapen erregularrak egitea, kalitatea eta betetzea egiaztatzeko. Ikuskapenak administrazio publikoko langileek edo, beharrezkoa bada, hirugarren independenteek egin ditzakete.
5. Kontratua gauzatzean dauden arazoei eta gabeziei aurre egiteko mekanismo bat ezartzea.
6. Enpresa kontratistarekin komunikazio irekia eta etengabea izatea, edozein arazori egoki aurre egiteko eta gaizki-ulertuak azkar konpontzeko.

Gaia: 05/2023

EBAZPENA, KONTU-HARTZAILETZA ETA AUDITORETZA ZERBITZUAK EGINDAKO JANARI- ETA ORDEZKARITZA-GASTUEN ORDAINKETARI BURUZ KONTSULTARI BURUZKOA

I.- KONTSULTA

1.- 2023ko uztailaren 14an kontsulta bat jaso zen, hainbat kasutan janari- eta ordezkari-tza-gastuak ordaintzeko erabili beharreko irizpideei buruz.

Idazkiari hasiera emateko, zerbitzuen ondoriozko kalte-ordainei buruzko otsailaren 2ko 16/1993 Dekretuaren artikulua batzuk kopiatu dira. Dekretu horren bidez, egoera zehatzetan otordu- eta ordezkari-tza-gastuak ordaintzeko ahalmena ematen da, eta karrerako,

bitarteko eta praktikaldiko funtzionarioei eta Gipuzkoako Foru Aldundiko behin-behineko langileei aplikatu behar zaizkie. Adierazitako manuetatik, interesdunaren ustez, bazkari-gatiko gastuak lantokiko udalerritik kanpo egiten direnean bakarrik ordaindu ahal izango dira, baldin eta lekualdaketa foru-Aldundian garatutako jarduerarekin lotutako lanaren ondorioz gertatu bada; beraz, lantokiko udalerrian egiten diren bazkari-gastuak ezin izango dira inola ere ordaindu.

Interesdunaren arabera, bazkari-gastuen kalte-ordainaren eremutik kanpo, bazkariak eragindako gastuak ez ordaintzearen salbuespen bakarra ordezkari-arrazoiengatik hirugarrenei egin beharreko gastuetan dago (afarietarako edo bazkarietarako gonbidapenak), baldin eta hierarkian gorago dagoenak horretarako baimena eman badu, eta bertaratutako nortasuna eta betetzen duten kargua edo lanpostua adierazteko baldintza gehigarria betetzen badu. Kasu honetan lantokiko udalerrian egindako gastuak ordainduko lirateke.

2.- Testuinguru horretan, hainbat gai planteatzen dira:

1. Kalte-ordaingarriak al dira Gipuzkoako Foru Aldundiko eta haren sektore publikoko erakundeetako pertsonak bakarrik joaten diren lantokiko udalerrian egiten den lan-bilera bateko bazkari-gastuak?
2. Eta aurreko kasu bera, foru Aldundiak edo haren sektore publikoko erakundeek zuzenean edo zeharka parte hartzen duten erakundeetako pertsonak ere bertaritzen badira, foru sektore publikoko erakundeak ez izan arren?
3. Lantokiaren udalerritik kanpo egiten den lekualdaketa Foru Aldundian lanean ari diren pertsonak egiten badute, baldin eta pertsona horiek administrazio-kontseiluko kide izateagatik edo foru-sektore publikokoa ez den erakunde bateko patroizateagatik egiten badute, kalte-ordaina jaso al dezakete joan-etorri horiek eragindako gastuengatik?
4. Ordezkaritza-gastuak egin ahal izateko baimena eskatzen ez bada, egindako gastua kalte-ordaina jasotzeko modukoa da?
5. Foru-diputatuei dagokienez, nor da beraien nagusi hierarkikoa?

II.- APLIKATU BEHARREKO ARAUAK

1.- Diputatuen Kontseiluaren 2016ko martxoaren 1eko Erabakiaren bidez onetsi zen Gipuzkoako Foru Aldundiko eta haren sektore publikoko Erakundearen Zuzentasun Sistema (aurrerantzean, EZS), zeinaren bidez etika publikoa eta eredugarritasuna ezaugarri gisa finkatu nahi baitira.

Sistema horren esparruan, zenbait jokabide kode onartu ziren: Diputatuen Kontseiluaren 2016ko martxoaren 1eko erabakiaren bidez, Gipuzkoako Foru Aldundiko eta haren sektore publikoko kargu publikoen zein langile baliokideen Jokabide eta Jardunbide Egokien kodea (KPJK); Diputatuen Kontseiluaren 2017ko irailaren 5eko erabakiaren bidez, kontratazio publikoari aplikatu beharreko Jokabide kodea eta zuzentasun instituzionaleko esparrua (KJK); Diputatuen Kontseiluaren 2017ko azaroaren 7ko erabakiaren bidez, Gipuzkoako foru Enplegu publikoaren Etikaren eta Kudeaketa Onaren Kodea (EPJK); Diputatuen Kontseiluaren 2018ko urriaren 2ko erabakiaren bidez, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta haren sektore publikoaren laguntzei eta diru laguntzei aplikatu beharreko Jokabide kodea eta zuzenta-

sun instituzionaleko esparrua (DLJK); 13/2022 Foru Dekretuaren bidez, 2022ko irailaren 13koak, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta haren sektore publikoarekin elkarreragiten duten Interes Taldeei aplikatu beharreko Jokabide Kodea (ITJK); eta Diputatuen Kontseiluaren 2023ko urtarrilaren 10ko erabakiaren bidez Datuak eta Adimen Artifiziala erabiltzeko kode etikoa (DAAK).

2.- Bai EZSk bai jokabide kodeek hau ezartzen dute: Erakundearen Etika Batzordea (EEB) izango dela berme handieneko organoa eta hura aplikatzeko gaien berri izango duena. Batzorde horren antolaketa, prozedura eta funtzionamendua maiatzaren 3ko 10/2022 Foru Dekretuan arautzen dira, eta Batzordearen ardura izango da Erakundearen Zuzentasun Sistema garatzeko tresnetan ezarritako balioak, printzipioak eta jokabide arauak ez bete-tezari buruz jasotako kexak eta salaketak izapidetzea eta ebatzea.

III. ERAKUNDEAREN ETIKA BATZORDEAREN BALORAZIOA

1.- Egindako kontsultak hainbat gai biltzen ditu, baina izendatzaile komun batekin, hau da, hainbat zirkunstantziatan eta pertsona desberdinek sortutako janari-gastuen ordainketa edo kalte-ordaina, zerbitzuen ondoriozko kalte-ordainei buruzko otsailaren 2ko 16/1993 Dekretuan zehaztasun handiagoz edo txikiagoz arautzen direnak.

2.- 16/1993 Dekretuaren aplikazio-eremuaren barruan sartzen dira Gipuzkoako Foru Aldundiko karrerako eta bitarteko funtzionarioak, behin-behineko langileak eta praktiketako funtzionarioak.

Egindako kontsultan planteatzen diren gaiei dagokienez, 16/1993 Dekretuaren artikulua batzuk hartu behar dira kontuan. Hona hemen:

Dekretu horren 15. artikulua honako hau ezartzen du:

15. art.

Joan-etorria lantokia dagoen udalerrian egiten bada, edo udalerritik kanpo, eta interesdunak bere bizilekuan gaua eman badezake, bidaia-gastuak ordainduko zaizkie. Udal-mugartetik kanpo gertatzen bada eta, egin beharreko jarduerak direla-eta, bertan egin behar bada bazkaria, kontzeptu horrek eragindako gastuak ere ordainduko dira, gastu horiek justifikatzen dituen zerbitzua ezarri duen goragoko mailako ados jarri ondoren.

Artikuluan adierazitakoaren arabera, bazkariagatiko gastuak ordaindu ahal izango dira lantokiko udalerritik kanpo egiten badira, lekualdaketa foru Administrazioan garatutako jarduerarekin lotutako lan-arrazoiengatik gertatu bada. Beraz, hitzez hitz egiten bada, ez dira ordainduko lantokia dagoen udalerrian egiten diren bazkari-gastuak.

Bestalde, laugarren Xedapen Gehigarriak ordezkariagatiko gastuak aipatzen ditu:

1. - Afarietarako edo bazkarietarako gonbidapenak ordaintzeko gastutzat hartuko dira, baldin eta, aldez aurretik horretarako baimena emanda, ordezkaritza-arrazoiengatik hirugarrenei egin behar bazaizkie. Gastu horiek zenbateko zehatzaren arabera ordainduko dira, gastuak justifikatu ondoren. Justifikazioan, parte-hartzaileen nortasuna eta betetzen duten kargua edo lanpostua adierazi beharko dira.

2.- *Dagokion Zuzendaritzako titularrari dagokio ordezkartza-gastuak egiteko baimena ematea, Autonomia Erkidegoko Administrazioan eta hari atxikitako langileei dagokienez, eta, gainerako Administrazio Publikoetan, kasuan kasuko organo eskudunei.*

3. – *Ordezkaritza-arrazoiengatik gastuak jasotzea bateraezina izango da kontzeptu horretan jada ordaindutakoak ordaintzeko dieta edo kalte-ordainen sortzapenarekin.*

Hori horrela izanik, ordezkartza-arrazoiengatik bazkariak eragindako gastuak ordaindu ahal izango dira, betiere hierarkian gorago dagoen pertsonak ordezkartza hori baimendu badu, baina kasu horretan ez da berariaz adierazten gastu horiek lantokiko udalerraren barruan edo udalerritik kanpo sor daitezkeen.

Beraz, Dekretuak bi kasu bereizten ditu otordu-gastuen kalte-ordainerako: ordezkartza-arrazoiengatik sortutakoak eta ez direnak. Interesdunak 15. artikuluan eta 4. Xedapen Gehigarrian ezarritakoa lotzen du, ordezkartza-gastuak salbuespen bakartzat jotzen baititu lantokiko udalerrian egindako janari-gastuak ordaintzeko. Hala ere, Xedapen Gehigarriaren 3. atalean ondo esaten den bezala baztertzaleak diren arren, independenteak eta osagarriak izan daitezkeen bi gai gisa ere interpreta daitezke, bi egoera eta gastu-mota desberdin arautzen baitituzte, eta, beraz, bataz ez luke zertan bestearen salbuespena izan behar.

Dekretuaren arabera, kasu jakin batzuetan aurreikusten da janari-gastuak ordaintzea, baimenarekin:

- Lantokia aldatzea (11.1).
- Zerbitzua dela eta lantokia dagoen udalerritik kanpora joatea, egin beharreko jarduerak direla-eta, bertan bazkaria egin behar denean (15).
- Prestakuntza- edo hobekuntza-ikastaroetara joatea bizi den herritik kanpo (18.2.b).
- Bazkaltzeko aparteko gastuak, ohiko lanaldia luzatzeagatik (2. XG).
- Ordezkaritza-arrazoiengatik hirugarrenei egindako gonbidapenak (4. XG), betiere alde aurreko baimenarekin.

Beraz, Gipuzkoako Foru Aldundiko eta bere sektore publikoko langileek lantokiko udalerrian egiten duten lan-bilera bateko bazkari-gastuak ez lirateke sartuko arauan aurreikusitako ezein kasutan (1). Hala ere, bilera horretara foru sektore publikotik kanpoko pertsonak joango balira, aztertu beharko litzateke ea foru Administrazioako langileek gonbidatutako hirugarren pertsonak diren eta, horrela, 4. Xedapen Gehigarrian deskribatutako egoeran sar daitezkeen (2).

Bazkari-gastua bere eginkizunak betetzeagatik egindako joan-etorrietan sortzen bada, Dekretu horren 14. artikuluan, zerbitzuagatik joan-etorriei buruz ari da: “langileek beren eginkizunak ohiko moduan betetzera behartuta daudenak, aldi baterako agindutako eginkizunak betetzeagatik”. Kasu honetan, Patronatu batera edo Administrazio Kontseilu batera joateak, foru Administrazioaren zerbitzura dagoen pertsona den aldetik, definizio horri erantzuten dio eta, beraz, logikoa dirudi kalte-ordaina jaso beharko lukeela pentsa-

tzea, lan-arrazoiengatik lekualdaketa baita (3). Beste kontu bat litzateke, jakina, bertako kide izateak jatorri partikularra izatea, eta ez foru Administrazioaren ordezkari izatea.

Ordezkaritza-arrazoiengatik sortutako gastuei dagokienez, gastu mota horiek, arauak ezartzen dituen baldintza jakin batzuetan, kalte-ordaina jasotzeko eskubidea ematen dute:

- Ordezkaritza-arrazoiengatik izan behar dute
- Hirugarren pertsonekin egitea
- Hierarkian gorago dagoen pertsonaren aldez aurreko baimena izan
- Eta bazkarira bertaratutakoen nortasuna eta kargua edo lanpostua adieraziz

Nahiz eta egia den kasu orokorraz haragoko baldintza espezifiko batzuekin, azkenean, zerbitzuagatiko kalte-ordaina jaso dezakeen gastua dela, bere lanaren ondorioz eta bere eginkizunak betetzean gertatzen dela ulertzen baita. Pertsona batek Erakundea ordezkatzeko duenean, hura ordezkatzeko autoritatea izan behar du, eta erakunde horren interesen eta nortasunaren arabera jardutea espero da. Agintaritza hori berezkoa izan daiteke eta erakundearen antolamendu-arauetan jasota egon daiteke (foru Aldundiaren kasuan, uztaillaren 12ko 6/2005 Foru Araua, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzkoa), edo eskuordetzaz edo baimenez eman daiteke.

Nolanahi ere, Dekretuak adierazten du ordezkaritza hori gauzatzearen ondoriozko gastuak hierarkian gorago dagoen pertsonak baimendu behar dituela aldez aurretik. Kontu hori logikoa dirudi, baina, hala ere, egunez egun gertatzen den errealitateak gainditu egin dezake. Izan ere, baliteke lan-karga eta denbora frenetikoak arau-eskakizun zorrotzekin bat ez etortzea. Hori dela eta, baimena aldez aurretik eman behar dela berariaz eskatzen den arren, kontuan hartuta baliabide publikoen kudeaketa etengabe kontrolatzen dutela barneko zein kanpoko organoek, eta, lehenik eta behin, gastu horren ordainketa hierarkian gorago dagoenak baliozkotu beharko duela, interpretazio finalista, arrazoizko eta zentzuzko batek ulertaraz dezake arauaren helburua baimena beti gastua benetan ordaindu aurretik egotea dela. Horregatik, arrazionaltasun-irizpidearen arabera, badirudi posible dela aldez aurreko baimenaren eskakizunari buruzko interpretazio laxoa egitea. Nolanahi ere, hierarkian gorago dagoen pertsonak ordezkaritza-arrazoi horrekin eta horren ondoriozko gastuekin ez balidatzen badu edo ados ez dagoela adierazten badu, horiek ez lukete kalte-ordainik jaso beharko (4).

Azkenik, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzko uztaillaren 12ko 6/2005 Foru Arauaren 74. artikulua dioenez, foru diputatuek emandako egintza eta ebazpenek amaiera ematen diote administrazio bideari, eta horrek aditzera eman dezake ez dutela hierarkian goragoko mailarik, eta, beraz, ondorio horietarako ez litzaekeela aplikatuko 16/1993 Dekretuan ezarritakoa (5).

3.- Erakundeen Zuzentasun Sistemak ez du berariaz esaten zer gastu eta zer egoeratan ordain daitezkeen janari- eta ordezkaritza-gastuak, baina badira aztertzea merezi duten agindu batzuk, eta horien gutzientz inguruko irakurketa egiten badugu, ondorio batzuk atera ditzakegu.

KPJkK Eredugarritasunari buruzko atalean kreditu-txartelen erabilera aipatzen du, eta artikulu hori aldatu egin zen EEB honek 2016ko Jardueren Memorian jaso zuen gomen-dioaren ondorioz:

3.5 Eredugarritasuna

(...)

k) Foru kargu publikoek ez dute erakunde kreditu txartelik izango. **Kargua dela eta egindako edozein gastu alde aurretik ordainduko du foru kargu publikoak**, eta aurrerago, funtzioak betetzen dituen erakundeak, gastua ikuskatu ondoren, hori ordainduko dio foru kargu publikoari. Hala ere, erakunde joan-etorrietan edo antzeko izae-rako ekintzetan aurreko arauaren salbuespenak egin ahal izango dira, behar bezala justifikatuta.

(...)

Ez du ezer esaten gastu hori kalte-ordaina jaso dezakeen gastutzat jotzeko bete behar diren baldintzei buruz, baina bai ondoren ordainduko dala. Horrek pentsaraz lezake, printzipioz, sortutako edozein gasturi kalte-ordaina eman dakiokela, alde batera utzita lekua, mahaikideak edo egoera inguratzen duten inguruabarrak.

Bestalde, Ordezkaritzaren gaia aipatzen da, baina ez berariaz sortutako gastuen kalte-ordainari dagokionez:

3.1 Ordezkaritza

a) Erakunde ordezkaritza foru kargu publikoaren ardura da, eta horren arabera, **Foru Aldundiaren irudi eta ospea babestu** behar du beti, eta ezin da inola ere funtzio hori betetzen dituzten pertsonen jarduera subjektiboagatik zalantzan jarri.

(...).

c) Foru kargu publikoek erakunde osoa ordezkatzen dute, eta beharrezko duintasun eta begirunearekin beteko dute funtzio hori, era horretan, **erakundearen irudia ona izan dadin herritarren aurrean**, eta ordezkapen hori egiten duen pertsonaren ekintza edo ez-egiteak, jarrerak edo jokabideak ezingo dute erakunde horren irudia kaltetu.

d) Ordezkaritza funtzioak betetzeko orduan, foru kargu publikoek **ardura eta erakunde zentzu osoz** jokatuko dute, eta bereziki kontuz ibiliko dira boluntarioki beren gain hartu duten kargu publikoaren duintasunaren aurka doazen hitzezko edo egitezko adierazpenik ez egiteko, eta ondorioz, **erakundeari kalte hautemangarri edo ukiezinik ez sortzeko**.

Manu horietan adierazitakoak ziurtatu nahi du ezein jarduerak, publikoak zein pribatuak, ezin diola kalterik egingo erakundearen irudi positiboari eta ospeari. Eguneroko jardueran kontu handiz jarduteaz gain, are gehiago kontuan hartu behar da ordezkaritza-jarduerak egiten ari direnean, egoera horretan erakundearen beraren izenean eta haren ordezkaritza gisa ari baitira. Egoera horretan, foru Administrazioa identifikatzen duten EZSn ezarritako balio eta printzipioetara egokitzeaz gain, beste erabilera eta ohitura batzuk ere hartu

beharko dira kontuan, hala nola afarietarako edo bazkarietarako gonbidapena, kortesia instituzionaleko ekintza huts gisa, Erakundearen irudi ona lortzen ere lagun dezakeena.

Hala ere, Eredugarritasunari eta Ordezkaritzari buruz adierazitakoa interpretatzeko, haren edukia eraginkortasunaren balioa garatzen duten jokabide-arauetan ezarritakoarekin lotu behar da.

3.7 Eragimena

a) Foru kargu publikoek **eragimenez kudeatuko dituzte baliabide publikoak, horiek inola ere xahutu gabe**, eta eragimenez horiek optimizatuz.

b) Foru kargu publikoei atxikitako **baliabide publikoen erabilera beren ardura publikoak betetzeari lotuta egongo da**. Objektiboki salbuetsi daitezkeen premia kasuetan izan ezik, eskuragarri jartzen zaizkien baliabide publikoak ez dira erabiliko interes publikoekin zerikusirik ez duten premia pribatuak, pertsonalak edo profesionalak ala familia premiak asetzeko.

(...)

Baliabide publikoen kudeaketak eta kudeaketa ekonomiko-finantzarioak eraginkortasunaren mende egon behar dute, eta alde batera utzi behar da ondasun edo baliabide publikoak, ekonomikoak zein bestelakoak, erabiltzean inolako xahutzerik. Izan ere, ez dugu ahaztu behar baliabide publikoak herritarrek eta enpresek ordaindutako zergetatik datozela, eta, beraz, funtsezkoa da modu eraginkor eta arduratsuan erabiltzea. Baliabide publikoen kudeaketan eraginkortasunik ez dagoenean, beharrezkoa ez den gastua eragin dezake, eta herritarrentzako karga fiskala areagotu, baliabideak mugatuak baitira, baina beti daude eskaerak eta beharrak etengabe aldatzen ari direnak, eta zerbitzu publikoek bete behar dituztenak.

Aurreko guztia esanda, zerbitzu eta erakunde publikoen funtzionamendu egokian lan egiten duten pertsonen eskatzen zaien sen ona eta zerbitzu-bokazioa baliarazi behar ditugu. Esleitutako funtzioak garatzeko testuinguru batean, eta betiere arrazionaltasun- eta proportzionaltasun-irizpidearen arabera, logikoa dirudi pentsatzea foru Administrazioako langileei eskatzen zaiena betetzeko batzuetan beharrezkoak diren gastuak sor daitezkeela, bai beren lana egiteko beste leku batera joan behar dutelako, bai protokolo-, ordezkari-tza- eta kortesia-arrazoiengatik; bi egoera horiek gastuak sor ditzakete, eta beren funtzio publikoak betetzetik datozen heinean, inplikaturako pertsonak ez litzukete gastu horiek pertsonalki beren gain hartu behar. Hori bai, azpimarratu behar da oso garrantzitsua dela gastu horiek erabat justifikatuta daudela zaintzea, bai ikuspegi funtzionaletik, hau da, kontuan hartuta zer egoeratan gertatu den eta zer funtzio garatu diren, bai efizientziaren eta proportzionaltasunaren ikuspegitik, eta ezin da pentsatu baliabide publikoak xahutzen ari direnik edo onura pertsonalerako inguruabarrak gehiegikeriaz erabiltzen ari direnik.

Hori guztia dela eta, Erakundearen Etika Batzordeak erabaki hau hartu du, aho batez, 2023ko irailaren 15ean

EBAZPENA

Lehenengoa. – Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta haren sektore publikoaren Erakundearen Zuzentasun Sisteman ezarritakoaren arabera, eta Gipuzkoako Foru Aldundiko eta haren sektore publikoko kargu publikoen zein langile baliokideen Jokabide eta Jardunbide Ego-kien kodean Eredugarritasunari, Ordezkaritzari eta Eraginkortasunari buruz ezarritako arauak aplikatuz, uste dugu a priori kalte-ordaina jaso dezaketela lekualdaketa edo ordezkaritzak eragindako gastuek, beti ere arrazionaltasunaren eta proportzionaltasunaren irizpidearen arabera badira.

Bigarrena. – Oro har, gomendio hauek kontuan hartzea gomendatzen dugu:

1. Eraginkortasun-printzipioari jarraituz, lan-bilerak egiteko beharrezkoak ez diren gastuak saihestea gomendatzen dugu, bai eta baliabideak, espazioak eta lan-ordelegia ahalik eta gehien aprobetxatzea ere, bai foru Administrazioetik kanpoko langileekin, bai barneko lan-bilerak egiteko.
2. Eraginkortasun- eta Ordezkaritza-balioen arteko orekari eusteko, zuhurtziaz jokatzeko gomendatzen dugu, bereziki baliabide publikoak, ekonomikoak zein bestelakoak, erabiltzea dakarrenean.
3. Enplegatu publikoa izateagatik inguruabarren abusurik edo aprobetxamendurik hautematen ez bada, funtzio publikoak betetzetik eratorritako gastuak ordaintzeko beharrezkoak diren baldintzen interpretazio malgua egin ahal izango da.

Gaia: 06/2023

(...) ANDREAK (...)K EMANDAKO ZERBITZUA ETA EMANDAKO TRATUA DELA ETA AURKEZTUTAKO KEXA BATI BURUZKO EBAZPENA

I.- KONTSULTA

1.- 2023ko abuztuaren 14an (...)en kexa bat jaso zen, erabat mendekoa den 83 urteko gizon baten alaba dena; aitak, makina desberdinak erabiltzen ditu bere zaintza eta mugikortasuna errazteko. Idazkian dioenez, abuztuaren 11n gurpil-aulkiaren motorra matxuratu zen, eta egun horretan bertan eman zion horren berri (...)ri. Zerbitzu horrek erantzun zion, Donostiako Aste Nagusiaren eta trafikoko gorabeheren ondorioz, ezin izango zela motorra aste osoan konpondu (abuztuaren 14tik 20ra). Behin baino gehiagotan telefonoz hitz egin ondoren, bai (...)n, bai Foru Aldundian bertan, esan diote hilaren 17an joango direla hura jasotzera, baina hainbat egun beharko dituztela hura konpontzeko, eta ez dagoela ordezko aulkirik. Hori dela eta, erabiltzailea ezin da mugitu, eta, beraz, ezinezkoa zaio eguneroko errutinak egitea, hala nola eguneko zentrora edo kontsulta medikoetara joatea. Jarduera horiek onurak ekartzen dizkiote bere osasunari.

2.- Interesduna ez dago ados emandako zerbitzuarekin ezta (...)ek emandako tratuarekin, eta aulkia lehenbailehen konpontzeko eskatu du (azkenean, abuztuaren 17an egin ahal izan zen konponketa, etxebizitza berean).

II.- APLIKATU BEHARREKO ARAUAK

1.- Diputatuen Kontseiluaren 2016ko martxoaren 1eko Erabakiaren bidez onetsi zen Gipuzkoako Foru Aldundiko eta haren sektore publikoko Erakundearen Zuzentasun Sistema (aurrerantzean, EZS), zeinaren bidez etika publikoa eta eredugarritasuna ezaugarri gisa finkatu nahi baitira.

Sistema horren esparruan, zenbait jokabide kode onartu ziren: Diputatuen Kontseiluaren 2016ko martxoaren 1eko erabakiaren bidez, Gipuzkoako Foru Aldundiko eta haren sektore publikoko kargu publikoen zein langile baliokideen Jokabide eta Jardunbide Egokien kodea (KPJK); Diputatuen Kontseiluaren 2017ko irailaren 5eko erabakiaren bidez, kontratazio publikoari aplikatu beharreko Jokabide kodea eta zuzentasun instituzionaleko esparrua (KJK); Diputatuen Kontseiluaren 2017ko azaroaren 7ko erabakiaren bidez, Gipuzkoako foru Enplegu publikoaren Etikaren eta Kudeaketa Onaren Kodea (EPJK); Diputatuen Kontseiluaren 2018ko urriaren 2ko erabakiaren bidez, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta haren sektore publikoaren laguntzei eta diru laguntzei aplikatu beharreko Jokabide kodea eta zuzentasun instituzionaleko esparrua (DLJK); 13/2022 Foru Dekretuaren bidez, 2022ko irailaren 13koak, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta haren sektore publikoarekin elkarreragiten duten Interes Taldeei aplikatu beharreko Jokabide Kodea (ITJK); eta Diputatuen Kontseiluaren 2023ko urtarrilaren 10ko erabakiaren bidez Datuak eta Adimen Artifiziala erabiltzeko kode etikoa (DAAK).

2.- Bai EZSk bai jokabide kodeek hau ezartzen dute: Erakundearen Etika Batzordea (EEB) izango dela berme handieneko organoa eta hura aplikatzeko gaien berri izango duena. Batzorde horren antolaketa, prozedura eta funtzionamendua maiatzaren 3ko 10/2022 Foru Dekretuan arautzen dira, eta Batzordearen ardura izango da Erakundearen Zuzentasun Sistema garatzeko tresnetan ezarritako balioak, printzipioak eta jokabide arauak ez betetzeari buruz jasotako kexak eta salaketak izapidetzea eta ebaztea.

III. ERAKUNDEAREN ETIKA BATZORDEAREN BALORAZIOA

1- Gai honetan, (...) emandako zerbitzua eta jasotako tratua salatzen dira, guztiz mendekoa den erabiltzaile baten aulki motorduna konpontzeko egindako eskaeraren aurrean. Emandako zerbitzuak behar bezala funtzionatzen duela bermatzeko azken arduraduna foru Aldundia izanik, EEB honi dagokio balioestea benetan ea jasotako zerbitzua eta tratua bat datozen EZSk foru-sektore publiko osorako ezarritako balio eta printzipioekin.

Kexa hirugarren bati dagokionez, maiatzaren 3ko 10/2022 Foru Dekretuak, gaiak izapidetzeari, ebazteari eta jakinarazteari buruzkoak, 9. artikuluan ezarritako prozedurari jarraiki, abuztuaren 17an (...)ko Zuzendaritzako (hark du gaiaren gaineko eskumena) arduradunei helarazi zitzaizen jasotako kexa, informazioa emateko eta egoki iritzitako iritzia emateko eta argudiatzeko eskubidea bermatzeko, eta, aldi berean, EEB honek beharrezkotzat jo zituen galdera batzuk egin ziren, gaia ebazti ahal izateko. Ildo horretatik, (...)ko Zerbitzuak (aurrerantzean, Zerbitzua) idazki bat bidali zuen hurrengo egunean, abuztuaren 18an, bere oharpenekin.

2.- Kexa jartzen duen pertsona adin handiko eta mendekotasun osoa duen pertsona baten alaba da. Pertsona horrek, pixkanaka-pixkanaka bere ezaugarri fisiko eta kognitiboak direla-eta, hainbat makina erabiltzen ditu (gurpil-aulkia motor akoplatuarekin, garabia, etab.), bere zaintza eta mugikortasuna errazteko.

Idatzian azaltzen denez, abuztuaren 11n gurpil-aulkia propulsetan duen motorrak matxuratu izan zuen eta (...)kin harremanetan jarri ziren matxuraren berri emateko eta konpontzeko eskatzeko. Hala ere, jakinarazi zitzaion ezen, Donostiako Aste Nagusia eta horrek trafikoa eragiten dituen gorabeherak zirela eta, ezinezkoa zela etxera joatea motorra kendu eta konpontzera eramateko abuztuaren 20a arte. Familiak behin eta berriz eskatu ondoren, abuztuaren 17an motorra jasotzera joango direla jakinarazi zaie, baina konponketarako aurreikusitako denbora zalantzazkoa dela eta bien bitartean ordezko beste motorrik ez dagoela adierazi zaie. Interesdunak adierazi duenez, gorabehera horrek luzatu egiten du matxuraren berri ematen denetik erabiltzaileak gurpil-aulkia berritara erabili ahal izan arte eta, beraz, eguneroko errutinari (Zorroaga Fundazioaren eguneko zentrorra joan, kontsulta medikoak, etab.) berritara heldu arte igarotako denbora, eta horiek, interesdunak gaineratu duenez, onurak ekartzen dizkiote bere osasunari.

Horregatik guztiatik, adierazi du ez dagoela ados emandako zerbitzuarekin eta (...)ek emandako tratuari, eta eskatu du beharrezko kudeaketak egin daitezela motorra ahalik eta azkarren konpondu ahal izateko.

3.- Zerbitzuko arduradunek bidalitako idatzian adierazten denez, (...) (...) Atalean dago, (...) ko Departamentuaren barruan, eta haren helburua da laguntza-produktuak ematea desgaitasuna edo mendekotasuna duten pertsonak etxean gera daitezen, eta haien autonomia eta gizarteratzea bermatzea, eguneroko bizitzako jarduerak egin ditzaten.

(...) zerbitzuaren kudeaketa Gipuzkoako Foru Aldundiaren ardura da, eta horren kudeaketa (...) erakundeak du kontratu bidez esleituta. Eskaintzen diren zerbitzuen artean, besteak beste, laguntza-produktu berreskuragarrien kudeaketa dago, horien lekualdaketa, harrera, mantentzea eta konponketa barne. Produktu bat konpondu behar denean, kasu honetan bezala, (...) bidez kudeatzen da eta, oro har, horrelako gorabeherak 2-5 eguneko epean konpontzen dira, nahiz eta zaila den aldez aurretik epe zehatz bat ematea, egon daitezkeen arazoak eta gorabeherak askotarikoak baitira. Prozeduraren arabera, denbora horretan ez zaio erabiltzaileari kortesiazko produkturik ematen, zerbitzu horrek kudeatzen dituen laguntza-produktuen bolumenak ez baitu ahalbidetzen erabiltzaile guztientzako kortesiazko laguntza-produkturik bermatzea.

Adierazitakoaren arabera, hain zuzen ere, abuztuaren 11n, ostirala, motorraren matxuraren berri eman zen, eta jakinarazi zitzaion Donostiako jaiak zirela eta hirian ibiltzeko zailtasunak zeudela, eta ziurrenik aste horretan ezingo zutela konpondu. Hala ere, abuztuaren 14an, astelehena, erabiltzailearen familiak berritara deitu zuenean eta familiaren beharra ikusita, konponketarako aukerak aztertu ziren. Azkenik, abuztuaren 17an, motorra konpondu zen erabiltzailearen etxean bertan.

Zerbitzuak idatzian adierazi duenez, egoera ulertzen eta sentitzen dute, gurpil-aulkiari laguntzeko produktuak familientzako eguneroko laguntza handia direla jakinda, eta, horregatik, ahalik eta zerbitzurik onena eta azkarrena ematen saiatzen dira. Kasu honetan, Donostiako jai-garaian zerbitzua nahi bezala emateko zailtasunak areagotu egiten dira, baina adierazi dute beti saiatzen direla konponbideak bilatzen ahal duten neurrian, kasu honetan bezala, eta espero dute aurkeztutakoa bezalako idazkiek horrelako egoerak hobetzen eta etorkizunean saihesten lagunduko dutela.

4.- Adierazi behar dugu EEB honek ezer gutxi egin ahal izango zuela motorra konpontzeko prozesua azkartzeko, gai honetarako adostu litezkeen gomendioez gain; izan ere, gogora dezagun, EEB honen helburua EZSn araututakoak bultzatzea, sustatzea eta betetzen direla

zaintzea da, eta haren ebazpenak proposamentzat hartzen dira Foru Aldundiarentzat, gobernu-organoentzat eta interesdunentzat, bakoitzak neurri egokiak har ditzan (10/2022 Foru Dekretuaren 4. artikulua). Zorionez, Zerbitzuak aurkeztutako erantzun-idazkiaren arabera, gurpil-aulkiaren motorra behar bezala konpondu zen abuztuaren 17an, EEB honek ebazpena eman aurretik. Nolanahi ere, aztertu behar da ea emandako zerbitzua egokia eta EZSn ezarritakoaren araberkoa izan zen.

5.- Gai honetan zalantzan jartzen da Gipuzkoako Foru Aldundiak zenbait zerbitzu emateko kontratatutako erakunde batek emandako arreta; beraz, foru-kontratazio publikoari (KJK) eta foru-enplegu publikoari (EPJK) buruzko kodean ezarritakoa betetzen dela ziurtatu beharko da.

KJKn bertan adierazten den bezala, bertan ezarritakoak osatu egiten du foru enplegu publikoari aplikatu beharreko Kodean adierazitakoa, eta bi Kodeetan ezarritako jarraibideek bermatu behar dute kontratatutako zerbitzuaren kudeaketa eta prestazioa Erakundearen Zuzentasun Sisteman ezarritako balio eta printzipioetara egokitzen dela.

04/2023 Ebazpenean aipatzen zen bezala, garrantzitsua da Gipuzkoako Foru Aldundiak ematen dituen zerbitzuak, zuzenean edo kontratatutako enpresa edo entitateen bidez, Foru Aldundiari berari espero zaion arduraz egitea, herritarren ustez zerbitzua ematen duena baita, eta zerbitzu horiek herritarrek zerbitzu horien funtzionamendu egokian jarri duten konfiantzari dagozkie.

EPJKk zenbait jarraibide ezartzen ditu zerbitzu publikoak emateari dagokionez, eta bereziki azpimarratzen du zerbitzu horiek errespetuan eta profesionaltasunean gauzatu behar direla.

Errespetuaren balioari dagokionez, honako hau adierazi da:

7. Errespetua

(...)

d) Langile publikoek **arreta berezia jarri beharko dute herritarrekiko eta zerbitzu publikoko erabiltzaileekiko harremanetan**. Eredu honetan, foru langileek ematen duten zerbitzu publikoaren azken arrazoia herritarrak direnez, edozein kasutan kortesia, zuzentasun eta errespetuz tratatuko dira, eta bereziki, pertsona orok merezi duen duintasunez, baita adeitasun, enpatia eta baretasunez.

e) Modu berean, foru langile publikoek **arreta berezia izango dute, dimentsio etikotik, bereziki ahulak diren kolektiboekin harremanak izatean**, gizarte arrazoiak, arrazoi ekonomikoak edo edozein motatako arrazoiak direla eta, beharrezkoak diren ekintza positiboko neurriak hartuz eta pertsona horiekiko tratuan sentsibilitate eta enpatia berezia helaraziz, erakundeak sustatzen dituen politika publikoen eremuan.

(...)

Eta Erantzukizunaren profesionalaren printzipioari dagokionez:

3.5 Erantzukizun profesionala

(...)

b) Euren funtzioak burutzean, foru langile publikoek arduraren profesionalarekin jardungo dute beti, euren funtzioak eta lanak diligentzia handienarekin betez eta markatutako helburuak betetzeko beharrezko esfortzua eginez.

c) Horrek esleitutako funtzioen dedikazio berezia dakar, gai edo administrazio izapide bakoitzak suposatzen dituen interes eta jarrerak baloratuz beti, proposamen edo txostenak arrazoituz eta, edozelan ere, funtzio horiek egoki ez betetzeak edo euren jarrerak sortzen dituen ondorioak onartuz.

(...)

Ezin bestela izan, agindu horiek herritarrei eta zerbitzu publikoen erabiltzaileei arreta egokia eta profesionala ematea bermatu nahi dute, eta, horretarako, lanak behar den arretaz egingo dituzte, haien beharrei eta eskaerei erantzungo diete eta gaiak modu eraginkorrean ebatziko dituzte. Hori oinarritzkoa da edozein egoeratan eta edozein zerbitzu publikotan, baina are gehiago kolektibo bereziki zaugarria izanik, adinekoak eta mendekoak diren moduan (aztergai dugun gaian bezala). EZSk bere gain hartzen du kolektibo ahulenean izan behar den arreta berezia, eta horregatik berariaz jasotzen da EPJKn bertan.

Zerbitzuak bidalitako idazkitik ondorioztatzen denez, prozedura jakin bat dago hala behar duten erabiltzaileei emandako ekipamenduen matxuretarako, eta konpontzeko ohiko epea 3 eta 5 egun artekoa da. Hala ere, gerta daiteke Zerbitzuarekin zerikusirik ez duten inguruabarrak gertatzea, partikularren nahiz zerbitzu publikoen ohiko funtzionamenduari eta jarduerari eragiten dietenak, hala nola Donostiako Aste Nagusia ospatzea eta horrek dakartzan gorabeherak.

Ulergarria da familiaren ezinegona, bere eskaerak asebeteta ez ikusteko ezintasunaren aurrean, batez ere kontuan hartuta pertsona horren eguneroko errutina geldiaraztea dakarrela, bere ongizate fisiko eta emozionalerako beharrezkoa den errutina, alegia. Hala ere, ezin da alde batera utzi, kasu honetan, Zerbitzuaren mende ez dagoen egoera bat dela. Gainera, nahiz eta ohiko prozedurak matxuratutako motorra konponketa-plantara eramatea dakarren, gai honetan, eta hain zuzen ere erabiltzailearen egoera gehiago ez atzeratzeko, etxean bertan eta hasiera batean adierazitakoa baino lehen konpontzea lortu zen (hasiera batean abuztuaren 20tik aurrera konpondu ahal izango zela aipatzen zen, baina azkenean abuztuaren 17an ebatzi zen). Horrek pentsarazten du Zerbitzuak borondatea agertu zuela arazoari irtenbidea aurkitu ahal izateko, betiere ahal zuen neurrian, baina egia da familiak behin eta berriz hainbat telefono-deiren ondoren, eta kontu hori saihestu egin behar zela hasiera-hasieratik alternatibak bilatuz eta aurkituz.

04/2023 Ebazpenean adierazi bezala, gogoan izan behar dugu arretaz, eraginkortasunez eta enpatiaz emandako zerbitzu baten ondorioz herritar guztiak pozik eta eskertuta daudela jasotako zerbitzuarekin, eta, horregatik, hala izango dela bermatzeko behar diren neurri guztiak hartu behar direla beti.

Hori guztia dela eta, Erakundearen Etika Batzordeak erabaki hau hartu du, aho batez, 2023ko abuztuaren 30ean

EBAZPENA

Lehenengoa. - Koiuntura eta hartutako prozedura kontuan izanda, eta Foru Enplegu Publikoaren Etikaren eta Kudeaketa Onaren Kodearen artikuluetan Errespetuaren eta Erantzukizun profesionalaren balioei buruz ezarritakoa kontuan hartuta, uste dugu Mendekotasunaren eta Desgaitasunaren Arretako Zerbitzuak egindako kudeaketak ez duela urratzen Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta bere sektore publikoaren Erakundearen Zuzentasun Sistemari ezarritakoa.

Bigarrena. - Eskaintzen den zerbitzu publikoaren funtzionamendu eta kalitatea eta erabilitzaileei eta haien senideei ematen zaien arreta egokia bermatzeko, neurri hauek hartzea gomendatzen dugu:

1. (...)ko Zuzendaritzak eta (...) erakundeak kontratuaren ardura izango duen pertsona bana zehaztea.
2. Zerbitzu publikoak eskaintzeko kontratatutako langileek trebetasun teknikoetan, komunikazio eraginkorrean eta talde zaurgarrien behar eta erronkekiko sentibilizazioan aldi-aldi trebakuntza jasotzen dutela bermatzeko beharrezko neurriak hartzea.
3. Zerbitzu publikoak ematean kalitate- eta erantzukizun-estandarrak ezarriko dituzten gizarte-politika sendoak ezartzea, talde ahulenak babesteko eta haien beharrei behar bezala erantzungo zaiela ziurtatzeko xedapen espezifikoak barne.
4. Azpiegitura eta tresna egokiak ziurtatzea, zerbitzu publikoak pertsona guztientzat irisgarriak izan daitezen, eta pertsona horiek gizartean erabat parte har dezaten lortzea.
5. Erabiltzaileen eta, oro har, herritarren parte-hartze aktiboa sustatzea, hobetzeko arloak identifikatzeko eta politikak inklusiboak eta eraginkorrak izango direla bermatzeko.
6. Monitoretza- eta ebaluazio-mekanismo jarraituak ezartzea, zerbitzuak ematean akatsak identifikatzea ahalbidetuko dutenak; horri esker, neurri zuzentzaile egokiak hartu ahal izango dira eta kalitate-estandar konstantea mantendu ahal izango da.
7. Arazoen kudeaketa- eta jarraipen-sistemak ezartzea, eta prozesua arintzeko eta erantzunak azkar eta eraginkortasunez lortzeko beharrezkoak diren baliabideak esleitzea.
8. Ahal den neurrian, arreta pertsonalizatua ematea, erabiltzaileen premia indibidualak ezagutzeko, zerbitzuak kasu bakoitzaren inguruabar espezifikoan arabera egokitu ahal izateko.

EBAZPENA, (...) ANDREAK AURKEZTUTAKO KEXARI BURUZKOA. GAIA: (...) ZENTROKO MEDIKU TITULARRAREN ALDETIK AMAK JASO ZUEN TRATUA

I.- KONTSULTA

1.- 2023ko azaroaren 10ean, idazki bat jaso zen posta elektronikoz, (...)doktorearen aurka, (...)egoitzako mediku titularra, batez ere amaren bizitzako azken egunetan jasotako tratuagatik.

Idazkian zehazten denez, 102 urteko interesdunaren amaren osasunak okerrera egin zuen 2023ko abuztuaren 8an, eta doktoreak jakinarazi zion haren heriotza berehalakoa zela (24 ordu), eta ez ziotela elikagairik eta likidorik emango, irensteko gai ez zelako. 24 ordu igaro ondoren, doktoreari galdetu zioten ea ezin zion amari ezer eman, sufritzen ari zela uste baitzuten, eta ezin zuten ezer egin bere osasuna hobetzeko. Doktoreak erantzun zion ama lasai zegoela eta ezin ziotela sedaziorik eman. Bigarren egunean berriro ekin zioten, baina erantzuna berdina izan zen. Hirugarren egunean, medikuak emakumeari bisita egin zion, eta alabei esan zien 12-24 orduko kontua zela, eta geroago itzuliko zela bisitan, baina ez zuen halakorik egin. Azkenik, alabek, asteburua hurbiltzen ari zenez eta egoitzan iraun bitartean guardiako medikuak baino ez zituenez, Gipuzkoako Ospitaleko Larrialdietara eramatea erabaki zuten. Bertan, osasun-egoera itzulezina zela eta, duela egun batzuk sedazioa eman behar zitzaiela adierazi zieten, sufrimendua saihesteko. Sedazioa egiten da eta, azkenean, gau horretan bertan hiltzen da.

2.- Kexa aurkeztu du, bai amaren bizitzako azken egun horietan jasotako tratuagatik, bai ama egoitzan egon zen 7 urteetan medikuak izandako jarreragatik, egoiliarrarekiko eta haren familiarekiko enpatia eta desinformazio falta argudiatuz.

II.- APLIKATU BEHARREKO ARAUAK

1.- Diputatuen Kontseiluaren 2016ko martxoaren 1eko Erabakiaren bidez onetsi zen Gipuzkoako Foru Aldundiko eta haren sektore publikoko Erakundearen Zuzentasun Sistema (aurrerantzean, EZS), zeinaren bidez etika publikoa eta eredugarritasuna ezaugarri gisa finkatu nahi baitira.

Sistema horren esparruan, zenbait jokabide kode onartu ziren: Diputatuen Kontseiluaren 2016ko martxoaren 1eko erabakiaren bidez, Gipuzkoako Foru Aldundiko eta haren sektore publikoko kargu publikoen zein langile baliokideen Jokabide eta Jardunbide Egokien kodea (KPJK); Diputatuen Kontseiluaren 2017ko irailaren 5eko erabakiaren bidez, kontratazio publikoari aplikatu beharreko Jokabide kodea eta zuzentasun instituzionaleko esparrua (KJK); Diputatuen Kontseiluaren 2017ko azaroaren 7ko erabakiaren bidez, Gipuzkoako foru Enplegu publikoaren Etikaren eta Kudeaketa Onaren Kodea (EPJK); Diputatuen Kontseiluaren 2018ko urriaren 2ko erabakiaren bidez, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta haren sektore publikoaren laguntzei eta diru laguntzei aplikatu beharreko Jokabide kodea eta zuzentasun instituzionaleko esparrua (DLJK); 13/2022 Foru Dekretuaren bidez, 2022ko irailaren 13koak, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta haren sektore publikoarekin elkarreragiten duten Interes Taldeei aplikatu beharreko Jokabide Kodea (ITJK); eta Diputatuen Kontseiluaren 2023ko urtarrilaren 10ko erabakiaren bidez Datuak eta Adimen Artifiziala erabiltzeko kode etikoa (DAAK).

2.- Bai EZSk bai jokabide kodeek hau ezartzen dute: Erakundearen Etika Batzordea (EEB) izango dela berme handieneko organoa eta hura aplikatzeko gaien berri izango duena. Batzorde horren antolaketa, prozedura eta funtzionamendua maiatzaren 3ko 10/2022 Foru Dekretuan arautzen dira, eta Batzordearen ardura izango da Erakundearen Zuzentasun Sistema garatzeko tresnetan ezarritako balioak, printzipioak eta jokabide arauak ez bete-tezari buruz jasotako keak eta salaketak izapidetzea eta ebaztea.

III. ERAKUNDEAREN ETIKA BATZORDEAREN BALORAZIOA

1.- Gai honetan, hildakoaren eta haren senideen bizitzako azken egunetan medikuaren aldetik jaso zuten tratua salatzen da, bai egoitzan zegoen bitartean, bai Gipuzkoako Ospitalera eraman zutenean. (...) egoitza KABIak kudeatzen du (Gipuzkoako Foru Aldundiaren erakunde autonomoa) eta, beraz, foru Aldundia da emandako zerbitzuak behar bezala funtzionatzen duela bermatzeko eta bertako egoiliarren ongizatea bermatzeko azken arduraduna. Hori dela eta, EEBri dagokio balioestea jasotako zerbitzua eta tratua benetan bat datozen EZSk foru-sektore publiko osorako ezarritako balio eta printzipioekin.

Kexa hirugarren baten gainekoa denez, maiatzaren 3ko 10/2022 Foru Dekretuak, gaiak izapidetu, ebatzi eta jakinarazteari buruzkoak, 9. artikuluan ezarritako prozedurari jarraiki, azaroaren 13an Erakunde Publikoen Zuzendaritza Nagusiko arduradunei helarazi zitzaizen jasotako kexa, informazioa emateko eta egoki iritzitako gogoetak adierazi eta argudiatzeko eskubidea bermatzeko, eta, aldi berean, EEB honek beharrezkotzat jo zituen galdera batzuk egin ziren, gaia konpondu ahal izateko. Ildo horretan, azaroaren 29an idazki bat jaso zen, bere oharpenekin, eta azaroaren 30ean osatu zen, EEB honek eskatuta.

2.- Kexa aurkezten duen pertsona 2023ko abuztuaren 12an hildako emakumearen alaba da, 102 urteko emakumea eta 7 urtez (...) egoitzan bizi izan dena.

Aurkeztutako idazkian emakumearen bizitzako azken egunak deskribatzen dira, doktoreak heriotza laster gertatuko dela jakinarazten dietetik eta Gipuzkoako Ospitalean 5 egun geroago heriotza gertatu arte.

Azaldu dutenez, abuztuaren 8an senideei jakinarazi zitzaizen, ziurrenik, datozen 24 orduetan ama hilko zela, eta une horretatik aurrera elikagaiak eta likidoak emateari utziko ziotela, ezin baitzituen irentsi. Aurreikusitako 24 orduak igarota, senideek medikuari galdetu zioten ea ezin zioten ezer eman sufrimendua arintzen laguntzeko, baina doktoreak esan zien lasai zegoenez ezin ziotela sedazioa eman, 24 ordu geroago eman zien erantzun bera.

Senideak kexu dira egun horietan emakumeak doktorearen aldetik jaso zuen arreta eskasagatik, egunean behin bakarrik eta familiak eskatuta joan baitzen emakumea ikustera. Adierazi dutenez, asteburuetan Egoitzan guardiako medikua baino ez dago. Hori dela eta, larunbat goizean (5 egun geroago) (...)ko larrialdietako medikuari deitzea erabaki dute. Medikuek horrek adierazi du berak eman diezaiokeela sedazioa zentroan, baina egiaztatu du ez dagoela prozesua zaintzeko langile kualifikaturik, eta, beraz, familiak Gipuzkoako Ospitaleko Larrialdietara bideratzea erabaki du (ospitaleratze-partea erantsi da).

Ospitaleko langileek ordura arte non egon zen galdetu diete senideei, eta zergatik ez zioten sedazioa lehenago eman, 102 urteko emakumearen egoera ikusita zentzugabea baitzen egoera horretan mantentzea. Elektro bat egin eta bizi-konstanteak hartu ondoren (egoitzan egin ez ziren prozedurak), sedazioa egiten da, eta, azkenik, gau horretan bertan hiltzen da. Hurrengo egunean, doktoreak galdetu zuen ea zergatik bideratu zuten ospitalera, eta

adierazi zuen berak jada ohartarazi zuela egoitzan sedatu zitekeela, eta laguntza-langileek beren gain hartzen zutela sor zitezkeen arazoan ardura.

Interesduna damutu egiten da bere amaren bizitzako azken egunetan jasotako tratuagatik, eta etika gutxikoa eta ankerra dela esaten du 102 urteko pertsona bat 5 egunez hiltzorian edukitzea ezer jan eta edan gabe. Bere ustez, protokoloa aldatu beharko litzateke gaixo eta mendekoekiko solidarioagoa izateko, behar baino gehiago ez pairatzeko eta bakean hiltzen uzteko.

Bere kexa ez du ez egoitzaren ez laguntzaileen aurka aurkeztu, (...)doktorearen aurka baizik, eta mediku horrek berak lehenago ere antzeko kexak jaso zituela ziurtatu zuen. Gogoratu du, gainera, ama egoitzan egon zen 7 urteetan, amaren osasun-egoerari buruzko informaziorik ez dutela izan, zuzenean eskatzearen kontura bakarrik jasotzen baitzuten.

Azkenik, foru Aldundiak egoitza horietan nola jokatzeko den ikuskatzea eskatu du, egunean ordu gutxi batzuetan doktore bat baitute, eta hori berriro gerta ez dadin neurriak hartzea nahi du.

3.- Erakunde autonomoetako arduradunek bidalitako idazkian, lehenik eta behin, KABIak zerbitzua ematen duen 16 egoitzak kudeatzeko sistema aipatzen da.

Alde batetik, kudeaketa zuzeneko egoitzak daude (egoitza-burua KABIako langileak dira, eta zerbitzuak Zerbitzu Zentralek kudeatzen dituzte), eta, bestetik, kudeaketa integralko egoitzak daude (lizitazio bidez, zerbitzu-enpresa batek kudeatzen du egoitza, Agiri Teknikoetan jasotakoaren arabera).

(...) duen egoitza kudeaketa integralko egoitza da, eta bertan, 2023/10/31ra arte, (...) zerbitzu-enpresak eman du zerbitzua (eta 2023/11/01etik aurrera, (...) zerbitzu-enpresak). KABIak bere zentro guztietan ematen den zerbitzuaren jarraipena egiten duela ziurtatu dute, eta (...) egoitzaren jarraipen espezifikoak egin dute, praxi desberdinei buruzko gomen-dioak edo zuzenketak eginez.

EEB honetan jasotako kexa bera GFako Ikuskapen Atalak jaso zuen 2023/11/09an, eta ikuskatzaileak KABIako Zerbitzu Zentraleko Laguntza Arloko teknikariarekin partekatu zuen, GFako Ikuskapen Atalean KABIaren egoitzei buruz jasotako kexa guztien aurrean ohiko prozedurari jarraituz: KABIako Laguntza Arloko erreferentziako teknikariarekin partekatzen da, eta kexaren izaera adierazten du, egoitzan ikuskapen-bisita bat eginez, dokumentazioa eskatzen da, ondorioak adierazten dira eta, hala badagokio, hobekuntza-arloak zuzentzeko hartu beharreko neurriak ezartzen dira.

Gai horri buruzko kexari dagokionez, 2023/11/08an ikuskapen-bisita egin zen (...)ko egoitzara, egoera eta emandako urratsak aztertzeko, eta ez-betetzerik edo jardunbide txarrik antzeman ez bazen ere, hobekuntza orokorreko bi arlo planteatu ziren:

- Zainketa aringarrien prozesua argi azaltzea.
- Jarraipen medikoetan adierazi zer neurri aringarri hartuko diren.

Bestalde, idazkian adierazten denez, 2023/02/02an senide batek antzeko kexa jarri zuen (egoiliarren heriotza-prozesuarekiko arretarik ezaren sententzia) ikuskapenaren atalean (ez da zehazten mediku beraren aurka egin zen), eta modu berean jokatu zen: ikuskaritza,

hobekuntza-arloak eta Asistentzia Arloarekiko koordinazioa (ikuskapen-akta eta txostena erantsi dira). Orduko hartan, hobekuntzak gomendatu ziren honako puntu hauetan, eta 2023ko otsailean zuzendu ziren:

- Medikuek zentroan erabiltzen duten Resiplus programan erregistratu beharko dituzte beren jarduera guztiak.
- Lanaldi guztietan goizeko eta arratsaldeko txandetan erizainak egotea gomendatzen da.

Lizitazio berriarekin eta zerbitzu-enpresa berriarekin, egoitzaren antolaketa aldatu da, zuzendari berri bat sartu da eta (...)enpresaren prozesuak eta protokoloak aplikagarriak dira. Zainketa-enpresak bere bizitzaren azken faseari arreta berezia eskaintzeko konpromisoa hartu du (atxikitzen dena).

Azkenik, esan da KABIaren helburua erabiltzaileei kalitatezko zaintza integrala eta pertsonalizatua eskaintzea dela, eta, beraz, garrantzi handia ematen zaiola sarbide-faseari, egokitzapenari, etengabeko arretari eta azken arretari, bai eta erabiltzaileen, senideen eta/edo erreferentziazko pertsonen informazioari eta parte-hartzeari ere, zerbitzua hobetzen jarraitu ahal izateko.

4.- Gaiaren azterketa zentratu ahal izateko, komeni da adieraztea, aurkeztutako idazkitik ondorioztatzen denez, interesdunaren ondoeza eta kexa eragiten duten hainbat gai daudela, eta bi multzotan biltzen ditugula (informazioa eta zainketa aringarriak):

- Egun horietan medikuak izan duen jarrera, amari arretarik eman ez zaiolako, egin beharreko frogarik egin ez delako eta informaziorik eman ez delako; halaber, (...)n bizi izan den urteetan amaren osasun-egoerari buruzko informazioa ematerakoan proaktibitatez ez izatea.
- Elikatzeari utzi eta sedazioa lehenago eman ez izana.

Beraz, gai horietan EZSn ezarritakoaren arabera jardun zen baloratzea da zeregina; izan ere, lehen adierazi den bezala, KABIaren babespeko egoitzen kudeaketaren azken erantzukizuna Gipuzkoako Foru Aldundiarena da, eta, beraz, emandako zerbitzua egokia eta EZSn ezarritakoaren arabera izan zen aztertu behar da.

Adierazitako gaiak Gipuzkoako Foru Aldundiak egoitzetan zerbitzuak emateko kontratatutako erakunde bateko langileei buruzkoak dira, eta, beraz, Foru Kontratazio Publikoari buruzko Kodean (KKK) eta Foru Enplegu Publikoari buruzko Kodean (EPJK) ezarritakoa betetzen dela ziurtatu beharko da.

KKKn bertan adierazten den bezala, bertan ezarritakoak osatu egiten du foru enplegu publikoari aplikatu beharreko Kodean adierazitakoa, eta bi Kodeetan ezarritako jarraibideek bermatu behar dute kontratatutako zerbitzuaren kudeaketa eta prestazioa EZSn ezarritako balio eta printzipioetara egokitzen dela.

04/2023 eta 06/2023 Ebazpenetan aipatzen zen bezala, garrantzitsua da Gipuzkoako Foru Aldundiak ematen dituen zerbitzuak, bai zuzenean, bai kontratatutako enpresa edo erakunde bidez, foru Aldundiari berari itxaroten zaion arduraz egitea; izan ere, herritarren iritziz, hark ematen du zerbitzua, eta herritarrek zerbitzu horien funtzionamendu egokian

jarri duten konfiantzari egokitu behar zaio. Gainera, kontu bereziki delikatua da, batez ere azken egunetan pertsona batek jasotako tratua delako, eta, beraz, arreta berezia jarri behar zaio inguruabar horri.

EPJKak zenbait jarraibide ezartzen ditu zerbitzu publikoak emateari dagokionez, eta bereziki azpimarratzen du zerbitzu horiek errespetuan eta profesionaltasunean gauzatu behar direla.

Errespetuaren balioari dagokionez, honako hau adierazi da:

7. Errespetua

(...)

d) Langile publikoek **arreta berezia jarri beharko dute herritarrekiko eta zerbitzu publikoko erabiltzaileekiko harremanetan**. Eremu honetan, foru langileek ematen duten zerbitzu publikoaren azken arrazoiak herritarrak direnez, edozein kasutan kortesia, zuzentasun eta errespetuz tratatuko dira, eta bereziki, pertsona orok merezi duen duintasunez, baita adeitasun, enpatia eta baretasunez.

e) Modu berean, foru langile publikoek **arreta berezia izango dute, dimentsio etikotik, bereziki ahulak diren kolektiboekin harremanak izatean**, gizarte arrazoiak, arrazoi ekonomikoak edo edozein motatako arrazoiak direla eta, beharrezkoak diren ekintza positiboko neurriak hartuz eta pertsona horiekiko tratuan sentsibiltate eta enpatia berezia helaraziz, erakundeak sustatzen dituen politika publikoen eremuan.

(...)

Eta Erantzukizun profesionalaren printzipioari dagokionez:

3.5 Erantzukizun profesionala

(...)

b) Euren funtzioak burutzean, foru langile publikoek **ardura profesionalarekin jardungo dute beti, euren funtzioak eta lanak diligentzia handienarekin betez** eta markatutako helburuak betetzeko beharrezko esfortzua eginez.

(...)

Agindu horiek herritarrei eta zerbitzu publikoen erabiltzaileei arreta egokia eta profesionala ematea bermatu nahi dute, eta, horretarako, lanak behar den arretaz egingo dituzte, haien beharrei eta eskaerei erantzungo diete eta arazoak modu eraginkorrean ebatziko dituzte. 06/2023 Ebazpenean adierazten zen bezala, bereziki garrantzitsua da kolektibo bereziki kaltebera denean, hau da, adinekoak eta mendekotasuna dutenak (aztertzen ari garen gaian bezala) eta bizitzako azken egunak bezain egoera zailean daudenean.

5.- Foru Zerbitzu arduradunak bidalitako dokumentazioan ikus daitekeenez, bizitzaren amaieran arreta emateko prozedura jakin bat dago; gertakarien unean, indarrean zegoen protokoloa (...i) enpresarena zen. Horren arabera, familiaria eta azken horren bizitzaren amaierako etapan bizi denari arreta integrala eskaintzea da helburua, arreta integrala eta

ingurune afektiboari laguntzea ahalbidetzeko hainbat jarduera ezarrituz, eta eragile bakoitzaren erantzukizunak adieraziz, hau da, medikuarenak “egoiliarraren egoerari buruzko informazioa ematea eta plan terapeutikoa ezartzea”, eta, aurrerago protokoloan diziplina arteko taldeko kide bakoitzaren rolari dagokionez adierazten den bezala, pazientearen ebaluazioa eta sintomen kontrola, eta balorazio klinikoaren, plan farmakologikoaren eta elikadura-planaren eguneratzea.

Adierazitakoaren arabera, eta Zainketa Aringarrien Espainiako Sozietateak ezarritakoari jarraituz, besteak beste, bizi-pronostikoa hilabete eta erdi baino gutxiagokoa denean hartuko dira, kasu honetan, 24 ordukoa zelarik. Beraz, bidezkoa zen zainketa aringarriak abian jartzea, “egoiliarrari arreta integrala, indibiduala eta jarraitua ematea eskatzen dutenak (...), pertsona terminalaren autonomia- eta duintasun-printzipioa sustatuz eta, ahal bada, familia zainketa-planetan sartuz” eta “egoerak dakarren sufrimendu fisiko eta psikikoa ahal den neurrian ezabatuz (...)”. Eta hori guztia errespetuzko, erosotasunezko, euskarriko eta komunikazioko giro batean, protokoloan ondo adierazten den bezala, osasun-profesionalen zein familiaren jarreraren mende.

Adierazitakoa bermatu ahal izateko oinarriko tresnei dagokienez, besteak beste, sintomen kontrola (eta pertsonaren ongizatea eta erosotasuna bermatzeko beharrezkoak diren baliabide terapeutikoak erabiltzea) eta egoiliarraren, familiaren eta talde terapeutikoaren arteko laguntza emozionala eta komunikazioa aipatzen dira.

Dokumentuan azpimarratzen da zaintzak eta erabakiak egoiliarraren eta haren senideen ongizatea eta erosotasuna bultzatzera bideratuta daudela, eta, beraz, komunikazio jarraituaren, errespetuzkoaren eta adeitsuaren ideia azpimarratzen da.

6.- Bestalde, bizitzaren amaierako prozesuan pertsonen eskubideak eta duintasuna bermatzeari buruzko uztailaren 8ko 11/2016 Legeak, edozein barne-protokolo adierazten duena gorabehera, pertsonen eskubideak bermatzeko gutxieneko baldintzak ezartzen ditu, bai eta pertsona horiei arreta ematen dieten laguntza- eta osasun-langileen betebeharrak ere, eta pertsona horien jardun-esparrua eta gizarte- eta osasun-erakundeek prozesu horretan eman behar dituzten bermeak definitzen ditu.

Gai honetan nabarmentzen diren alderdiei dagokienez, Lege honetan, besteak beste, honako hau esaten da: “zainketa aringarrien bidez, gaixotasun edo egoera sendaezin eta itzulezin baten ondoriozko arazoei aurre egiten zaie, prebentzioaren eta sufrimendua arintzearen bidez, mina eta beste sintoma fisiko, psikosozial eta espiritual batzuk identifikatuz, baloratuz eta tratatuz” (4. c) art).

Sedazio aringarriari dagokionez, honela deskribatzen da: “farmakoak nahita ematea, eskatutako dosi eta konbinazioetan, gaixotasun aurreratua edo terminala duen paziente baten kontzientzia murrizteko, sintoma erregogor bat edo gehiago behar bezala arintzeko (...)” (4. m) art.).

Zainketa aringarriari dagokienez, adierazten da bizitzaren amaierako prozesuan dauden pertsonen eskubidea dutela pairatzen duten egoeraren konplexutasunera egokitutako kalitatezko zainketa aringarri integralak jasotzeko, sedazioa barne, hiltzeko garaian izan daitezkeen sufrimendua, mina eta beste sintoma batzuk arintzeko helburuarekin. Zainketa aringarri horiek emateari dagokionez, honako hau adierazten da: “bizitzaren amaierako prozesuan dagoen pertsonari etxean edo ospitaleratuta dagoen egoitzan edo osasun-zentroan eman ahal izango zaizkio, eta, beharrezkoa bada, beharrezko mekanismoak ezarriko

dira asistentzia-jarraitutasuna eta beste baliabide batzuekiko koordinazioa bermatzeko, eta euskal osasun-sistemak eta gizarte-zerbitzuen euskal sistemak ekitate-baldintzetan ezarritako protokoloen arabera” (12. artikulua).

Pazientearen gaineko interbentzioari dagokionez, adierazten da erabakiak honako hauek kontuan hartuta hartuko direla:

- a. Eskura dagoen ebidentzia zientifikoa.
- b. Esperientzia.
- c. Eragindako pertsonaren egoera klinikoa, larritasuna eta pronostikoa.
- d. Pazienteak aldeztu aurretik adierazitako nahiak, arretaren plangintza aurreratuaren esparruan edo aurretiazko borondateen adierazpenaren edo bestelako jarraibideen bidez.

Eta, nola ez, informazio klinikoa, sanitarioa eta asistentziala modu ulergarrian eta egokian helarazi behar dela adierazten da (5. artikulua).

7.- Bai EZSa, bai gertakarien unean indarrean zegoen bizitzaren amaierako arreta-protokoloa eta 11/2016 Legea bat datoz jarduera arduratsu eta profesional baten garrantzian, eta, jakina, etengabeko komunikazioa eta jarrera enpatikoa barne hartzen ditu.

Hala ere, aurkeztutako kexan deskribatutako gertakariak agerian uzten dute doktoreak ez zuela beti horrela jokatu, ez bizitzaren azken etapan, ez emakumea bizi izan zen urteetan. Hona hemen aurkeztutako kexaren laburpen batzuk:

- “Sendagileak behin bakarrik egin zion bisita, eta arnasa hartzeko arazorik ez zuelako eta lasai zegoelako zain egon behar genuela esaten zuen”;
- “Doktoreak esaten dit (...) beranduago pasako zela nola doan ikustera. Ez zen joan ikustera (...)”;
- “(...) [Gipuzkoako Ospitalean] elektro bat egin eta bizi-konstanteak hartu ondoren, sedazioa egiten zaio, eta egoitzako doktoreak ez zion egin”;
- “Doktore hau, nire ama trantze horretan egon zen lau egunetan, egunean behin eta gure eskariz bisitatzen du”;
- “[bizi izan den urteetan] egia da ez digula inoiz bere egoeraren berri eman, zuzenean galdetzera joan ez bagara”;
- “Doktore hau ez da oso atsegina egoiliar guztiarekin, gure amak ia zazpi urte baitzeramatzan egoitzan, eta beti galdetu behar izan diogu guk nola eboluzionatzen zuen amak, berak ez baitzigun inoiz ezer esaten, korridorean ikusten gintuenean ere ez baitzitzagun hurbiltzen informazioa ematera edo amari zerbait esatera. Inoiz ez dugu jakin odol-analisirik, elektro-analisirik edo bestelako proba medikorik egin zaion. Begiak gaizki zituela ikusten bagenion, guk esan behar genion (...).

8.- Bestalde, 4 egunez elikagairik eta edaririk hartu gabe egon izana eta alde z aurretik sedazioa eman ez izana.

Azken horri dagokionez, idazkian bertan inkongruentzia bat dagoela dirudi; izan ere, alde batetik, interesdunak adierazi du behin baino gehiagotan eskatu zuela agonia arintzeko zerbait emateko (ustez, sedazioaz ari da), eta, azkenik, egoitzan bilakaera gainbegiratu zezakeen langilerik ez zegoenez, (...)medikuak eman bazion, Gipuzkoa ospitalera eramatea erabaki zutela. Baina, bestetik, aurrerago esaten da: “Hurrengo egunean doktoreak deitzen dit, Ospitalera eraman genuelako galdetzeko, berak ohartarazi baitzidan egoitzan sedazioa egin zitekeela eta laguntzaileek hartuko zutela ardura arazorik izanez gero”.

Idazkian adierazitakotik ez da argi geratzen benetan sedazioa Egoitzan bertan egin ote zitekeen, baina larrialdietan ingresatu izanaren parteak aditzera ematen du hori izan zela familiak transmititu zuena, “Egoitzaz aldatutako pazientea, baliabide faltagatik sedatzeko” adierazten baitu. Eta, hala ere, foru-zerbitzuek egindako ikuskapen-partean honako hau adierazten da: “Abuztuaren 12ko erregistroan, erizainak sedazio-ponpa prestatzen duenean, larrialdiko medikuak jakinarazten dio familiak nahiago duela ospitalera bideratu, 24 orduko langile kualifikatuekin arreta handiagoa izateko”. Beraz, ez dirudi sedazioa Egoitzan bertan egin ezin zitekeenik, baizik eta familiak nahiago zuela langile kualifikatuen arreta eta 24 orduak izatea, eta zirkunstantzia horiek ez ziren bermatzen Egoitzan bertan; izan ere, idazkian adierazten denez, “Ostiralean Egoitzan ez dago medikurik eta erizaina bakarrik 19:30ak arte, eta larunbatean eta igandean guardiako medikua bakarrik (...)”, 2023ko otsailean ezarritako hobekuntza-gomendioekin bat etorritz. Gomendio horien artean, gogora dezagun, “erizainak goizeko eta arratsaldeko txandetan egotea lanaldi guztietan” zegoela, baina, beraz, ez gauez.

Beste kontu garrantzitsu bat da, lekua edozein dela ere, alde z aurretik sedatu behar ote zen edo benetan elikagaiak emateari utzi behar ote zitzaion. Ildo horretan, bizitzaren amaierako arreta-protokoloak ez du berariaz adierazten zer diren zainketa aringarriak zehazki, ezta zein unetan aplikatu behar diren ere. Izan ere, gaixotasun terminala definitzeko funtsezko elementuen artean, logikoa dirudi zainketa aringarriak hasteko bidea emango lukeena, honako hauek daude: gaixotasun aurreratu, mailakatu eta sendaezin bat; tratamenduari erantzuteko arrazoizko aukerarik eza; edo hilabete eta erdi baino gutxiagoko bizi-pronostikoa, aztergai dugun gaian betetzen ari zirela zirudiena.

Gai horri dagokionez, honako hau baino ez da adierazten larrialdietako ospitaleratze-agirian: “Azken 4 egunetan, alabak ezer hartu gabeko egoera preagonikoa aipatzen du. Erantzunik ez dagoenez, “eta” Egoera orokor txarra, egoera preagonikoa. Ez du erantzuten. Oso mehea “, eta hainbat proba mediko egin ondoren, familiarekin adostu zen sedazioa, eta ordu batzuk geroago hil zen.

Gai horri dagokionez, emandako datuek eta EEB honetako kideen ezagutza medikorik ezak prozedura egokia izan ote zen baloratzea eragozten dute.

9.- Foru-arduradunek aurkeztutako idazkian adierazten den bezala, kexa horren berri izan zuten, eta 2023ko azaroan *in situ* ikuskapena egin zen.

Ikuskapen-txosten laburrak aurkeztutako kexa jasotzen du labor-labor, eta hauze baino ez du adierazten: langileen bilakaeretan adierazten dela egoiliarra lasai zegoela sufri-mendu-zantzurik gabe, eta okerrera eginez gero neurri aringarriak hasiko liratekeela.

Txostenak ondorioztatzen du ez dela irregulartasunik ikusi prozeduran. Hala ere, 2 gomendio egin ziren orain arte azaldutakoaren harira:

- Zainketa aringarrien prozesua argi azaltzea gomendatzen da.
- Jarraipen medikoetan, neurri aringarriak adieraziko dira.

EEB honek oso egokitzat jotzen ditu gomendio horiek, gai honetan komunikazioan eta neurri aringarrien espezifikotasunean agerian geratu diren gabeziak arintzeko.

Hala ere, txostenean dagoen informazio urria ez da nahikoa interesdunak alegatutako informazio faltaren egiazkotasuna egiaztatzeko, eta, beraz, EEB honek egiazkotzat jo besterik ezin du egin.

Hori guztia dela eta, Erakundearen Etika Batzordeak erabaki hau hartu du, aho batez, 2023ko abenduaren 19an

EBAZPENA

Lehenengoa. - Foru Aldundiko Enplegu Publikoaren Etikaren eta Kudeaketa Onaren Kodeko artikuluetan errespetuaren eta erantzukizun profesionalaren balioei buruz ezarritakoa kontuan hartuta, uste dugu egoiliarrengandik eta haren senideengandik jasotako arreta ez datorrela bat Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta bere sektore publikoaren Erakundearen Zuzentasun Sisteman ezarritakoarekin, eta, beraz, jarduera gaitzesten dugu.

Bigarrena. - Positibotzat jotzen dugu pertsonen bizitzaren amaieran arreta emateko protokolo espezifiko bat egotea, bai eta aurkeztutako kexen aurrean *in situ* ikuskapenak egitea ere. Gaur egun indarrean dagoen protokoloa (...) enpresarena) aztertu ondoren, eta EZSn ezarritakoak bermatzeko, honako neurri hauek kontuan hartzea eta indartzea gomendatzen dugu, edo, hala badagokio, txertatzea:

1. Pazientearekin (ahal bada) eta familiarekin komunikatzeko kanal argiak eta eragin-korrek ezartzea, tratamendu-aukerak eta zainketa aringarriak azaltzeko.
2. Familiari informazio zehatza ematea zainketa aringarriak zer diren, egoitzan zer zerbitzu espezifiko eskaintzen diren eta zaintza horiek pazientearen bizitzaren amaierako bizi-kalitatea nola hobetu dezaketen azaltzeko.
3. Familiak eta pazienteak (ahal bada) tratamendu medikoak eta zainketa aringarrien aukerak erabat ulertzen dituztela eta baimen informatua ematen dutela ziurtatzea. Horrek legezko dokumentu egokiak sinatzea ekar dezake.
4. Argi eta garbi definitzea zer zainketa aringarriko zerbitzu eskaintzen diren, nola ezartzen diren eta zein diren zerbitzu horiek eskaintzeko arduradunak.
5. Zehaztu nola emango diren zainketa espezifikoak pazienteak azken etapetan dagoenean, erosotasun-arreta eta zainketa aringarri intentsiboetarako trantsizioa barne.

6. Eskainitako arretaren, familiarekin izandako elkarrizketen eta hartutako edozein erabakiren erregistro zehatzak izatea, gardentasuna eta arretaren sendotasuna bermatuz.
7. Bizitzaren amaierako arreta-protokoloa berrikusteko eta hobetzeko prozesu bat ezartzea, atzeraelikaduraren, esperientziaren eta jardunbide egokien arabera.

Hirugarrena.- Emandako zerbitzu publikoaren funtzionamendu ona eta kalitatea bermatze aldera, eta egoitza kudeatzeaz arduratzen den enpresak erabiltzaileei eta haien senideei ematen dien arreta bermatze aldera, honako neurri hauek hartzea gomendatzen dugu:

1. Kontratuaren arduradun bat zehaztea, bai KABIak bai (...) enpresak kontratuaren gauzatzea gainbegiratu duena.
2. Etengabeko jarraipen- eta berrikuspen-prozedurak ezartzea, azken uneetako laguntza-protokoloaren betetze-mailaren eta kontratuaren baldintza orokorren betetze-mailaren jarraipena egiteko.
3. Zerbitzu publikoak eskaintzeko kontratatutako langileek trebetasun teknikoetan, komunikazio eraginkorrean eta talde kalteberen behar eta erronkekiko sentsibilizazioan aldian-aldian trebakuntza jasotzen dutela bermatzeko beharrezko neurriak hartzea.
4. Kontratua gauzatzeko baldintzak eta zerbitzuaren funtzionamendu egokia justifikatzeko baliagarri izan daitekeen edozein gorabehera, informazio eta dokumentazio aldizka eskatzea.
5. Zerbitzuak ematen diren lekuan ohiko ikuskapenak egitea (bertako langileekin edo hirugarren independenteekin), kalitatea eta betetze-maila egiaztatzeko.
6. Enpresa kontratistarekin komunikazio irekia eta etengabea izatea, edozein arazori egoki aurre egiteko eta gaizkiulertuak azkar konpontzeko.
7. Monitoretza- eta ebaluazio-mekanismo jarraituak ezartzea, zerbitzuak ematean akatsak identifikatzea ahalbidetuko dutenak; horri esker, neurri zuzentzaile egokiak hartu ahal izango dira eta kalitate-estandar konstantea mantendu ahal izango da.

EBAZPENA, (...) SINDIKATUAK JARRITAKO SALAKETA BATI BURUZKOA, BASOZAINZAKO PLAZEI BURUZKO EGONKORTZE-PROZESUAREN ESPARRUAN OP2022/309C ESPEDIENTEAN EGON DAITEZKEEN IRREGULARTASUNEN INGURUAN

I.- KONTSULTA

1.- 2023ko azaroaren 21ean salaketa-idazki bat jaso zen kanal anonimoaren bidez, (...) sindikatuak sinatua, egonkortze-prozesuaren esparruan gertatutako irregulartasunak salatzeke, zehazki, basozainen plazei buruzko espedientean. Aurkeztutako idazkian adierazten denez, 2023ko uztailaren 28ko "Tribunalaren Zuzentasun Falta" izeneko dokumentu baten berri izan dute. Dokumentu hori prozesuaren Epaimahai Kalifikatzaileari zuzendu zitzaion, eta basozain batzuek sinatu zuten. Dokumentuko baieztapen batzuen arabera, baliteke basozain batzuek deialdiaren oinarrien diseinuan parte hartu izana (argitaratu aurretik eskuratu ahal izango zituzten) eta, ondoren, foru Aldundiarekin harremanetan jarri izana, beste lehiakide batzuen datu pertsonalak emanez, datu oker batzuk ikusarazteko.

2.- Salatzaileak gogorarazi du deialdiaren oinarrien arabera epaimahaikideek ezin dutela hautagaiekin hitz egin hautaketa-prozesuarekin zerikusia duten arrazoiengatik, eta izandako kontaktu horiei buruzko informazioa eskatu dute (nork, noiz eta zein bitartekoren bidez), eta, aldi berean, gaiaren larritasunera egokitutako neurriak eskatu dituzte.

II.- APLIKATU BEHARREKO ARAUAK

1.- Diputatuen Kontseiluaren 2016ko martxoaren 1eko Erabakiaren bidez onetsi zen Gipuzkoako Foru Aldundiko eta haren sektore publikoko Erakundearen Zuzentasun Sistema (aurrerantzean, EZS), zeinaren bidez etika publikoa eta eredugarritasuna ezaugarri gisa finkatu nahi baitira.

Sistema horren esparruan, zenbait jokabide kode onartu ziren: Diputatuen Kontseiluaren 2016ko martxoaren 1eko erabakiaren bidez, Gipuzkoako Foru Aldundiko eta haren sektore publikoko kargu publikoen zein langile baliokideen Jokabide eta Jardunbide Egokien kodea (KPJK); Diputatuen Kontseiluaren 2017ko irailaren 5eko erabakiaren bidez, kontratazio publikoari aplikatu beharreko Jokabide kodea eta zuzentasun instituzionaleko esparrua (KJK); Diputatuen Kontseiluaren 2017ko azaroaren 7ko erabakiaren bidez, Gipuzkoako foru Enplegu publikoaren Etikaren eta Kudeaketa Onaren Kodea (EPJK); Diputatuen Kontseiluaren 2018ko urriaren 2ko erabakiaren bidez, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta haren sektore publikoaren laguntzei eta diru laguntzei aplikatu beharreko Jokabide kodea eta zuzentasun instituzionaleko esparrua (DLJK); 13/2022 Foru Dekretuaren bidez, 2022ko irailaren 13koak, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta haren sektore publikoarekin elkarreragiten duten Interes Taldeei aplikatu beharreko Jokabide Kodea (ITJK); eta Diputatuen Kontseiluaren 2023ko urtarrilaren 10ko erabakiaren bidez Datuak eta Adimen Artifiziala erabiltzeko kode etikoa (DAAK).

2.- Bai EZSk bai jokabide kodeek hau ezartzen dute: Erakundearen Etika Batzordea (EEB) izango dela berme handieneko organoa eta hura aplikatzeko gaien berri izango duena. Batzorde horren antolaketa, prozedura eta funtzionamendua maiatzaren 3ko 10/2022 Foru Dekretuan arautzen dira, eta Batzordearen ardura izango da Erakundearen Zuzentasun

Sistema garatzeko tresnetan ezarritako balioak, printzipioak eta jokabide arauak ez bete-
tzeari buruz jasotako kexak eta salaketak izapidetzea eta ebatzea.

3.- EEBko lehendakaria, Irune Berasaluze Lazkano, aldi berean, Gobernantza Departamen-
tuko diputatua denez eta, beraz, Funtzio Publikoko arduraduna, itxurazko interes-gatazka
bat saihesteko ez du gai honen ebazpenean parte hartuko.

III. ERAKUNDEAREN ETIKA BATZORDEAREN BALORAZIOA

1.- Gai honetan, basozain plazei buruzko espedientean egon daitezkeen irregulartasunak
salatzen dira, epaimahai kalifikatzailearen (aurrerantzean, epaimahaia) eta lehiaketarako
hautagaien artean izandako komunikazioari dagokionez.

Kexa hirugarren baten gainekoa denez, maiatzaren 3ko 10/2022 Foru Dekretuak, gaiak iza-
pidetu, ebatzi eta jakinarazteari buruzkoak, 9. artikuluan ezarritako prozedurari jarraiki,
azaroaren 27an Funtzio Publikoaren Zerbitzuko arduradunei (aurrerantzean, Zerbitzua)
helarazi zitzaizen jasotako kexa, informazioa emateko eta egoki irizitako gogoetak adierazi
eta argudiatzeko eskubidea bermatzeko, eta, aldi berean, EEBk beharrezkotzat jo zituen
galdera batzuk egin ziren, gaia konpondu ahal izateko. Alde horretatik, Zerbitzuak aben-
duaren 21ean idatzi bat bidali zuen bere alegazioekin.

2.- Salatzaileak aurkeztutako idazkian, “Tribunalaren zuzentasuna falta” (aurrerantzean,
idazkia) izeneko idazkia duela esaten da. 2023ko uztailaren 28ko data du eta basozain ba-
tzuek sinatu zuten. Jasota dagoenez, epaimahaira bidali zen. Kexan, bertako paragrafo
batzuk aipatzen ditu, eta bertan adierazitakoaren interpretazio propioa egiten du.

1. Idazkiaren lehen paragrafoak honako hau dio: “Basozainon kasuan, oinarriak argi-
taratzeko, 2. azterketa frogatik fisikokoa izan zirela jakinarazi zitzaion Aldundiari⁶ eta
hala jaso zuen argitaratutako oinarrietan (...)”. Salatzailearen arabera, horrek esan
nahi du idazkiaren sinatzaileek oinarrien diseinuan parte hartu zutela, argitaratu
aurretik bazekitelako.
2. Jarraian, hau transkribatzen da: “OP-aren puntuazioa: tribunalak behin-behineko
zerrendak argitaratzerakoan ez du kontuan hartu hautagaien gaitasuneko proben
emaitza, hauek euren esakeran jarritakoa, baizik. Ez du zuzenketarik egin, beraz.
Esan, emaitza hauek argitaratzerako, Aldundia jakinaren gainean jarri zela zein
parte-hartzaileek zuen gaizki jarria zegokion ariketa gaitasuneko izanaren gaineko
informazioa”. Kasu honetan, salatzaileak bere buruari galdetzen dio nola jar dai-
tekeen harremanetan Aldundiarekin prozesuan zehar eta, gainera, beste pertsona
batzuen datu pertsonalei dagokienez.
3. Beste paragrafo bat ere aipatzen da, honako hau dioena: “Harrigarria baita ere
eta deskonfidantza sortzen duena horrelako gai serio baten aurrean tribunala-
ren profesionaltasun eta kompetentzia falta. Are gehiago, OP-ean puntuazioari
dagokionean espreski jakinarazi zitzaionean ariketen hurrenkeraz oinarriak ar-
gitaratzerako eta baita azken zerrendak argitaratzerakoan zein parte-hartzaileek
jarri zituzten datuak oker “. Horren arabera, argi eta garbi esango litzateke Epai-
mahaiarekin kontaktua egon zela bai prozesuaren aurretik eta bai ondoren, eta
horri dagokionez gogorarazi du oinarrietan bertan ezartzen dela: “Epaimahai-

⁶ Azpimarratutako guztiak kexaren dokumentuaren jatorrizkoak dira.

kideek ez dituzte pertsonalki aztertuko hautagaiekin hautaketa-prozesuarekin zerikusia duten gaiak, eta Epaimahai Kalifikatzailearengana jotzeko eskatuko die, deialdiaren oinarrietan ezarritako bitartekoaren bidez”.

4. Azkenik, ondorio gisa, zenbait hautagaik prozesuaren garapenaren berri izatea nola den posible galdetzen da, eta jakinarazpen horiek nork, noiz eta zein bitartekoren bidez eman diren jakitea eskatzen da. Aldi berean, gaiaren larritasunarekin bat datozen neurriak hartzeko eskatzen da, bai Aldundian, bai epaitegietan.

3.- Funtzio Publikoko Zerbitzuak alegazio-idazki luze bat (229 orrialde) bidali zion EEBri, bertan egindako baieztapenen euskarri gisa hainbat dokumentu jasotzen zituen.

Dokumentua hainbat ataletan banatuta dago. Lehenengoak OP2022/309C prozesua testuinguruan kokatzen du, eta Enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurri buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legearen eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren aldi baterako enplegua egonkortzeko enplegu publikoaren eskaintzaren ondoriozko betebeharrak adierazten ditu. Foru Gobernuaren Kontseiluaren 2022ko maiatzaren 24ko erabakiaren bidez onartu zen eskaintza hori (2022ko maiatzaren 27ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen). Argitaratu ondoren, deialdien oinarriak negoziatu ziren langileen ordezkariekin. Urrian azaldu zitzaizen 68 prozesuak oinarri orokor komun batzuegatik, prozesu bakoitzerako oinarri espezifiko batzuegatik eta autobaremazio-sistema berri batetik abiatzea pentsatu zela. Zehazki, adierazi zen ezin zirela 68 merezimendu-baremo desberdin onartu, baizik eta jarraibide orokor eta objektibo batzuk ezarri behar zirela, eta hortik abiatuta ezarri behar zirela baloratu beharreko merezimenduak eta haien baremoa. Bilera horretan, oinarri orokorren zirriborro bat (baloratu beharreko merezimenduak eta baremoa jasotzen ez zituen) eta oinarri espezifikoaren adibide bat eman zitzaizen, eta urriaren 7ko bileran dokumentu batzuk blokeekin eta 68 prozesuetarako merezimenduen 8 baremoekin.

Negoziatio-prozesuetan sindikatuei banatzen zaizkien dokumentuetan, sindikatu hartzailearen izena duen ur-marka bat txertatzen dela adierazten da, informazioa GAOn ofizialki argitaratu aurretik zabaltzen bada, jakiteko nondik etorri den ihesa, izan ere, dokumentuak langileen ordezkari bakarrak ematen zaizkie soilik oinarrien negoziatioan erabiltzeko (GFAko langile batek edo sindikatu horietan afiliatutako pertsona batek ere ezin du informazio pribilegiaturik izan herritar guztiei zuzendutako prozesuetan). Berariaz adierazten da dokumentu horiek sindikatuei eman ondoren, salatzaileak aipatzen duen idazkia entregatu zuen pertsonak hainbat mezu idatzi zituzkiela Zerbitzuko hainbat pertsonari dokumentu horien edukiari buruz. Azaroaren 7an oinarrien negoziatioa amaitu ondoren, eta Foru Gobernuaren Kontseiluak onartu eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu aurretik, (...) sindikatuak (salatzaileak), bere kabuz, mezu elektronikoa bat bidali zien Gipuzkoako Foru Aldundiko langile guztiei, “Blokeak” eta “Prozesuak blokeka” dokumentuen azken bertsiokin.

Hurrengo ataletan, Zerbitzuak aipatutako oinarri orokorrei eta prozesuari buruzko hainbat alderdi aipatzen ditu, jasotako gertakari batzuk ulertarazteko, hala nola egonkortze-prozesuei, parte hartzeko eskaerei, autobaremazioei, epeei eta tasei, onartutakoen eta baztertutakoen zerrendak argitaratzeari, merezimendu-lehiaketaren prozesuari, autobaremazioan alegatutako merezimenduen egiaztapenari, merezimenduen behin-behineko balorazioari, epaimahaiaren proposamenari, berdinketa hausteko irizpideei eta epaimahai kalifikatzaileen osarari buruzko informazioa argitaratzeko modua, bai eta garapenean zehar kontuan hartu beharreko arau orokor bat ere, besteak beste:

“(...)

10.1.- Garapena.

Hautagaiek, ez pertsonalki ez hirugarrenen bidez, Epaimahai Kalifikatzaileko kideengana jo ahal izango dute, banan-banan, hautaketa-prozesuarekin zerikusia duen edozein gai aztertzeko. Horren inguruan sor daitezkeen auziak idatziz aurkeztuko dizkiote Epaimahai Kalifikatzaileari, eta hark, kide anitzeko organoa den aldetik, dagokiona erabakiko du.

(...)

20.4.- Abstentzia eta errekusazioa.

[...]

Epaimahaiko kideek ez dute hautagaiekin modu pertsonalean tratatuko hautaketa-prozesuarekin zerikusia duten gaiak, eta Epaimahai Kalifikatzaileari zuzentzeko eskatuko diote, deialdiaren oinarrietan ezarritako bideak erabiliz.

(...)”

Horren guztiaren ondoren, kronologikoki kontatzen ditu kasuan kasuko prozesuan gertatutakoak. Aztergai dugun gaiari dagokionez, honako hauek nabarmendu behar dira:

(...)

- 2023ko uztailaren 14a: merezimenduen behin-behineko balorazioa, 10 egun baliodun ezarriz erreklamazioak aurkezteko eta zuzentzeko.

- 2023ko uztailaren 15a: 13 erreklamazio aurkezten dira behin-behineko balorazioaren aurka. 12 hautagaik eskatu dute 5 pertsona zehatzen balorazioa zuzentzeko. Pertsona horiek izen eta abizenekin identifikatzen dituzte, eta horiei ez dagokien puntuazioa eman zaiela hautaketa-proben merezimenduan. Izan ere, 2006ko prozesuan ez zuten gainditu ariketa praktikoa, orduan ez baitzen bigarren ariketa, hirugarrena baizik. Horretarako, prozesu horretako hirugarren ariketaren behin betiko emaitzak erantsi dituzte, eta horietan egiazta daiteke 5 pertsona horiek ez daudela hirugarren ariketa gainditu zutenen artean.

